



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

**POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO
GRADUA**

2019-2020 IKASTURTEA

**HEDABIDEETIKO HIZKUNTZA-POLITIKA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN (1979-)**

EGILEA: MIKEL ELKOROBerezibar Beloki

ZUZENDARIA: PATXI JUARISTI LARRINAGA

2020ko maiatzaren 18a.

“Gratu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisisa ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciatarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Helburuak.....	6
3. Marko teorikoa.....	7
3. 1. Politika publikoak.....	8
3. 2. Hizkuntza-politika.....	12
3. 2. 1. Definizio baten bila.....	12
3. 2. 2. Teoriaren bilakaera.....	14
3. 2. 3. Hizkuntza-politikako ereduak.....	15
3. 2. 4. Hizkuntza-politika hedabideekiko.....	17
3. 3. EAEko hizkuntza-politika 1979tik gaur arte.....	19
3. 4. EAEko hedabideekiko hizkuntza-politika 1979tik gaur arte.....	27
4. Hipotesiak.....	31
5. Metodologia.....	32
6. Analisia.....	35
6. 1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika.....	35
6. 2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko.....	43
6. 3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan.....	47
6. 4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan.....	49
6. 5. Eragina hizkuntza-ohituretan.....	51
7. Ondorioak.....	53
8. Bibliografia.....	56
9. Eranskinak.....	57
9. 1. Fitxa teknikoak.....	57
9. 1. 1. Iñaki lurrebaso.....	58
9. 1. 2. Elixabete Larrinaga.....	58
9. 1. 3. Iñaki Martínez de Luna.....	58
9. 1. 4. Beñat Garaio.....	58
9. 1. 5. Xabier Erize.....	59
9. 2. Gidoia.....	59
9. 3. Elkarriketak.....	61
9. 3. 1. A elkarriketa.....	61
9. 3. 2. B elkarriketa.....	74
9. 3. 3. C elkarriketa.....	79

9. 3. 4. D elkarrizketa.....	83
9. 3. 5. E elkarrizketa.....	87

Taulen aurkibidea

1. Taula: Politika publikoen tipologia.....	9
2. Taula: Politika publikoen prozesua.....	10
3. Taula: Lau dimentsioko plangintza-eredua.....	16

1. Sarrera

Mikel Elkoroberezibar Beloki naiz, Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko graduko ikaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. Esku artean duzun ikerketa hau nire Gradu Amaierako Lana da, eta Patxi Juaristi Larrinaga tutorearen zuzendaritzapean burutu dut.

Ikerketa honen helburu nagusia Gernikako Estatutua (1979) indarrean sartu zenetik gaur egunera arte Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko burutu duen hizkuntza-politika aztertzea da, metodologia kualitatibo baten bidez. Horretarako, analisisan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika orokorra aztertuko dut lehenik eta behin, ondoren hedabideekiko buruturikoan zentratzeko. Hori aztertu eta gero, EITB eta herri ekimeneko hedabideak izango ditut hizpide. Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politikak EAEko herritarren hizkuntza-ohituretan izan duen eragina izango dut aztergai.

Lurraldeari dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrituko da ikerketa, hainbat arrazoiengatik. Euskararen komunitatea Euskal Herria da, zazpi herrialdek osatua: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Hala ere, Espainiar Estatuaren menpe daude lehen lauak, eta Frantziar Estatuaren menpe beste hiruak. Gainera, Nafarroak autonomia erkidego bat osatzen du (Nafarroako Foru Erkidegoa), bere gobernu eta parlamentu autonomoarekin. Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritza da bertako gobernu autonomoa. Politika publiko baten analisia egiteko egitura instituzionalak izan behar dira kontuan, gobernuetara baitagokio horien gaineko erabakiak hartzea eta gizartean inplementatzea. Horregatik, ikerketa hau Euskal Autonomia Erkidegoan zentratuko da, argi edukirik hizkuntza-komunitatearen zati bat dela aztergai, zatika burutzen delako hizkuntza-politika (baita hedabideekikoa) euskararen lurralde osoan.

Denborari dagokionean, 1979tik aurrerakoa izango da azterketa. Izan ere, 1979an indarrean sartu zen Gernikako Estatutuak autonomia eman zion Euskal Autonomia Erkidegoari Espainiar Estatuaren baitan, eta Eusko Jaurlaritzaren esku geratu zen lurralde horretan hizkuntza-politika bat garatzeko eskumena, baita hedabideekikoa ere. Egiazki 1982ko Euskararen Erabilera Arautzeko Legeak ezarri zituen EAEko hizkuntza-politikaren oinarriak. Hala ere, Estatutuak euskara hizkuntza ofizial bihurtu zuen EAEn, eta ondorengo hizkuntza-politika arautzeko zenbait lerro ezarri zituen. Horregatik hasiko da analisia 1979an.

Bestetik, adierazi behar dut hedabideez mintzatzean, telebistaz, irratiaz eta prentsez ari naizela.

Ikerketa gai hau aukeratzera hainbat arrazoik motibatu ninduten, baina guztiak interes pertsonalaren, politikoaren eta zientifikoaren uztarketa batean biltzen dira. Izan ere, euskalduna naiz, eta Euskal Herri euskaldun batekin amesten dut. Ametsetatik lurrera jaitea beharrezkoa da, eta hori egia bihurtzeko bide eta moduei erreparatzea dagokigu. Horretarako, hedabideak ezinbestekoak iruditu zaizkit beti. Izan ere, hedabideen funtzioak herritarrak informatzea eta entretenitzea izan beharko luke, eta gizartea eraldatzeko gaitasun handia daukate. Baita hizkuntza-testuingurua eraldatzekoa ere. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak euskararen normalizazioa bilatzen duela auresuposatuz, hedabideekiko daukan jarrera ezagutzea oso interegarria egiten zait, zehazki, euskararen normalizazioa lortzerako orduan. Interes horrek ikerketara eraman nau, eta burutu dudana analisi honen bidez zientziari ekarpen txiki bat egitea espero dut, dauzkan mugak kontuan izanda.

Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko burutu duen hizkuntza-politika ezagutu ahalko da ikerketa honetan, bere izaera, helburuak, argilunak eta emaitzak ezagutzeko. Kritikoki analizatzen ahalegindu naiz, baita objektibotasunera gerturatzen ere. Hala ere, ni ere subjektu bat naiz, eta nire subjektibitatea, nire baloreak, nire ideiak eta nire identitatea ez dira ihesean joan ikerketa hau burutzerako orduan.

Lanaren egiturari dagokionean, lehenik eta behin, ikerketa ardaztuko duten helburuak adieraziko ditut, ondoren marko teoriko zabal batean kokatzeko. Marko teorikoak zenbait hipotesi eskainiko dizkit, eta horiek markatuko didate ikerketaren bidea. Metodologia azaldu eta gero, analisisan zentratuko da lana, eta zenbait ondorio aterako ditut.

2. Helburuak

Sarreran azaldu moduan, ikerketa honen helburu nagusia Gernikako Estatutua (1979) indarrean sartu zenetik gaur egunera arte Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko burutu duen hizkuntza-politika aztertzea da.

Helburu nagusi horretatik, ikerketaren analisisa ardaztuko duten zenbait helburu espezifiko izango ditu lanak:

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika zein den identifikatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren baitan hedabideei eman zaien garrantzia aztertzea euskara sustatzerako garaian.
- Euskal Irrati Telebistaren (EITB) sorrerak eta garapenak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikarekin daukan lotura aztertzea.

- Herri ekimenetik sorturiko euskarazko hedabide pribatuengan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu den aztertzea.
- Hedabideen arloan Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan izan duen eragina aztertzea.

Helburu espezifiko horien bidez, ikerketa ahalik eta modu integralenean burutzeko ardatzak osatu ditut. Gainera, jarraian adieraziko den marko teorikoari esker, ikerketaren hipotesiak osatzeko ezinbestekoak dira helburu horiek.

3. Marko teorikoa

Ikerketari ekiteko ezinbestekoa da oinarri sendo batzuetan kokatzea, eta hori izango da marko teorikoak beteko duen funtzioa. Ikerketaren oinarri teorikoak finkatzeko jarraituriko estrategiak orokortasunetik zehaztasunerako bidea jarraituko du, hau da, ikerketa teorikoki kokatuko den markoa zehazteko lehenik ikuspuntu orokor bat plazaratuko da, eta ondoren, pausoz pauso, ikergai zehatzeraino iritsiko gara. Estrategia hori horrela egituratuko da ondorengo lerroetan:

1. Politika publikoak.
2. Hizkuntza-politika.
3. EAEaren hizkuntza-politika 1979tik gaur arte.
4. EAEaren hizkuntza-politika hedabideekiko 1979tik gaur arte.

Lehen bi atalak era orokor batean landuko dira, eta azken biak, berriz, denboran eta espazioan mugatuta. Horrela, politika publikoen azalpen teoriko orokor batetik hasita ikergaira gerturatzeko joango da marko teorikoa, politika publiko zehatzean zentratuz (hizkuntza-politika), denbora eta espazioan (EAE 1979tik aurrera), eta inplementazio esparru jakinean (hedabideak).

3. 1. Politika publikoak

Politikaz mintzatzean, teorialari politiko anglosaxoiek bereizketa egiten dute *polity*, *politics*, eta *policy* artean. Lehenak (*polity*) egitura edo sistema politikoei egiten die erreferentzia; bigarrenak (*politics*) aktore politikoak eta euren portaera politikoa (kontsentsua eraikitze edo boterea eskuratzeko borrokan) azaltzen ditu, horiek ulerturik politikaren funts gisa; eta hirugarrenak (*policy*) politika publikoei eta kudeaketa publikoari egiten dio erreferentzia (Fernández, 1996). Baina zer da zehazki politika publikoa edo *policy* gisa ezagutzen duguna?

Galdera horren erantzuna ez da batere erraza. Are gehiago, zenbait autorek diote errazagoa dela politika publiko baten analisisa egitea definitzen saiatzea baino (Wildawsky, 1979, in Fernández, 1996). Politika publikoa botere-harreman eta balio-sistema jakin batzuen arabera erabaki-hartze prozesu bat da, problematikotzat jotzen den egoera baten aurrean ekintza edo ez-ekintza multzo bati bidea ematen diona (López, Peterson & Platero, 2014). Botere publikoa eta gobernu-autoritatea dituen autoritatearen jardura da (Thoenig & Meny, 1992, in Fernández, 1996), eta maila berean daude “gubernuek egiten dutena eta egiten ez dutena” (Dye, 1992, in Fernández, 1996), hau da, gobernuaren ekintza batek gizartearengan daukan inpaktua egiten ez duen horrek daukana bezainbestekoa da (Fernández, 1996).

Bere metodoaren eta helburuaren arabera, plano teoriko eta metodologiko desberdinak daude politika publikoak aztertzerako orduan. Eredu arrazionala, gehikuntzaren eredua, eta *Public Choice* eskola alde batera utzirik, politika publikoen analisisa izango du oinarri marko teoriko honek, politika zientziatik gertuen dagoen ikuspegia delako. Helburu azaltzailea eta metodo induktiboa jarraitzen duen ikuspegi horrek izaera politiko eta sozioekonomikoko aldagai sistemikoak txertatzen ditu bere analisisian, eta politika publikoek politika determinatzen dutela defendatzen dute, hau da, politika publiko jakin bakoitzaren ezaugarriek erabaki-hartze prozesu zehatzak sortzen dituztela deritzote. Horrela, politika bakoitzak bere boteregune propioa sortuko du, bere egitura eta prozesu politikoa garatuko ditu, baita bere elite eta talde-harreman propioak ere. Ikuspegi horretako autore batzuek politika publikoen edukia aztertzen duten heinean, beste batzuek politika publikoen faseei erreparatzen diete (Fernández, 1996).

Politika publikoen edukiaren azterketa eginez, Lowik (1964, in Fernández, 1996) bi aldagaitan antolaturiko tipologia proposatzen du: politikaren eduki hertsatzaile maila, eta mehatxu hertsatzailearen kontzentrazio maila. Ondorengo taulan ikus daiteke:

		Koertzioa burutzen da:	
		Zuzenean, norbanakoarengan	Zeharka, inguruarengan
Koertzioa da:	Zeharkakoa, leuna	Politika banatzaileak	Politika konstitutiboak
	Zuzena, berehalakoa:	Politika arautzaileak	Politika birbanatzaileak

1. Taula: Politika publikoen tipologia. Iturria: Fernández, 1996.

Eskema horren arabera, lau politika publiko mota bereizi ditzakegu (Fernández, 1996):

1. Politika banatzaileak: Baliabide kolektiboak gizarteari emateaz arduratzen dira, ez dira oso gatazkatsuak eta eduki tekniko handiagoa dute.
2. Politika arautzaileak: Gatazka dagoen esparruan erabakitzen dira, eta inplikaturako aktore guztien lehentasunak indarrez adierazten dira, arau batek ala besteak euren interesengan eragiten duelako.
3. Politika birbanatzaileak: Are gatazkatsuagoak dira, horien arabera ezartzen direlako gizarteko talde jakin batzuek zenbait pribilegio izateko lehentasunak. Aktoreak ez dira norbanakoak izango, interes taldeak baizik.
4. Politika konstitutiboak: Horien arabera ezartzen dira joko politikoaren arauak, eta aktoreak alderdiak izango dira.

Edukiaren araberako analisiak gaitasun azaltzaile handia badu ere, politika publiko bat ezin da isolatu bere prozesutik, biak baitira txanpon beraren bi aldeak. Jonesek (1984, in Fernández, 1996) prozesua bost fasetan laburbiltzen du:

1.	2.	3.	4.	5.
<i>Arazoaren identifikazioa</i>	<i>Soluzioaren formulazioa</i>	<i>Erabakia hartzea</i>	<i>Ekintzaren aplikazioa</i>	<i>Emaitzen ebaluazioa</i>
Arazoaren definizioa	Alternatiben elaborazioa	Koalizio baten sorkuntza	Exekuzioa	Ekintzari erreakzioak
Interes agregatuak	Emaitzen azterketa	Aukeratutako politikaren legitimazioa	Kudeaketa eta administrazioa	Efektuen gaineko balio epaiak
Eskarrien antolaketa			Efektuen ekoizpena	
Autoritate publikoen aurrean ordezkari eta sarbidea				
Ekintza publikoaren eskaria				
Agenda publikoan sarrera	Soluzio baten proposamena		Inguruan inpaktua	Politikaren birmoldaketa edo amaiera

2. Taula: Politika publikoen prozesua. Iturria: Fernández, 1996.

Nahiz eta eskemak itxuraz bost fase itxi adierazi, faseen artean ez dago portaera linealik, hau da, prozesua elementu bizi bat da, eta faseen ordena aldatu egiten da kasuan kasu (Fernández, 1996). Hala ere, politika publikoen zikloak hainbat kritika jaso ditu, eta horietako bat prozesu soziopolitikoaren aldaketa azaltzeko daukan gaitasun falta da. Izan ere, eredu honek ez dauka gaitasunik azaltzeko zergatik arazo jakin batzuk ez diren botere publikoaren agendara iristen, zergatik arazo publiko baten ulerkera denboran zehar aldatzen

den edota testuinguru-faktoreek politika publikoengan daukaten eragina zein den. Gainera, eredu honek alde batera uzten du aktoreen analisia, hau da, zikloak ezkutuan uzten ditu aktoreen artean dauden botere-harremanak eta prozesu politikoaren baitan bete ditzaketen rolak (López, Peterson & Platero, 2014).

Izan ere, tradizionalki ulertu izan da politika publikoak ahalik eta neutraltasun handienarekin jarri behar zirela martxan, arrazionaltasunaren eta justiziaren ideiei jarraituz. Horrela, zerbitzuek, dirulaguntzek edota herrilanez ez zituzten kontuan hartzen jaiotzagatik, etniagatik, generoagatik, erlijioagatik, iritziagatik edota hizkuntzagatik egon zitezkeen desberdintasunak, eta horrek hainbat injustizia mantentzea edo areagotzea eragiten zuen. Horren aurrean, gaur egun diskriminazio positiboaren aldeko hautua egiten dute administrazio publiko askok. Gizarteko botere-harremanen ondorioz dauden diskriminazioei aurre egiteko eta horiek zuzentzeko aplikatzen den estrategia da diskriminazio positiboa, aukera berdintasunaren printzipioa jarraituz. Diskriminazio positiboko politika publikoek hartzen duten forma, adibidez, genero transbertsalitatearena da. Izan ere, politika publiko askotan genero ikuspegia txertatzen dute, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu dadin prozesu politiko guztian, baita politika publikoaren ebaluazioan ere (Linares, 2014).

Politika publikoen ebaluazioak arazo publikoa era orokor batean aztertu dezake, edo era zehatz batean proiektuen, programen, plangintzen, neurrien edota zerbitzuen bidez. Ebaluazioa dinamikoa da, politika publikoaren ziklo osoa ebaluatzen duelako: politika publikoaren diseinutik hasi eta epe luzean gizartean izan ditzakeen ondorioak ebaluatzen amaitu arte (Bustelo, 2014). Politika publikoaren ebaluazioaren helburuak politika publikoa hobetzea, kontuak ematea, eta etorkizunera begira hobekuntzak egitea dira. Horrela, ebaluazioak erabaki-hartze prozesua erraztu beharko luke, besteak beste. Gainera, ebaluazioak jarrera politiko bat hartzea eragiten du (Weiss, 1998, in López, Peterson & Platero, 2014).

3. 2. Hizkuntza-politika

3. 2. 1. Definizio baten bila

Hizkuntza-politika defintzerako orduan, adituek definizio sorta zabala eskaintzen digute. Marko teoriko honetan, Larrinagak (2018) bere tesian aurkezten digun Grinen (2003) definizioa hartuko dugu kontuan, alde batetik; eta bestetik, Johnsonek (2013) egiten duen definizioan zentratuko gara, Kaplan eta Baldauf (1997), Schiffman (1996), Spolsky (2004), McCarty (2011) eta Tollefson (1991) autoreek egiten duten definizioen sintesi bat baita.

Hizkuntza-politika ongizate komuna handitzeko helburuarekin ingurune linguistikoa eraldatzeko gizarte mailan egiten den ahalegin sistematiko eta arrazionala da, teoriar oinarritutakoa. Instituzioek burutzen dute, eta bere jurisdikzioaren menpe bizi den biztanleriarengan edo biztanleriaren zati batengan dauka eragina (Grin, 2003, in Larrinaga, 2018). Definizio horren arabera, ulertzen da hizkuntza-politikak metodoa eta helburuak inplikatzeko dituela, eta horiek betetzeko bitarteko edo baliabideak zentzuz erabili behar direla, gehienetan mugatuak izaten direlako. Gizarte testuinguru jakin batean eragingo du hizkuntza-politikak, eta gizarte antolamenduan eragitea dakar (Larrinaga, 2018). Bestalde, bere xedea, Grinen (2003, in Larrinaga, 2018) arabera, ongizatea izango da. Kasu honetan, ongizate ez-materialari egiten dio erreferentzia, norberaren identitateari edo norberaren kultura-ondarearen zainketari, alegia.

Johnsonen arabera (2013), berriz, hizkuntza-politika hizkuntzen egituraren, funtzioaren, erabileraren eta jabetzearen eragiten duen politika publikoa da, eta mekanismo horrek ondorengo dimentsioak barnebiltzen ditu:

1. Erregulazio ofizialak: hizkuntzaren forman, funtzioan, erabileran edota jabetzearen aldaketak eragiten dituzten dokumentu idatzietan gorpuzten dira, eta ekonomian, politikan eta hezkuntzan eragina izan dezakete.
2. Hizkuntzen gaineko sinesmen eta ohiturekin loturiko mekanismo ez-ofizial eta estaliak, *de facto* eta era inplizitu batean sortzen direnak: botere erregulatzailerak daukate komunitateetan, eskoletan edota eskoletan egiten den hizkuntzen erabileraren eta interakzioaren gainean.

3. Hizkuntza-politika produktu baten ordeztu prozesu bat bezala ulertu behar da, eta politika publikoaren sorreran, interpretazioan, bereganatzean eta inplementazioan aktore ugari hartzen dute parte.
4. Testuinguru bakoitzeko ideologia eta diskurtsoek eragina daukate bertan burutzen den hizkuntza-politika barnebiltzen duten testuetan eta diskurtsoetan.

Hizkuntza-politika definituta, garrantzitsua da zenbait dikotomiaren baitan hizkuntza-politika mota desberdinak identifikatzea. Horrela, hizkuntza-politikaren sorkuntzaren, helburuen eta bitartekoen, dokumentazioaren eta legea-praktika dikotomiaren arabera, mota desberdinak identifikatu daitezke, eta elkarren artean konbinazio desberdinak izaten dira (Johnson, 2013):

1. Sorkuntza: Politika publikoaren sorkuntza bi motatakoa izan daiteke: *top-down* eta *bottom-up*. *Top-down* maila makroko politika publikoa da, eta gobernatzen duen edo autoritatea daukan pertsona edo kidego batek garatzen du. *Bottom-up*, berriz, maila mikroko politika publikoa da, eta politika publikoaren eragina jasoko duen komunitateak berak sortzen du.
2. Helburuak eta bitartekoak: Gardentasunaren arabera, irekia edo itxia izan daiteke. Irekia izango da argi adierazten badira helburuak eta bitartekoak politika publikoaren testuan, idatziz edo ahoz. Itxia, berriz, nahita ezkutatuak baldin bada izango da, bai maila makroan (kolusiboa) bai mikroan (subersiboa).
3. Dokumentazioa: Politika publikoa idatzizko edo ahozko testu batean ofizialki dokumentatzen baldin bada esplizitua izango da. Testu ofizialik ez badago, berriz, inplizitua izango da hizkuntza-politika.
4. Politika publikoa ofizialki idatziz dokumentatzen baldin bada, *de jure* izaera izango du. Nahiz eta ofizialki dokumentatuta ez egon, baina praktikan betetzen baldin bada, hizkuntza-politikak *de facto* izaera izango du.

Bestalde, hizkuntza-normalizazioaren kontzeptua lantzea ere ezinbestekoa da, hizkuntza-politikarekin parekatzen delako askotan, baita hizkuntza-politikak bete beharreko helburuarekin ere; eta zenbait argipen egitea beharrezkoa da. Termino horrekin, “kulturalki eta politikoki menderaturik egotearen ondorioz hizkuntza-ordezkapena jasaten ari den komunitate batek bere hizkuntzaren erabilera berpiztera, zabaltzera eta etorkizunean normal eta egonkor egitera zuzendurik abiarazten dituen prozesuak” azaldu nahi dira (Bastardas-Boada, 1996, in Larrinaga, 2019: 23). Rotaetxeren arabera (1988, in Larrinaga,

2019), normalizazioa helburu bat ere bada, hizkuntza gutxituaren erabilera normal egitea, hain zuzen. Beraz, hizkuntza-plangintzaren helburua normalizazioa izango litzateke.

3. 2. 2. Teoriaren bilakaera

Hizkuntza-politikak azaltzeko, ezinbestekoa da bere funts teorikoan sakontzea, eta hari buruzko ikerketek denboran zehar izan duten bilakaera aztertzea. Ricentok (2000, in Larrinaga, 2019), hiru aldi bereizten ditu bilakaera horretan Bigarren Mundu Gerratik XXI. mende hasiera arte, faktore soziopolitiko, epistemologiko eta estrategikoetan oinarrituta (Larrinaga, 2019).

1960ko hamarkadan, Afrikako eta Hego Amerikako herrialdeen deskolonizazioa burutzen ari ziren, eta inspirazio estrukturalistako hizkuntza-politika “nazio bat, hizkuntza bat” ideiarekin inguruan aurrera eraman zuten. Hizkuntza-aniztasuna demokratizazioaren, garapenaren eta modernizazioaren eragozpentzat jotzen zuten, eta horregatik, estatu deskolonizatuetan Mendebaldeko Europako hizkuntza handi bati zegokion erabilera instituzionalen eta akademikoen eremua (Larrinaga, 2019).

1970 eta 1980ko hamarkadak neokolonialismo gisa ezagutzen dira, botere ekonomikoak Mendebaldeko estatuen menpe jarraitzen zuelako eta Hirugarren Munduko herrialdeek modernizatzeko eta demokratizatzeko egindako ahaleginek porrot egin zutelako. Ikertzaileak, horrenbestez, jabetu ziren lehenagoko hizkuntza-plangintzak ez zirela egokiak izan, eta ezberdintasun sozialak areagotzeaz gain, lehenago metropoliarekiko mendekotasuna handitu egin zutela (Larrinaga, 2019). Horrela, beraien galderei erantzunak soziolinguistikak eman zizkien. Izan ere, “azterketa soziolinguistikoek agerian jarri zuten linguistika soilak ezin zezakeela paradigma egokirik eskaini hizkuntzaren aldaketaz, jabeak eta erabileraz ikertzeko” (Ricento, 2000, in Larrinaga, 2019: 25-26). Teoria kritikoa ere baliatu zuten analisirako, faktore historiko, kultural eta ekonomikoei lehen mailako arreta emanez. Hala ere, ez zuten lortu hizkuntza-politika eredu egoki bat lantzea (Ricento & Hornberger, 1996, in Larrinaga, 2019).

1990eko hamarkada teknologia berriek markatu zuten, eta globalizazioaren abiapuntua suposatu zuen horrek. Garai horretako hizkuntza-politikaren kezka nagusia hizkuntza-galera zen, zehazki, hizkuntza gutxituena (Larrinaga, 2019). Beraz, hainbat

ikertzailek bioaniztasuna zaintzearen garrantziarekin parekatu zuten kulturen eta hizkuntzen aniztasun kultural eta linguistikoa babestearen garrantzia. “Beste ikertzaile batzuek hegemonia-harremanei egin zieten so, eta hizkuntza-eskubideak aldarrikatu zituzten botere politiko, ekonomiko eta kulturalaren inposizioaren ondorioz euren hizkuntza galtzeko zorian zeuden herrientzat” (Ricento, 2000, in Larrinaga, 2019: 26). Globalizazioaren garaiko paradigma berri honi hizkuntza-ekologiaren paradigma deritzo. Munduko hizkuntza ugartasunaren aurrean, eleaniztasuna zaintzea eta kanpoko hizkuntzak ikastea sustatzen zuten, eta hizkuntza guztien hiztunentzako hizkuntza-eskubideak defendatzen zituzten, giza eskubideek aldarrikatzen duten berdintasuna hizkuntzen arlora ere zabalduz (Phillipson & Skutnabb-Kangas, 1996, in Larrinaga, 2019). “Hizkuntza-politikez, hizkuntzen iraupenaz eta giza eragintzaz landu diren ikuspegi berrien bultzadaz, paradigma berri horrek beste maila batera eraman du hizkuntza-politika” (Hornberger, 2007, in Larrinaga, 2019: 27).

3. 2. 3. Hizkuntza-politikako ereduak

Bestalde, hizkuntza-politikaren alderdi aplikatuari erreparatzea ere garrantzitsua da, hau da, “hizkuntzen sustapenean jarduteko landu diren erduei”. Bi eredu dira nagusiak: Haugenena eta Fishmanena (Larrinaga, 2019: 30). Izan ere, eredu horiek ezagutzeak ikerlan honen analisia erraztuko du, EAEko hizkuntza-politikaren nondik norakoak ulertzen lagunduko digulako.

Haugenek landu zuen hizkuntza-plangintzako lehen eredu, eta atzetik etorri ziren guztietan eragina izan zuen; are gehiago, “hizkuntza-plangintza” terminoa berak sortu zuen. Bere arabera, “hizkuntza-plangintza hizkuntza-arazoei irtenbidea ematera zuzendutako jardura bat zen, eta gramatika, ortografia eta hiztegia prestatzea zela planifikatzaileek hizkuntza-arazoen aurrean harturiko erabakiak indarrean jartzeko modua” (Haugen, 1966, in Larrinaga, 2019: 30). Bere eredu ondorengo eskeman gorpuztu zuen:

	Forma (politika-plangintza)	Funtzioa (hizkuntzaren jorraketa)
Gizartea (estatus-plangintza)	1. HAUTAPENA	3. INPLEMENTAZIOA
Hizkuntza (corpus-plangintza)	2. KODIFIKAZIOA	4. LANKETA

3. Taula: Lau dimentsioko plangintza-eredua. Iturria: Haugen, 1983, in Larrinaga, 2019.

Eredua laburbiltzen duen eskemako lehen lerroan, hizkuntza-plangintzako alderdi soziala (estatus-plangintza) agertzen da, eta bigarrenean, aldiz, alderdi linguistikoa (corpus-plangintza). Eskemako lehen zutabeak hizkuntzaren formari egiten dio erreferentzia, eta bigarren zutabeak, hizkuntzaren funtzioari. Matrize horretan, Haugenek lau dimentsio bereizi zituen, ez dutenak derrigorrezko ordena bat zehazten (Larrinaga, 2019):

1. Hautapena: Esparru jakin batean erabili beharreko hizkuntza-ereduaren zehaztapena da (Haugen, 1983, in Larrinaga, 2019). Aukeratutako ereduari “estandar” deitzen zaio, eta dialekto bakarrean oinarritu daiteke (hautapen monozentrikoa), edo hainbat dialekto nahastu ditzake (Larrinaga, 2019).
2. Kodifikazioa: “Hautaturiko ereduaren zehaztasun arauak zehaztea da. Arau emailea akademia izan daiteke (frantsesean bezala), edo autoritatetzat hartzen diren egileen testuak (ingelesean bezala)” (Deumert, 2004, in Larrinaga, 2019: 31-32).
3. Inplementazioa: “Hautaturiko eredia erakundeetan finkatzeko eta hiztunen artean zabaltzeko zeregina da. Ardura gobernua edo bestelako erakunderen batek hartzen du bere gain, eta eskola eta hedabideak izaten dira ohiko tresnak” (Haugen, 1983, in Larrinaga, 2019: 32).
4. Lantze funtzionala: “Ereduaren etengabeko eguneratzea da, kulturak, teknikak eta giza irudimenak eta emozioek sortzen dituzten beharizan berriei erantzuteko” (Haugen, 1983, in Larrinaga, 2019: 32).

Haugenen teoria garatuz, Hornbergerrek (2007, in Larrinaga, 2019) eredu integratzailea osatu zuen, hiru plangintza mota bereiziz:

1. Estatus-plangintza, gizartean zentratutako ahaleginei dagokiena.
2. Corpus-plangintza, hizkuntzan zentratutako ahaleginei dagokiena.
3. Jabekuntza-plangintza, hiztunarengan zentratutako ahaleginei dagokiena.

Eredu integratzailean, berritasun nagusia estatus-plangintza eta jabekuntza-plangintzaren bereizketa da. Horrela, “estatus-plangintzaren arlokotzat jotzen dira hizkuntza gutxitu baten iraupenerako nahitaezkoak diren faktore sozial, politiko eta ekonomikoekin loturiko ekimen eta jarduerak”; eta jabekuntza-plangintzaren arlokoak dira, aldiz, “hiztunak gehitzera zuzendutako ekimen eta jarduerak, ezinbestekoak direnak hizkuntza gutxitu baten iraupenerako” (Larrinaga, 2019: 33).

Haugenen teoria eta Hornbergerren garapena alde batera utzirik, Fishmanen (2001, in Larrinaga, 2019: 33) ekarpen teorikoa ere garrantzitsua da, guztiz planteamendu desberdina plazaratzen baitu. Izan ere, 1990eko hamarkadan Hornbergerrek bere eredu integratzailea plazaratu bazuen ere, hizkuntza-politikaren teoriarrien kezka iturri nagusia “garapen bidean zeuden herrien hizkuntza-arazoez gainera, galtzeko zorian zeuden hizkuntza gutxituak” ziren. Testuinguru horretan, Fishmanek bere gogoeta teorikoa hizkuntza-ordezkapenera zuzendu zuen.

Hizkuntza batek belaunaldiz belaunaldi irauteko itxaropen bakarra intimitatearen esparrua (familia, auzoa, komunitatea) berarentzat erreserbatzea da. Ordezkapen-arriskuan dagoen hizkuntzaren iraupena ziurtatzeko, komunitate gutxitua gainerako gizartetik banatu beharko litzateke etnokulturalki, eta banaketa horren bertutez, hizkuntza propioa funtzio etnokultural jakin batzuetarako (barne-harremanetarako) erabili beharko litzateke, eta beste hizkuntza(k), beste funtzio batzuetarako (kanpo-harremanetarako), alegia, diglosia ezarri beharko litzateke. Komunitate gutxitua etnokulturalki banatu eta gune jakin batean bilduz gero, espazio fisiko bereizi bat sor daiteke, “arnasgunea”, non hizkuntza gutxituak arazorik gabe bete baititzake barne-harremanetako funtzioak (Fishman, 1991, in Larrinaga, 2019: 34).

3. 2. 4. Hizkuntza-politika hedabideekiko

Hizkuntza-politikaren gaineko teoria orokorra aztertu ostean, ezinbestekoa zaigu ikus-entzunezko hedabideek hizkuntza-politikaren baitan jokatzeko duten rola gaineko teorizazioari erreparatzea. Izan ere, teorizazio horri esker oinarri are sendoago bat izango dugu, hedabideekiko hizkuntza-politika aztertzerako orduan Euskal Autonomia Erkidegoan.

“Alderdi teorikoari dagokionez, hedabideak berealdiko normalizazio-tresnatzat ez hartzeko jarreraren jatorria 1950eko hamarkadan dago, gizarte komunikazioaren arloan egiten hasi ziren ikerketek erabat aldatu baitzuten hedabideen eraginari buruzko ikuspegia” (Pooley, 2006, in Larrinaga, 2019: 35). Ikerketa horien arabera, hedabideek gaitasun txikia

zuten pertsonen jokabideetan eragiteko, eta ondorioz, baita gizatalde baten jokabide eta ohitura linguistikoetan eragiteko ere (Larrinaga, 2019).

Hala ere, 1950eko hamarkadatik aurrera hedabideen normalizazio-baliagarritasunari buruzko ideiak eboluzionatuz joan ziren, eta eboluzio hori hiru alditan bereizten da: dohaintza aldia, zerbitzu aldia eta performantzia aldia (Pietikäinen & Kelly-Holmes, 2011, in Larrinaga, 2019).

1. Dohaintza aldia: hizkuntza gutxituak hedabideetan lehen aldiz azaldu ziren tarte nahiko laburretan, hizkuntza hegemoniko baten programazioaren baitan. Helburua komunitatea ezagutaraztea eta identitatea azpimarratzea zen, eta Estatuak egiten zieten dohaintza hori hizkuntza gutxitu batzuei hedabide publikoetan. Estatus-plangintzaren parte dira lehen agerpenak (Larrinaga, 2019).
2. Zerbitzu aldia: “komunitate gutxituak euren telebistak eta irratiak eratzen hasi zirenean, aurrerapauso bat egin zen hizkuntza gutxituen hedabide-politika eta -praktikan, hizkuntzari tarte bat eskaintzetik hiztunei zerbitzua eskaintzera”. Hedabide horiek corpus-plangintza burutzeko balio zuten, guztizkotasun funtzionala lortzea helburu, hau da, bizitzako esparru denak norbere hizkuntzan bizitzeko aukera izatea. “Horretarako beharrezkoa da beraien hizkuntzaren komunikazio-esparruan guztizkotasun instituzionalaren baldintza betetzea, hau da, mota guztietako hedabideak eta plataformak aurkitu ahal izatea hizkuntza-komunitateari egiten zaion eskaintzan, ordezkatzeko estrategiara jo gabe” (Larrinaga, 2019: 36-37). Eta horrekin loturik, eztabaida handia dago hizkuntza gutxituko hedabideen hizkuntza-praktiken inguruan, eta horrela laburbiltzen du Jonesek (2013, in Larrinaga, 2019: 39):
 - a. Elebitasunaren kudeaketa: hiztun eta gizarte-eragile batzuek nahiago dituzte emanaldi elebakarrak; beste batzuek gizarteko hizkuntza biei onartzen diete tokia emanaldietan.
 - b. Emanaldien hartzaille potentziala: batzuen ustez, hizkuntza gutxituaren hiztunak bakarrik izan behar dira; beste batzuen ustez, aldiz, hiztun ez direnak ere bai.
 - c. Emanaldietako hizkuntzaren estiloa: batzuek formala hobesten dute; beste batzuek, kolokiala.
 - d. Emanaldietako hizkuntzaren kalitatea: batzuek zuzena baino ez dute onartzen; beste batzuek ez dituzte akatsak gaitzesten.
 - e. Emanaldietako hizkuntzaren maila: batzuentzat, konplexutasuna saihestu behar da; beste batzuentzat, pobretasuna eta murriztasuna.
 - f. Emanaldietako hizkuntza-eredua: batzuen ustez, estandarrari bakarrik egin behar zaio tokia; beste batzuentzat, dialektoei ere bai.
 - g. Testuen jatorria: batzuek mugatu egingo lituzkete itzulpenak; beste batzuek, libre utzi.

h. Enpresako lan hizkuntza: batzuen ustez, emanaldietakoa izan beharko litzateke; beste batzuen ustez, ez nahitaez (Jones, 2013, in Larrinaga, 2019: 36).

3. Performantzia aldia: globalizazioaren baitan hizkuntza gutxituko ikus-entzunezko eskaintzan dauden hornitzaile berriek duten kezka nagusia da eurek eskaintzen dituzten produktuak kontsumitzeko eskuragarri egotea edozein leku eta unetan (Larrinaga, 2019).

Hedabideek hizkuntzengan daukaten eraginari dagokionean, berriz, “iritzi orokorra da hedabideetan agertzeak eragin positiboa duela hiztunen zein gainerako ikusleen hizkuntza-jarreretan, alegia, hedabideek funtzio bat dutela estatus-plangintzan” (Larrinaga, 2019: 40). Strubellek (2001, in Larrinaga, 2019) hizkuntza jarreretan eragina duten bi faktore mota bereizten ditu: pragmatikoak eta identitarioak.

1. Faktore pragmatikoak: hedabideek jarduera ekonomiko batekin erlazionatu dezakete hizkuntza gutxitua, baita erabilera-eremu espezializatu batzuekin ere (Cotter, 1999, in Larrinaga, 2019).
2. Faktore identitarioak: “hedabideek komunitate sentimendua piztu dezakete erabiltzaileen artean, eta diskurtsoa komunitate barruan sortzen lagun dezakete” (Strubell, 2001, in Larrinaga, 2019: 41).

Bestalde, hedabideek hizkuntza estandarra aukeratzen dute, gizarteak onartutakoa delako, eta herritarrei hizkera hori ezagutarazteaz gain, prestigioa ematen diote. Beste hizkuntza-aldaera batzuk (dialektoak, adibidez) publiko zabal bati ezagutarazteko ere balio dute hedabideek (Larrinaga, 2019).

Aldaketa soziolinguistikoaren sustapenean eta zabalkundean hedabideak baliabide ahaltsoak dira. Izan ere, hedabideek (telebistak batik bat) ikuslearen begien aurrean jartzen dute hizkuntza-aniztasuna, aurrez aurreko hizkuntza-harremanetan ezinezkoa den neurrian, eta,aldi berean, ugaritasun horren berri ematearekin batera, azpikoz gora jartzen dituzte hizkuntza-elementu bakoitzarekin lotzen ziren estereotipo soziologikoak (Larrinaga, 2019: 45).

3. 3. EAEko hizkuntza-politika 1979tik gaur arte

1980ko hamarkadara arte, euskararen normalizazioaz gizarte zibila arduratu zen. Horren adibide dira frankismoaren azken urteetan gauzatutako ikastolen sorrera, helduen alfabetatzea, euskararen batasuna edota zenbait hedabideren kaleratzea. Hala ere, Eusko

Jaurilaritza martxan jartzeak lege babesaren eman zion euskarari: ezinbestekoa hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko (Larrinaga, 2018). Lege babes horren azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan aztertuko da, hori baita ikerketa-eremua.

Lege babes horren oinarria 1978ko Espainiako Konstituzioan eta 1979ko Gernikako Autonomia Estatutuan aurki dezakegu. Hala dio 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua:

“3. artikulua:

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan beraien Estatutoei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.” (Espainiako Konstituzioa, 1978: 3. artikulua).

Espainiako Konstituzioko 3. artikuluari erreparaturik, ikus dezakegu gaztelania ez ziren gainerako hizkuntzak legezkoak zirela Espainiako Estatuan, eta ofizialtasuna ezartzeko aukera ematen zirela Autonomia Estatutuei. Nahiz eta gaztelania gailendu juridikoki gainerako hizkuntza guztiei, hizkuntzen aniztasuna aberastasun kultural bezala jotzea aurrerapauso handia izan zen Espainiako Estatuaren historian, eta euskararen ofizialtasunari ateak ireki zizkion. Ate hori irekitzeko giltza Gernikako 1979ko Autonomia Estatutuak eman zuen, eta hala dio bere 6. artikulua:

“6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herriaren gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beraien ofizialtasuna erregulatuz, eta beraien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.
3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.
5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudenean Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei

horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultza dadin.” (Gernikako Estatutua, 1979: 6. artikulua).

6. artikulua horretan ikus daiteke euskararen gaineko estatus- eta corpus-plangintzaren gaineko oinarri juridikoak ezarri zirela, handik aurrera Eusko Jaurlaritzak garatu beharrekoak. Izan ere, euskararen ofizialtasuna arautzearekin batera, Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politika garatzeko eskumena jaso zuen, elebitasuna bermatzeko helburuarekin. Hizkuntza-eskubideak ere jasotzen ditu Estatutuak, debekatu egiten baitu hizkuntzaren ondoriozko diskriminazioa, eta corpus-plangintzaren gaineko eskumena Euskaltzaindiari esleitzen dio.

Gainera, hedabideekiko hizkuntza-politikarentzako artikulua garrantzitsu bat ere badauka Gernikako Estatutuak, 19.ena, bertan EITBren sorrerarako oinarria eta lege babesa ezartzen direlako. Hala dio: “Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak” (Gernikako Estatutua, 1979: 19. artikulua).

Hala ere, hori hasiera baino ez zen, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika arautzeko eta juridikoki babesteko testu nagusia handik hiru urtera etorri baitzen: Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea. Euskararen normalizazioan mugarri izan zen legeak “euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa dela eta euskaraz aritzeko oinarrizko eskubidea aitortu zituen”, eta instituzioengana jo zuen zuzenean, beraien funtzioak eta betebeharrak ezarriz. “Hala, hizkuntza-politika sustatzaileak garatzeko bidea zabaldu zuen; hau da, funtsezko oinarria ezarri zuen gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko erabakiak taxutzeko” (Larrinaga, 2018: 127). Hizkuntza-eskubideei, beraz, garrantzi berezia eman die testuak. Hala dio oinarrizko legearen lehen tituluak:

“LEHEN TITULUA

KAPITULU BAKARRA

Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean

5. artikulua.

1.- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2.- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.

b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.

c) Aldizkariak eta irrati-telebistetak eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3.- Herri-aginteez eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.” (Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea, 1982: 5. artikulua).

Lege hori oso garrantzitsua izan da euskararen biziberritzea bermatzerako orduan. Hala ere, lege babesa eta hizkuntza-politika egoki bat ez dira nahikoa: hizkuntzak herritarren aldeko jarrerak eta hizkuntza-portaerak behar ditu aurrera egiteko (Larrinaga, 2018).

Behin Legea onartuta, Eusko Jaurlaritzak lege horrek zehazten zuen hizkuntza-politika inplementatzeari ekin zion. “Orduetik izandako gobernuek hainbat arau erakunde, plan eta baliabide eratu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen gaitasunean, erabileran eta estatusen eragiteko” (Larrinaga, 2018: 128). Jarraian, aipagarrienak azalduko dira kronologikoki.

1982an Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea indarrean jartzearekin batera, bi erakunde garrantzitsu sortu ziren: Euskararen Aholku Batzordea eta Euskal Irrati Telebista (EITB). Euskararen Aholku Batzordea “hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertze, bideratzeko eta koordinatzeko harreman-organoa da”. Eusko Legebiltzarra, HABE, EITB, IVAP, foru-aldundiak, EUDEL, Euskaltzaindia... bezalako erakundeetako ordezkariak eta hainbat adituk osatzen dute (Larrinaga, 2018: 128). EITB, berriz, “euskal kulturaren, eta bereziki euskararen sustapen eta zabalkunderako tresna dela aldarrikatzen du bere sorrerako legeak” (maiatzaren 20ko 5/1982 Legea, in Larrinaga, 2018: 128).

1983an hizkuntza-politika eskoletara iritsi zen. Izan ere, EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko dekretuak (uztailaren 11ko 138/1983), besteak beste, irakaskuntzako A, B eta D ereduak arautu zituen. Urte berean, beste hiru erakunde sortu zituzten: Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) eta Hizkuntza

Politikarako Idazkaritza Nagusia. HABEren xedea helduen alfabetatze-euskalduntzea da, IVAPek euskara administrazioan txertatzea du helburu, eta “Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organo gorena bezala sortu zen, eta 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bilakatuko da” (Larrinaga, 2018: 128-129).

1980ko hamarkada amaieratik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez hainbat ikerketa soziolinguistiko ere burutu dituzte, hizkuntza-politikaren norabidea zehazten lagundu dutenak:

1989ko Mapa Soziolinguistikoa, zentsuak eskainitako ustiaketa eginez, 1986tik bost urtero burutzen den EAEko azterketa da, azkena 2011koa. Mapak lau aldagai aztertzen ditu: hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, biztanleriaren lehen hizkuntza, BILA indizea (hizkuntza-gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko gurutzaketa) eta etxeko erabilera. Inkesta Soziolinguistikoa, berriz, EAEko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko euskararen bilakaera sozialari buruzko azterketa sakona da. 1991tik aurrera, bost urtero egiten da, eta azkena 2016koa da (Larrinaga, 2018: 129-130).

Administrazio publikoetako hizkuntza-normalizazioa arautzeari dagokionean, berriz, aipatzekoa da Euskal Funtzio Publikoaren Legea (6/1989, uztailaren 6koa). Izan ere, lege horrek bidea ireki zuen administrazioa euskalduntzeko (Larrinaga, 2018).

1990ko hamarkada hastearekin batera, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen euskararen normalizazioan emandako pausoak baloratzeko ordua zela, eta horretarako, bi inkesta soziolinguistiko zuzendu zituen (1991ean eta 1996an). Gainera, aurrera begira jarri zen, eta Euskararen Aholku Batzordeari plan estrategiko bat egiteko eginkizuna eman zion, aurretik egindakoa ebaluatzeko ere balioko zuena. Plan estrategiko hori Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) da, eta 1998an onartu zen, sei urterako (Larrinaga, 2019).

“Ordura arteko normalizazio-plangintza ebaluatzeko, EABk analisi kualitatibo bat egin zuen normalizazioak ukitzen dituen esparru bakoitzean ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak zehaztuz”. EBPNn aurreko hizkuntza-politikak euskararen transmisioan, erabileran eta elikaduran izandako eragina aztertu zuten, eta ildo estrategiko bakoitza hainbat esparruk osatzen zuten. Euskararen transmisioaren baitan hezkuntza, helduen alfabetatze-euskalduntzea, familia bidezko jarraipena eta corpusa eta hizkuntza-kalitatea daude. Euskararen erabileraren baitan arlo sozioekonomikoa, IKTak, administrazio publikoa, aisialdia, kirola eta erlijioa daude. Eta euskararen elikaduraren baitan, aldiz, liburugintza, kultur ekoizpenak, irratia, telebista, prentsa eta publizitatea daude (Larrinaga, 2019: 83).

“EBPNn jasota dagoen hizkuntza-politika EAEn ordura arte aurrera eraman zenaren berrespena da”. Izan ere, markatzen duen helburua euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea da, herritarren, gizarte zibilaren eta instituzioen elkarlanaren bidez. Hori betetzeko lau zutabetan oinarritzen du hizkuntza-politika: printzipio demokratikoa (herritarren gehiengoaren nahi eta beharren arabera izango da hizkuntza-politika); egoerarik ahulenean dagoen hizkuntzaren aldeko ekintza positiboa (euskararen eta gazteleraren artean oreka egon dadin); hizkuntza propioaren aitorpena; eta instituzioen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak. “Lau zutabe horiek EAeko hizkuntza-politikari 1980ko hamarkadatik eusten dioten zutabe berak dira” (Larrinaga, 2019: 83-84).

XXI. mendean sartzean, Justiziarik, Osakidetzari eta hizkuntza-eskubideei erreparatu zien Eusko Jaurlaritzak. Justizia Administrazioiko hizkuntzaren normalizazioari buruzko dekretua (2001) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017) garatu zuen. “Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko dekretuak (2003) bi urrats aurreratu zituen: erakundearen euskararen plan orokorra onartzea (2005) eta ondoren Osakidetza osatzen duten zerbitzu-erakunde guztiek planaren egokitzapena egin eta gauzatzea (2006)” (Larrinaga, 2018: 130). Bestalde, Elebide ere sortu zuten: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua (2008). Bere funtzioak dira “hizkuntza eskubideen gaineko sentikortasuna sustatzea, eskatzen duten herritarrei horien babesari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, eta lankidetzak eskaintzea eragindako sail, instituzio eta erakundeei, aipatutako eskubideak bete daitezzen” (150/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, in Larrinaga, 2018: 130).

EBPN euskararen normalizaziorako urrats garrantzitsua izan bazen ere, ikusi zuten XX. mendeko euskara normalizatzeko plangintzak eraginkorrak izan zirela ezagutza hedatzeko, baina ez horren eraginkorrak erabilera sustatzeko. Beraz, XXI. mendeko hizkuntza-politikak euskararen erabilera indartzeari garrantzia eman behar zion (Larrinaga, 2019). Hala definitu zuen XXI. mendeko hizkuntza-politikak izan behar zuena Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde zen Josune Ariztondok 1996an:

“Politika berriaren beharra adierazten duten sintoma edo ezaugarrietako batzuk aipatzearen, esan daiteke gutariko gehienak bat gatzela euskararen erronkarik nagusienetakoak belaunaldien arteko jarraipena ziurtatzean eta erabilera indartzean daudela, edo/eta erronka horiei erantzuteak jokabide aldaketa eskatzen diela, bai erakundeei eta bai herritarrei” (Ariztondo, 1996: 31-32).

Horri erantzunez landu zuten *Euskara 21. Itun Berritu Baterantz* (2009), XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak ezartzen zituen txostena. “Adostasunean,

pertsuasioan, eta tinkotasun demokratikoan oinarrituriko hizkuntza-politika progresibo baten premia azpimarratu zuen” (Larrinaga, 2018: 131), eta lehentasunezko hamalau ildo ezarri zituzten. Ondorengoak dira:

- “1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
12. Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian

baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.

14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.” (Eusko Jaurlaritza, 2009: 52-53).

Euskara 21. Itun berri baterantz ekimeneko oinarriak praktikan jartzeko eta EBPN gaurkotzeko, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) plazaratu zuten 2012/2013an. 2022ra arte aplikatzea aurreikusita dago. “ESEPEk 99 neurri, 353 ekintza eta 140 adierazle zehaztu ditu, hamasei lan-esparrutan banatuta” (Larrinaga, 2018: 131).

Aurretik aipatutako bi dokumentuetan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 legegaldian Euskararen Agenda Estrategikoa landu zuen. Euskara biziberritzeari begira, euskararen ezagutza, erabilera eta kalitatea lehentasunezko arlotzat identifikatu zituen. Legegintzaldi berean, EITBko Euskararen Erabilerarako Plana ere garatu zuten (Larrinaga, 2018).

Bi ildo estrategikotan dago egituratuta: lehenak “EITBk euskaraz funtziona dezake” dio eta bigarrenak “Euskal Irrati Telebistak euskaldun irudia zabaltzen du kanpoan”. Bi ildo horietako bakoitzarentzat hainbat helburu eta horiek gauzatzeko ekintzak zehazten dira (Larrinaga, 2018: 131).

Bestalde, aipatzekoa da Ertzaintzan euskararen erabilera normalizatzeko bi plan eginak dituztela jada.

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikarekin amaitzeko, ezinbestekoa da Euskaraldia aipatzea. Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaleen Topagunearekin batera 2018an antolatu zuen ariketa sozial masibo bat da, hizkuntza-ohiturak aldatzeko. Hamaika egunez, herritar guztiak euskaraz bizitzera bultzatu zituzten, bai *ahobizi* (euskaraz hitz egiten duena) bai *belarriprest* (euskaraz entzuteko prest dagoena, nahiz eta ez mintzatu) bezala. 2020an berriro burutuko dute.

1982tik Eusko Jaurlaritzak esparru guztietara zabaldu duela euskara sustatzeko ahalegina. Orduetik, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu diren hizkuntza-politikek lau zutabe nagusi izan dituzte beti abiapuntu eta ipar-orratz: lehena, normalizazioa eta sustapena; bigarrena, herritarren borondatearen kontra ezer ez egitea; hirugarrena, gizarte elebiduna indartzeko ahalegina; eta laugarrena, gizarte-kohesioa. Azken batean, 1982an gehiengo parlamentarioaren oniritzia jaso zuen lege-testuan jasotako zutabeak dira (Larrinaga, 2018: 131-132).

3. 4. EAEko hizkuntza-politika hedabideekiko 1979tik gaur arte

1979an Gernikako Estatutua indarrean sartzean EAEko autogobernua martxan jarri zenetik, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak euskararen normalizazioa izan du helburu nagusi, eta asmo hori betetzeko bidean mugarrria izan zen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (1982), baita atzetik etorri ziren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1998) eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2012) ere. Hirurek daukate hedabideetan zentratutako atal bat (Larrinaga, 2018). Izan ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak ondorengoa dio hizkuntzaren alorrean herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak arautzen dituen atalean: “Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea” (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea, 1982: 1. titulua, 5. artikulua, c.). Hala ere, hirugarren kapituluaren arautzen du hedabideekiko aplikatu behar den hizkuntza-politika. Hala dio:

“HIRUGARREN KAPITULUA: Euskararen erabilera hedabideetan

22. artikulua. Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea. Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.

23. artikulua. Jaurlaritzak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze aldera, Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du.

24. artikulua. Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati Telebistaren emanaldi-zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan.

25. artikulua. Jaurlaritzak, 22. artikuluan aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeko, euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko ditu eta, nolana ere, honako hauetan hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuz:

-irratian,

-egunkari eta aldizkarietan,

-zineman,

-antzerki eta ikuskizunetan,

-irudiaren eta soinuaren grabazioetan.

Horretarako, gaiok ukitu eta arautu ditzaten legetan titulu apropos bana garatuko da.” (Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea).

Larrinagaren arabera (2018: 145), testu horretan bildutakoa zein neurritan bete den jakitea ez da erraza, baina gauza bat argi dagoela dio: 1982tik 2013ra euskarak hedabideetan duen egoerak hobera egin du bai kuantitatiboki bai kualitatiboki, gizarte zibilaren eta instituzioen lanari esker. “Azken hauen jardunari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako dirulaguntzak lirateke hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko tresnarik aipagarrienetakoak”.

Hamarkada bat geroago burutuko duten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) euskararen indarguneak eta ahuleziak aztertzen ditu, eta horren barruan, hedabideen indarguneak eta ahuleziak ere azaltzen ditu. Indarguneei dagokienez, “euskarazko prentsaren merkatuak izandako hazkundea azpimarratzen da, eta herri-aldizkarien arrakasta nabarmentzen da”. Bestalde, *Euskaldunon Egunkariak* eta *Argia* aldizkariak auto-finantzatzeko duten gaitasuna eta “euskal kulturari ematen dioten garrantzia” azpimarratzen dira (Larrinaga, 2018: 145-146). Ahuleziei dagokienean, berriz, hala dio:

“Urria eta baliabide urrikoa, irabazirik eta elkarren lehiarik gabea da euskarazko prentsa, hizkuntza horretan, lehiakiderik ez izateak erdipurdikierarako duen arrisku nabarmenarekin. Oso zaila zaio publizitatea eskuratzea. Bestalde, alderdi politikoek eta Administrazioak berak ez diote garrantzi handirik ematen. Euskarazko prentsak ez du irrtati-euskaldungoa irabazi eta erakarri. Herri-aldizkariak bakarrik iritsi dira irakurleria zabal batengana.

Doi-doi bizi den euskarazko prentsak erdarazko ugariagoak, hobeak eta indartsuagoak ditu lehiakide. Gazteen merkatua ari da galtzen horrela, eskolak euskalduntzen duen gaztea prentsak erdalduntzen duelarik. Izan ere, hutsaren hurrengoa da erdal prentsak euskarari ematen dion lekua. Euskarazko prentsa hori erdarazkoaren mendekoa da, gainera. Iturriak erdaldunak direlako, albisteak erdaraz sortzen direlako eta euskarazko agentziarik ez dagoelako.

Era guztietako prentsa-moldeak kontuan hartuko lituzkeen sistema falta da, baliabideak erabiltzeko eta helburuak lortzeko orduan. Izan ere, begi-bistakoak dira Euskaldunon Egunkariaren eta Argiaren gabeziak erdarazko argitalpenen ondoan: orrialde-kopurua, kolorearen erabilera, grafismoak eta infografismoak duten lekua, albiste lokalen tratamendua eta tokian tokiko edizioak.

Lan egiteko baldintzak hobetzen ez badira, bestalde, orain bere burua trebatzen ari den belaunaldi honi ez zaio bizimodua kazetaritzatik ateratzea erraza izango, batez ere bizitzako beste zenbait eginkizuni erantzun behar badio”. (EBPN, 1998).

EBPNk hiru helburu estrategiko markatzen ditu etorkizunerako: euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta euskararen elikadura. Azken hori dagokie hedabideei. Izan ere, haien arabera, hedabideek balio lezakete euskaldun berrien hizkuntza-maila sendotzeko, “euskal kulturaren aberastasunaz jabetzeko eta harreman-sare euskaldunak zabaltzen laguntzeko” (Larrinaga, 2018: 147). Gauzak horrela, ondorengo proposamena egiten du:

“Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa trataera eman behar dio.

Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.” (EBPN, 1998: 58-59).

Proposamenak hedabideei egiten zaizkie, batetik; eta administrazioari, bestetik (Larrinaga, 2018).

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garai berrietara egokitzeko asmoarekin landu zuten Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), 2012-2022 aldirako hizkuntza-politika zehaztuz. Hedabideei euskararen elikadura dagokie ekintza plan honetan ere, eta funtsezkotzat jotzen ditu euskararen normalizazioa lortzeko. Gainera, ordura arteko eredia garai berrietara egokitzeko beharra azpimarratzen du, eta zazpi ekintza proposatzen ditu hedabideen esparruaren baitan (Larrinaga, 2018):

1. Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako languntzen irizpideak adostu eta finkatu. Dirulaguntzen gaiaren garrantzi handia azpimarratzen da.
2. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartu. Aurrekoarekin erabat lotuta dago, eta honi garrantzi ertain-handia ematen zaio. Hamar neurri aipatzen dira guztira, izaeraren arabera hiru multzotan bildu daitezkeenak:
 - a. Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzan eta erakundeen arteko koordinazioan oinarrituta, euskarazko hedabideen ildo estrategikoak finkatu eta horiek garatzeko politikak sustatu.
 - b. Euskarazko hedabideen audientzia aztertzeko sistema bat eta euskarazko hedabideen behatokia sortu eta garatu.
 - c. Azterketak egin. Euskarazko hedabideen erabiltzaileen eta publiko potentzialaren komunikazio-beharrak ezagutu euskararen eskualde desberdinak kontuan hartuz, hizkuntza

gutxiak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak eta praktika onak ezagutu, erdal hedabideetan euskarazko edukiek duten harrera neurtu eta kualitatiboki aztertu...

3. Hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunei buruzko hausnarketa bideratu. Garrantzi handiko ekintza kontsideratzen da eta hausnarketaren ondorioak praktikara eraman behar direla esaten da.
4. Euskarazko hedabideen garapen industrialia eta teknologikoa bultzatu. Garrantzi handikotzat jotzen den ekintza hau burutzeko, lehenik eta behin, euskarazko hedabideen prentsa-dimentsioa aintzat hartzea proposatzen da. Horrekin batera, prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskaintzea, herritarren inplikazioa bultzatzen dituzten komunikazio proiektu globalak edo multimedia saritzea eta aplikazio teknologiko berrien garapenean laguntzea. Edukiari erreparatuta, agerikoa da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez ezik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ere parte hartu beharko dutela eragile moduan.
5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatu. Garrantzi ertaineko ekintza kontsideratzen da, eta berau lortzeko, kontsumoa sustatzeko eta prestigiatzeko kanpainak antolatzea, hedabideen eta gizartearen arteko lotura sustatzea eta hedabideen arteko elkarlan egitasmoak bultzatzea proposatzen da.
6. Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotzea. Garrantzi ertain-handia ematen diote
7. Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatu. Garrantzi handiko ekintza dela esaten da, eta Unibertsitatea ageri da eragile moduan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera (Larrinaga, 2018: 149-151).

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren moduan, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak ekintza bakoitza zein neurritan betetzen den neurtzeko adierazleak zehazten ditu, eta hedabideen kasuan, bederatzi dira ere (Larrinaga, 2018):

1. Hedabideei zuzendutako dirulaguntzen bilakaera erakundearen arabera.
2. Euskarazko hedabideen bilakaera, hedabide-motaren arabera.
3. Euskarazko hedabideen kontsumoa.
4. Euskararen presentziaren bilakaera erdal hedabideetan.
5. EITBren eta gainerako hedabide publikoen ekoizpena, hizkuntzaren eta programa-motaren arabera.
6. Euskarazko hedabideek garapen teknologikorako jasotako dirulaguntzen bilakaera.
7. Euskarazko hedabideek garapen teknologikorako dirulaguntzetara aurkeztutako proiektuen bilakaera.
8. Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko kanpainak, eremuaren arabera.
9. Erdal hedabideetako euskarazko edukien bilakaera (ESEP, 2012, in Larrinaga, 2018: 152).

Hizkuntza-politikaren ebaluazioari dagokionean, lehen txosten bat argitaratuta dago jada: *“ESEPen neurketa. Euskararen diagnostikoa”*. Datuak gutxi eta zaharkituak dira, eta bi adierazleri buruzko informazioa baino ez du biltzen: euskarazko hedabideen bilakaerarena (hedabide-motaren arabera), eta hedabideen kontsumoari buruzkoa. Gainontzeko adierazleei buruzko informazio erabilgarririk ez dago era sistematikoan jasota. Hala ere, txosten honek ekarpen handia egiten du, 1982ko Euskararen Legetik lehen aldiz burutzen

delako adierazleetan oinarritutako neurketa eta ebaluazioa, eta ondorengo txostenentzat erreferentzia izango da (Larrinaga, 2018).

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak egindako “Euskararen Agenda Estrategikoa 2013–2016”-k (Eusko Jaurlaritza, 2013) dioenez, euskarazko hedabideei euskararen elikadura dagokie, beste zenbait arloekin batera, hala nola kulturgintza, publizitatea eta abar. Halakoak, euskararen transmisiorako eta erabilerarako egiten diren ahaleginen emaitzak suspertzeko eta areagotzeko garrantzitsuak direla aitortzen da. Honela definitzen dute hedabideen garrantzia:

“Euskarazko hedabideen sektore sendo bat izatea giltzarria da euskaren erabilera bultzatzeko eta hizkuntzari berari prestigioa emateko, hau da, euskarazko kontsumoa sustatzeko nahiz sensibilizazio eta motibazioa eragiteko. Gaur egun, ordea, unitate txiki askoz osaturiko multzoa dela esan genezake, nahiz eta egituratzeko lanetan gogoz diharduen. Horregatik, sektorea indartu, egituratu eta sustatzeko politikari jarraipena emango diogu, eta irakurleen eta ikus-entzuleen gogo-apetak asetzeko ahaleginak sustatuko ditugu” (Eusko Jaurlaritza, 2013: 25).

4. Hipotesiak

Marko teorikoa osatu ostean, analisiaren muina osatuko duten hainbat hipotesi planteatu ditut:

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak euskararen normalizazioa bilatzen du Euskal Autonomia Erkidego mailan.
- Euskarazko hedabideak sortzea eta garatzea euskararen normalizaziorako gako kontsideratzen ditu Eusko Jaurlaritzak.
- EITBren helburuetako bat, teorian behintzat, euskararen normalizazioa erdiestea da.
- Herri ekimenetik sorturiko euskarazko hedabide pribatuengan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika dirulaguntzak ematera mugatu da.
- Hedabideen arloan Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren euskalduntzean eragin txikia izan du.

Hipotesi horiek ikerketa abiatzeko ezinbestekoak dira. Izan ere, analisitik hipotesi horien berrespena edo faltsutzea ondorioztatuko dira. Analisitik ateratako ondorioek

hipotesiak baieztatzen badituzte, ikerketa lan honek barne koherentzia izango du, eta ekarpena egingo dio zientziari.

5. Metodologia

Juaristiren (2003, 142. or.) arabera, “kanpo portaeraren bitartez ezin dugu gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahi hori behar bezala eta sakontasunean ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea da”. Horregatik, ikerketa honetan subjektuaren ikuskera gakoa izango da, eta errealitatearen dimentsio sinbolikoa edo ezkutukoa aztertzen ahalegindu naiz, hots, subjektuaren diskurtsoaren mamia azaleratzen. Beraz, ikerketaren objektua diskurtsoak dira, eta horiek aztertzeko metodo kualitatiboaz edo estrukturalaz baliatuko naiz.

Ikuspegi kualitatiboak zenbakizko neurketarik gabeko datu-bilketa erabiltzen du interpretazio-prozesuan ikerketa galderak aurkitzeko edo fintzeko. Ikerketa kualitatiboaren baitan, ikertzailea mundu soziala aztertzen hasten da eta prozesu honetan gertatzen ari denarekin koherentea den teoria bat garatzen du, hau da, ikerketa kualitatiboa indukzioan oinarritzen da: lehenik esploratu eta deskribatu egiten da, gero ikuspegi teorikoak sortzeko. Partikularretik orokorrera doaz (Hernández Sampieri et al., 2006).

Ikuspegi hori estandarizatu gabeko datuak biltzeko metodoetan oinarritzen da, hau da, ez da neurketa numerikorik egiten, eta, beraz, analisia ez da estadistikoa. Datuen bilketa parte-hartzaileen ikuspegiak eta ikuspuntuak lortzean datza (haien emozioak, esperientziak, esanahiak eta beste alderdi subjektibo batzuk), eta gizabanakoen edota taldeen arteko interakzioak ere interesgarriak dira. Ikertzaileak gai orokorrak eta irekiak galdetzen ditu, idatzizko, ahozko eta ahozkoa ez den hizkuntzaren bidez adierazitako datuak biltzen ditu, baita bisualak ere. Horiek deskribatu eta azertu egiten ditu, eta ondorioz, ikerketa modu subjektiboan bideratzen du (Hernández Sampieri et al., 2006). Pattonek (1980, in Hernández Sampieri et al., 2006: 8) honela definitzen ditu datu kualitatiboak: “egoeren, gertaeren, pertsonen, interakzioen, behatutako jokabideen eta haien adierazpenen deskribapen xehatuak”.

Ikerketa prozesua malgua eta holistikoa da. Holistikoa da osotasuna hartzen duelako kontuan, bere zatien azterketara mugatu gabe. Malgutasuna dauka "errealitatea" parte-hartzaileek beren errealitateei buruz egindako interpretazioen bidez definitzen delako. Horrela, hainbat "errealitate" bateratzen dira, parte-hartzaileena, ikertzaileena eta aktore guztien interakzioaren bidez gertatzen dena behintzat. Gainera, errealitate horiek aldatu

egiten dira ikerketa prozesuak aurrera egin ahala. Errealitate horiek dira datu-iturriak (Hernández Sampieri, 2006).

Arestian azaldutakoaz gain, bi arrazoiengatik erabiliko dut metodo kualitatiboa ikerketa burutzeko: intentsiboa eta irekia delako. Batetik, gizarte ikerketa kualitatiboa sakontasunean oinarritzen da, ez zabaltasunean. Zentzu horretan, ulermena du helburu. Bestetik, ikerketa ireki bat ahalbidetzen du, landa lanaren diseinua alda daitekeelako, teknika desberdinetan solasaldia irekia delako, eta ikertzaileen interpretazio eta analisiak irekiak direlako. Bi kualitate horiek oso baliagarriak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan hedabideekiko inplementatu duten hizkuntza-politika aztertzeko 1979tik gaur egunera arte. Izan ere, ikerketaren helburuak betetzeko eta hipotesiak berresteko ala faltsutzeko, analisi sakon eta ireki bat egitea da egokiena, ahalik eta ondoen ulertzeko ikertu nahi dudana.

Horretarako erabiliko dudan teknika sakoneko elkarrizketa izango da. "Sakoneko elkarrizketa informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da, eta aztertzen diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko, eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du" (Juaristi, 2003: 140-141. orr.).

"Taylorrek eta Bogdanek honela definitzen dute sakoneko elkarrizketa: "Aurrez aurre, ikertzailearen eta informatzaileen arteko aurrez aurreko topaketa errepikatuak, informatzaileek beren bizitzei, esperientziei eta egoerei buruz dituzten ikuspegiak ulertzera bideratuak (Ruiz Olabuenaga & Ispizua, 1984, in Juaristi, 2003: 140); topaketa horietan, elkarrizketatzailea ikerketaren tresna da, eta ez, datuak biltzeko robot bat" (Ruiz Olabuenaga & Ispizua, 1989, in Juaristi, 2003: 140).

Subjektuak, kasu honetan, adituak izango dira. Ikergaia adituak diren 5 pertsonari egingo diet sakoneko elkarrizketa, eta euren ekarpenek osatuko dute analisiaren oinarria. Horrela, sakoneko elkarrizketak arazoan oinarriturikoak, fokatuak, zuzenduak eta erdi egituratuak izango dira. Arazoan oinarriturikoak izango dira ikergaia delako garrantzitsuena, ez gizabanakoaren interesa. Gaiari buruz hitz egingo dugula ziurtatzeko, "elkarrizketan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko dugun tresna" (Juaristi, 2003: 140. or.) izango da gidioa. Horren ondorioz, gidoi berdina erabiliko dut elkarrizketatu guztiekin, eta gai zehatz bat aztertuko dudanez (ikergaia) eta horri buruzko galderak egingo ditudanez, sakoneko elkarrizketa fokatuak egingo ditudala kontsideratu daiteke. Gainera, sakoneko elkarrizketak zuzenduak izango dira, elkarrizketagileak zuzenduko duelako ekimen guztia, baita galderen gai, ordenu eta agerpen eskema zehatza ere (Juaristi, 2003). Hala ere, elkarrizketa erdi egituratua izango da, hau da,

elkarrizketagileak galderen gaineko kontrola badu ere irekiak dira, hots, elkarrizketatuak askatasun osoa du nahi duena erantzuteko. Beraz, sakoneko elkarrizketa teknika egokia da ikergaia ondo sakontzeko, adituei askatasuna eta malgutasuna ematen dielako zeregin hori burutzerako orduan.

Esan bezala, subjektuak 5 aditu izango direnez, euren jakintza da interesgarriena, euren profil estrukturala baino gehiago. Hala ere, jakintza esparru desberdinetatik edaten dute aditu horiek: hizkuntza-politika, ikusentzunezko komunikazioa eta soziolinguistika, besteak beste. Elkarrizketatu guztiak ez dira adituak ikertu nahi ditudan esparru guztietan; horregatik, malgua izan naiz galderak egiterako orduan, eta batzuek ez diete galdera guztiei erantzun. Gehienak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira edo bertatik igaro dira, eta adinari dagokionean, nahiko aniztasuna dago: tesia egiten dabilen batetik jubilatutako ikerlari batera. Bestalde, 4 gizon eta emakume bat dira elkarrizketatu ditudanak, eta horrek agerian uzten du ezagutzaren alor horretan oraindik gehiago maskulino bat dagoela, eta asko dagoela egiteko oraindik ikerlari gizonetzko eta emakumezkoak parekatzeko bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.

Iñaki Iurrebaso, Elixabete Larrinaga, Iñaki Martínez de Luna, Beñat Garaio eta Xabier Erize dira elkarrizketatu ditudan adituak. Guztien izenak publiko egin ahal izan ditudan arren, analisisian ez dut zehaztuko plazaratuko diren ideiak eta aipuak norenak diren, elkarrizketatu gehienek nahia anonimotasun hori mantentzea izan da eta. Hala ere, elkarrizketa osoak eranskinetan daude eskuragarri (posta elektronikoz bidalitakoak adituek idatzi bezala mantendu dira), eta A, B, C, D eta E letrekin daude izendatuta. Izendapen horiek berak erabiliko dira analisisian elkarrizketatuen baten aipu literalak adierazteko, eta horrela, anonimotasuna mantenduko da.

Bestalde, Gradu Amaierako Lan honen landa lanean harrapatu nau bete-betean Covid-19aren pandemiak, eta horri aurre egiteko mundu mailan eta Espainiar Estatu mailan hartutako neurriek (konfinamendua, online klaseak...) guztiz baldintzatu dute metodologia eta teknika. Izan ere, sakoneko elkarrizketen aberastasuna aurrez aurreko interakzioan datza, ahozko eta ahozkoa ez den komunikazioan, eta elkarrizketen irekitasun eta malgutasunean. Baina egoera honen ondorioz, sakoneko elkarrizketak burutzeko bi aukera adostu genituen elkarrizketatuen, tutorearen eta nire artean: telefono bidezko elkarrizketa edo posta elektronikoko bidezkoa. Aditu bati telefonoz egin nion, eta gainerakoei gidoia posta elektronikoz bidali nien, eta bi aste epea izan zuten idatziz erantzunak bidaltzeko. Beraz, argi dago metodologiaren egokitzapenak ikerketa-lana baldintzatu egin duela, baina salbuespenezko egoeraren ondoriozko neurria izan da.

Hala ere, metodologia hau jarraituta lortuko dudan informazioa harilkatuz eta marko teorikoarekin loturak eginez osatuko dudan interpretazioa izango da ikerketa lan honen analisia. Bertatik eratorriko dira ondorio nagusiak, eta hipotesiak berresteko edo faltsutzeko gaitasuna izango dute. Hori izango da ikerketa lan honek zientziari egingo dion ekarpena.

6. Analisia

Analisia ikerlanaren muina da, bost adituen ekarpenen artean eta marko teorikoarekin jostuntza lana burutuko dudalako, nire analisi propioa plazaratuz eta, ondorioz, zientziari ekarpena eginez. Analisi hau bost zatitan banatuko da, lana egituratzen duten helburuen eta hipotesien arabera bost ataletan, hain zuzen:

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika.
2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko.
3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan.
4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan.
5. Eragina hizkuntza-ohituretan.

Beraz, analisisian Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika orokorra aztertuko dut lehenik eta behin, ondoren hedabideekiko buruturikoan zentratzeko. Hori aztertu eta gero, EITB eta herri ekimeneko hedabideak izango ditut hizpide. Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politikak EAeko herritarren hizkuntza-ohituretan izan duen eragina izango dut aztergai.

6. 1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

Gernikako Estatutua (1979) indarrean sartu zenetik gaur egunera arte Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman duen hizkuntza-politika aztertzeko, ezinbestekoa da lehenik eta behin hizkuntza-politika definitzea. Izan ere, politika publiko mota jakin horren definizio orokor eta teoriko batek oinarri finko bat eskaini diezaguke Eusko Jaurlaritzak zehazki aplikatuko duena ulertzeko.

Hizkuntza-politika hizkuntza-testuinguru batean eragiteko instituzio publikoek eta erakunde sozialek martxan jartzen dituzten jarduera, erabaki eta baliabide multzoa da. Definizioa xehetzean, hainbat elementu bereiz genitzake hizkuntza-politikaren baitan:

subjektua, objektua, subjektuaren eta objektuaren arteko harremana, eta guztiak hartzen duen forma.

Subjektua da hizkuntza-politika martxan jartzen duena, eta gainerako beste politika publikoekin gertatzen den bezala, aktore nagusiak instituzio publikoak eta gizarte eragileak dira. Politika publikoak inplementatzeko gaitasuna Estatuak dauka instituzio publikoen eta administrazio publikoaren bidez: Thoenig eta Menyren (1992, in Fernández, 1996) arabera, politika publikoa botere publikoa eta gobernu-autoritatea dituen autoritatearen jardura da. Hala ere, aipatzekoa da gizarte eragileak hizkuntza-politikako aktore izan daitezkeela, hizkuntza-testuinguru batean eragiteko daukaten gaitasunaren arabera. Hala ere, ikerlan honetan Eusko Jurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu moduan, izango da subjektua, euskalgintza (gizarte eragileen multzo moduan ulertuta) alde batera utzirik.

Hizkuntza-politikaren objektua hizkuntza-testuingurua da. Hizkuntza-testuinguruaren baitan aurkitzen dugu lurralde eremu jakin bateko biztanleriaren baitan erabiltzen diren hizkuntzak, hiztunak, hizkuntzen egoera soziala (ezagutza maila, erabilera maila, erabiltzeko aukerak, hizkuntzek duten prestigioa, hizkuntzekiko dauden motibazioa eta baloreak...), eta hizkuntzen ibilbidea. Ikerlan honetan Eusko Jurlaritzak denez subjektua, objektua halaberrez Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria izango da. Hala ere, Euskal Herria da “euskararen herria”, hau da, zazpi herrialdez (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) osaturiko nazioa hizkuntza-komunitate bat da, nahiz eta arrazoi politikoek ondorioz banaketak eta zatiketak jasan: bi estatu desberdinetan, hiru administrazio desberdinetan. Instituzioek buruturiko hizkuntza-politika aztertzeko, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoa hautatu dut objektu gisa.

Subjektuaren eta objektuaren arteko harremana aditz batek definitzen du: “eragin”. Instituzio publikoek hizkuntza-testuinguru batean eragiten dutenean, egoera eraldatzea bilatu dezake (hizkuntza biziberritzeko edo desagerrarazteko) edo izaera kontserbatzailea eduki dezake (uneko egoerari eustea). Gainera, planteamendua esplizitua izan daiteke (aldeko edo aurkako esku-hartzearen bidez), edo inplizitua (esku-hartzerik gabe, abian dagoen dinamika bere kasa joan dadin uzten). Politika publiko guztiek izan dezakete izaera esplizitua ala inplizitua: maila berean daude gobernuak egiten dutena eta egiten ez dutena (Dye, 1992, in Fernández, 1996), hau da, gobernuaren ekintza batek gizartearengan daukan inpaktua egiten ez duen horrek daukana bezainbestekoa da (Fernández, 1996). Bestalde, hizkuntza-politika berriazkoa eta bere baitakoa izan daiteke, C elkarrizketatuaren arabera:

“Euskalduntzea, euskaltegiak sortzea, eskola euskalduntzea, ETB1 eta abar hizkuntza-politikaren parte da, baina horren parte ere bada jaiotza-politika, migrazio-politika, edo politika industrialak, horrek hizkuntza-arloan ondorioak ditu, ondorio soziolinguistiko batzuk ditu. Adibidez,

Abiadura Handiko Trenak ondorio linguistiko argiak izango ditu: Madril gertuago badaukagu, horrek ondorio linguistiko batzuk ditu; ez onak euskararako. Hori dena ere bada hizkuntza-politika”.

Hizkuntza-politikak jarduera, baliabide eta erabaki forma hartzen du: parlamentuek edo gobernuek hartzen dituzte erabakiak, lege edo plangintza moduan plazaratzen dira eta administrazio publikoari dagokio inplementazioa. Inplementazioa “hautaturiko ereduak erakundeetan finkatzeko eta hiztunen artean zabaltzeko zeregina da. Ardurak gobernuek edo bestelako erakunderen batek hartzen du bere gain, eta eskola eta hedabideak izaten dira ohiko tresnak” (Haugen, 1983, in Larrinaga, 2019: 32). Lowiren (1964, in Fernández, 1996) tipologia kontuan hartzen badugu, hizkuntza-politika politika arautzailea da (berariazkoa eta esplizitua bada behintzat), koertzioa norbanakoarengan zuzenean ezartzen delako. Bestalde, plangintza desberdinei dagokienez, Estatua estatus-plangintzaz eta jabeak plangintzaz arduratzen da, eta corpus-plangintza normalean akademiaren esku geratzen da (Hornberger, 2007, in Larrinaga, 2019). Euskararen kasuan, esan liteke Euskaltzaindiari dagokiola corpus-plangintza, hau da, hizkuntzaren kodifikazioa eta lantze funtzionala.

Hizkuntza-politikaren definizio zabal bat eman ostean, Eusko Jurlaritzak 1979tik gaur egunera arte aplikatu duen hizkuntza-politika aztertze moduan gaude. Hala ere, hori egin baino lehen garrantzitsua da Eusko Jurlaritzak sortu zen garaian (1970eko hamarkadaren amaieran) zegoen markoari erreparatzea. Marko juridiko-politikoari dagokionean, Espainiar Estatuaren barruan 1978ko Konstituzioaren baitan euskara bigarren mailan dago. Izan ere, gaztelania hizkuntza ofiziala da eta Espainiar Estatuaren biztanle guztiak jakitera derrigortuta daude; euskararen ofizialtasuna aitortzen du, baina Autonomia Estatuari dagokio arautzea (Espainiako Konstituzioa, 1978). Gernikako Estatuaren (1979) arabera, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie EAEko herritarrei. Beraz, sistema asimetriko bat da: gaztelera jakitera derrigortuta gaude, eta euskara jakiteko eskubidea dugu. Marko soziolingustikoari dagokionean, euskara oso egoera ahuletik abiatu zen duela 40 urte (galiziera eta katalana askoz egoera hobean zeuden), eta horrek baldintzatu egiten du hizkuntza-politika. Marko ideologikoari dagokionean, euskararen aldeko joera zabal bat zegoen herritarren artean Euskal Autonomia Erkidegoan, C elkarriketatuaren arabera.

Eusko Jurlaritzaren hizkuntza-politikaren helburua euskararen normalizazio soziala lortzea eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzea da, eta helburu hori euskararen sustapena eta biziberritzea bultzatuz gorpuztu da. Horrela definitzen dute hizkuntza-normalizazioa: “kulturalki eta politikoki menderaturik egotearen ondorioz hizkuntza-ordezkapena jasaten ari den komunitate batek bere hizkuntzaren erabilera

berpiztera, zabaltzera eta etorkizunean normal eta egonkor egitera zuzendurik abiarazten dituen prozesuak” (Bastardas-Boada, 1996, in Larrinaga, 2019: 23). Helburua elikatzeko hiru zutabe nagusi baliatu dira denboran: lege babesa, hizkuntza-plangintzak eta herritarren atxikimendua. Gainera, esan daiteke Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak hezkuntza, helduen alfabetatze-euskalduntzea, administrazioa eta hedabideak izan direla.

Baina logikoa den bezala, denborarekin helburuak eraldatuz joan dira. Lehenbiziko helburua euskarari lege babesa eskaintzea izan zen, eta hori ofizialtasunarekin gauzatu zen: “Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea” (Gernikako Estatutua, 1979: 6.1. artikulua). Hori lortuta, 1982an Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legeak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren abiapuntu formala suposatu zuen, eta ondorioz, hizkuntza-politika sustatzaileak garatzeko bidea zabaldu zuen, hau da, funtsezko oinarria ezarri zuen euskal gizartean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko erabakiak taxutzeko. Oinarrizko lege horrek ezarri zuen Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren oinarria, eta garai berrietara egokitzeko hainbat lege onartu dituzte: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1998), *Euskara 21. Itun berritu baterantz* txostena (2009), eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2015). Beraz, hizkuntza-politika euskararen unean uneko egoerari edo errealitateari egokitu zaiola esan daiteke.

Arestian azaldu dut hizkuntza-politika politika publiko arautzaile bat dela. Fernándezen (1996) arabera, politika arautzaileak gatazka dagoen esparruan erabakitzen dira, eta inplikaturako aktore guztien lehentasunak indarrez adierazten dira, arau batek ala besteak euren interesengan eragiten duelako. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ezaugarri nagusi bat da gatazka ekiditen saiatu dela. Izan ere, hizkuntza-politikan oreka gorde nahi izan dute: batetik, euskaltzaleen gogoia bete nahirik, baina, aldi berean, beste sektore batzuetan kontrako erantzunik sortu gabe. Horrela, hizkuntza-politikaren inplementaziorako jarraitu den estrategia zuhurtziarena da, Eusko Jaurlaritza beti saiatu delako uztartzen euskara suspertzeko ahaleginak EAEko gizarte osoaren kohesioa zaintzearekin. Horretarako, oinarrizko akordioei eman die lehentasuna, hizkuntza-politikek ahalik eta babes gehien izan zezaten eta adostasun politiko-sozial zabalenean oinarritu zedin. Horren ondorioa da Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak daukan beste ezaugarri bat: borondatezkotasuna, hau da, inposiziorik eza.

Bestalde, progresibotasunaren ideia ere atxikitzen diote Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikari. Horrela definitzen du A elkarrizketatuak: “atxikimendua, egingarritasuna

eta erritmo egokia”. Horrek esan nahi du neurriak tentuz eta pixkanaka ezarri direla. Hainbat lege eta plangintzak biltzen dute progresibotasunaren ideia. Adibidez, *Euskara 21. Itun berritu baterantz* txostenak (2009) “hizkuntza-politika progresibo” (Larrinaga, 2018: 131) baten alde egiten du. Hala ere, inplementazioaren erritmoaren egokitasunari dagokionean, zalantzak ditu B elkarrizketatuak, progresibotasun horren ondorioz, “politika hauen eraginkortasuna, emaitzei begiratzuz gero, jarraia baina geldoa” izan delako. Izan ere, hizkuntza-politikaren kudeaketaz arduratu den Sailak eskuragarri izan dituen baliabideen (bereziki baliabide ekonomikoen) araberakoa izan da hizkuntza-politika.

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikari beste ezaugarri bat ere lotu dakioke: posibilitismoa. Hala garatzen du ideia elkarrizketatu dudan aditu batek:

“Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika politika posibilitistaren adibide garbia izan dela argudiatu liteke, hartutako erabakiak eta abian jarritako ekimenak gizarte-aldarrikapenen atzetik joan direlako gehienetan. Gizarte-aldarrikapenei buruz ari garenez gero, eta eredu soziodemokrata edota neoliberal askotan gertatzen den bezala, gizarte-mugimenduak erakundeek ematen dituzten dirulaguntzen menpe bizi dira, eta sistema honek sortzen dituen dinamikak epe laburrekoak eta erosle-bezero motakoak dira. Gainera, azken legegintzaldia ezberdina izan den arren, ikusten da politika posibilitista baten barruan jarrera otzana izan duela Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, lege askotan ezarritako alorrak ez dira bete urte hauetan guztietan eta lege-hutsuneak betetzeko saiakerarik ere ez da egin, Eusko Legebiltzarrean horretarako aukera egon den arren. Horren adibide gisa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea dugu, zein ez den bereziki lege ‘apurtzailea’. Espainiako Konstituzio Epaitegiak puntu garrantzitsu batzuei helegitea jarri zien eta geroztik ez da pausurik eman lege horretan onartu ez ziren puntu horiek utzitako hutsuneak betetzeko”.

Eusko Jaurlaritzak burutu duen hizkuntza-politikak eboluzionatu egin du azken 40 urteotan, lege eta plangintza desberdinek adierazten duten moduan. Izan ere, hasiera batean hizkuntza-politika bat garatzeko gaitasun teknikoa oso mugatua zen, E elkarrizketatuaren arabera:

“Garai horietan, soziolinguistika teorikoa (akademikoa) zein aplikatua ere ez ziren ia ezagutzen gure artean. Oinarri-oinarrizko kontzeptuak, mekanismoak eta aukera errealak ezezagunak zitzaizkigun. Adibide bat: uste orokortua zen umeek eskolan euskara ikastearekin, barra-barra erabiliko luketela, erdararen aurretik. Beste adibide bat: Deustun (Bilbo) mintzapraktika talde bateko kide baten iritziz, bost urteko epea eman behar zitzaien erdaldunei euskara ikasteko eta, epe horretan ikasten ez zutenek Euskal Herritik alde egin beharko zuten. Errealitatek lekutan!”.

Denbora igaro ahala, ordea, hizkuntza-politikak ildo eta ipar orokor antzekoak mantenduz, berau garatzeko sortu diren planak gero eta zehatzagoak eta egokiagoak izan dira, bi ezaugarri mantenduz: ikuspegi ez-integrala eta optimismoa.

Batetik, ikuspegi ez-integralak esan nahi du berariazko hizkuntza-politikan zentratu dela bakarrik Eusko Jaurlaritzaren eta euskalgintza oro har: politika turistikoa, etxebizitza-politika, industria-politika eta abar ahaztu egin ditu, eta horrek ekarri dituen ondorio soziolinguistikoak oso pisutsuak dira. Horrek agerian uzten du hizkuntza-politika batek eduki beharko lukeen transbertsalitatea edo zeharkakotasuna. Izan ere, hizkuntzak komunikatzeko tresnak dira, eta komunikazio horri esker osatzen ditugu gizakiok gizarteak, baita horiek antolatu ere. Horregatik, gizartea antolatzeko hartzen diren erabaki guztiek inplikazio handiak izango dituzte komunitate bakoitzeko hizkuntza-testuinguruan, hizkuntzen izaera transbertsala dela eta, hain zuzen. Hori euskalgintza guztiaren ezaugarria da, orain hasi dira konturatzen horri zentralitatea eman behar zaiola.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika optimistegia zen, C elkarrizketatuaren arabera:

“Duela 40 urte esango ziguten erroka jende gehien biltzen diren lekuak euskalduntzea zela helburua, suposatzen zelako inguruko euskaldunek eutsi egingo ziotela, baina hori ez zen errealia; eta azken urteotako errealitate bat da gune euskaldunenak ahultzen ari direla eta horrek hizkuntza baten bizigarritzerako izugarritzko garrantzia dauka. Nahiz eta inguru erdaldunenetan pixka bat aurreratu eta saldo orokorra ez izan hain negatiboa, galtzen ari gara seguraski komunitatearen muinean, eta hori larria da. Hala ere, egoera hori ez du Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak bakarrik eragin, beste hainbat faktoreren ondorioa da. Lehen munduko testuinguruan hizkuntza gutxituak hiltzera doaz gauzek horrela jarraitzen badute, oso panorama zaila daukate, eta are gehiago abiapuntu zaila daukatenean. Gainera, Espainiar Estatuaren barruan mugak oso argiak dira: marko juridiko-politiko asimetrikoa guztiz asumituta daukagu. Orokorrean, 40 urte hauetan lortu da euskara bizitzen ari zen jaitsiera gelditzea, eta horren meritua ere badagokio Eusko Jaurlaritzari: hori ez du edozein hizkuntza-komunitatek lortzen. Hala ere, ez da egoera irauli eta ez da hazkunde bat gertatu, baina galga jartzea lortu da: hainbat egitura garrantzitsu sortu dira hizkuntza mailan, komunikabide mailan, politika mailan... Hezkuntzan asko aurreratu da, baina eraginkortasun arazo handiak ditu oraindik. Beste esparru batzuetan ahulago gaude, bereziki administrazioan eta hedabideetan. Hala ere, etorkizunean urratsak emateko bidea eginda dago”.

Esan daiteke Eusko Jaurlaritzak bere hizkuntza-politika indarrean jarri zuenean hizkuntzaren ezagutzari eta prestigioari ematen ziola garrantzia. Gaur egun, berriz, euskararen erabilerari ematen dio garrantzia gehiago, arestian azaldutako testuinguru soziolinguistikoari erantzuteko. Larrinagak (2019) hori berresten du: haren arabera, XXI. mendeko hizkuntza-politikak euskararen erabilerari indartzeari ematen dio garrantzia, eta

ideia horretan oinarritzen da *Euskara 21. Itun berri baterantz* (2009) txostena. Txosten horrek euskara belaunaldi berrietan bermatzea, arnaguneak zaintzea eta familia-transmisioa bermatzea jartzen ditu lehen lerroan (Eusko Jaurlaritzak, 2009), eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika Fishmanen teoriara gerturatu da. Izan ere, autore horren arabera, “hizkuntza batek belaunaldiz belaunaldi irauteko itxaropen bakarra intimitatearen esparrua (familia, auzoa, komunitatea) berarentzat erreserbatzea da” (Fishman, 1991, in Larrinaga, 2019: 34).

Atal hau amaitzen hasteko, Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko instituzioekin hizkuntza-politika bat gauzatzeko orduan izan duen harremana aztertuko dut.

Euskalgintza euskararen sustapena bilatzen duten agenteen multzoa da, eta ondorioz, denak dira: bai Eusko Jaurlaritzak, aldundiak edo udalak, eta bai erakunde sozialak. Hala ere, orokorrean euskalgintzarekin euskararen sustapenean diharduten erakunde sozialen multzoari egiten diogu erreferentzia, eta kasu honetan, ulerker hori jarraituko dut nik, instituzioen eta gizarte zibilaren arteko harremana hobeto uler dadin.

Historikoki argi dago euskalgintza Eusko Jaurlaritzak baino lehenago zegoela. Euskalgintzaren eklosioa 1960ko hamarkadan gertatu zen, frankismoaren baitan, eta ikastolak, helduen alfabetatzea, eta kulturgintza barnebiltzen zituen, besteak beste. “Orduan mugimendu oso garrantzitsu bat zegoen martxan, nazioartean bereizi egiten gaituena, estaturik gabeko nazio gutxiak baitzuten horrelako mugimendua”, C elkarrizketatuaren arabera. Eusko Jaurlaritzaren sorreran euskalgintzak ezarritako ildo askotan sakondu egin zen, hezkuntzan gehienbat. Hala ere, XXI. mendera iritsi arte harremanak oso gatazkatsuak izan dira, alderdikeria tarteko, hizkuntza-politika arrakastatsu bat oztopatuz.

Eragile bien arteko harremanak denboran zehar gorabehera ugari izan baditu ere, esan daiteke Eusko Jaurlaritzaren rol bikoitzean oinarritu dela funtzionamendua: erabaki-hartzaile rola eta euskararen sustapenerako dirulaguntzen emaile rola. Horrek euskalgintzari ere rol bikoitza esleitu dio: Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiak edukiz betetzeko rola (gustukoak izan ala ez, adostutakoak izan ala ez), eta dirulaguntzen eskatzaile eta jasotzaile rola. PSE-EEko Patxi López lehendakari izan zen legegintzaldian ere (2009-2012) beste horrenbeste gertatu zen, eta kontrakoa zirudien arren, hizkuntza-politikak aldaketa gutxi izan zituen aurreko epearekin alderatuta. Rol horien ondoriozkoa da Eusko Jaurlaritzak azken urteetara arte euskararen aldeko mugimendu eta ekimenen gainean izan duen botere-harremana, horietako asko instituzionalizatzeraino, agintera iristen den taldearen eta gizarte aldarrikapenen artean sortzen den mesfidantza eta dinamiken ondorio gisa. Arestian esandakoa errepikatuz: “gizarte-mugimenduak erakundeek

ematen dituzten dirulaguntzen menpe bizi dira, eta sistema honek sortzen dituen dinamikak epe laburrekoak eta erosle-bezero motakoak dira”, B elkarrizketatuaren arabera.

Hala ere, XI. legegintzaldiak (2016tik aurrera) berezitasun batzuk izan ditu hizkuntza-politikaren arloan, bi arrazoiengatik. Erakunde eta gizarte-mugimenduekin botere-harremanek bere horretan jarraitzen duten arren, bi aldeen arteko elkarlana askoz emankorragoa izan da: Eusko Jaurlaritzak eta euskalgintzak modu koordinatuan ekiteko eta zubiak eraikiz elkarlanean oinarrituta aritzeko ahalegina egin dutela dirudi. “Ikusi dugu, eta Euskaraldia eta EuskarAbentura dira horren islada, zentzu handi batean, ahalik eta eragile gehien badaude elkarlanean ekimen horren arrakastarako aukerak oso handiak direla”, B elkarrizketatuaren arabera.

Liskarrak alde batera utzi eta zubiak eraikitzeke joera horren atzean hainbat arrazoi egon daitezke. Honetan badu eragina euskararen biziberritzeak “ezagutzatik erabilerara” jotzeko konpromisoa hartu izana, ondorio ezberdinak dituztelako biek ala biek. Bestetik, B elkarrizketatuaren arabera, “komunikazio aldetik lau urte hauetan Eusko Jaurlaritzaren partetik harremanetarako estilo gertukoago, asertiboago eta horizontalago bat ikusi da, eta nabaritu da”. C elkarrizketatuak, berriz, ondoko arrazoi hau identifikatzen du: “giro politikoa aldatzeak eragin zezakeen euskalgintzako hainbat aktorek zeukaten diskurtsoa eta funtzionatzeko modua moderatu izana, eta horrek oraingo egoera erraztu du”.

Bestalde, Euskal Herria denez euskararen hizkuntza-komunitatea, Eusko Jaurlaritzak harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuarekin eta Ipar Euskal Herriko instituzioekin euskararen sustapenaren inguruan erabakiak hartzeko, baina koordinazioa lortzea oso zaila izan da. Izan ere, administratiboki ezberdinak diren lurraldeei buruz ari gara; hots, marko juridiko-politiko-administratibo ezberdinetan ezarritako lege, dekretu eta arauen arabera funtzionatzen duten lurraldeak dira. Gainera bi Estatutan daude kokatuta, euskarari dagokionez, hizkuntza-errealitate ezberdinak dituztenak. Edozein kasutan, azpimarratzekoa da XI. legegintzaldiaren hasieran EAEko hizkuntza-politikaren nondik norakoak gidatzeko ardura hartu zuen Bingen Zupiria sailburuak hiru lurraldeen arteko koordinazioa areagotzea ezarri zuela erronka gisa. Hala deskribatzen du E elkarrizketatuak Eusko Jaurlaritzak gainerako euskal erakundeekin izan duen harremana azken 40 urteotan:

“Eusko Jaurlaritzak koordinazioa bilatu ohi izan du Iparraldearekin eta Nafarroarekin, baina, garai batzuetan, lekuan lekuko egitura ofizial faltak edota herri-administrazioaren agintari politiko batzuek asko baldintzatu dute ahaleginaren arrakasta. Iparraldean, lehenengo garaietan ez zegoen ordezkartza politiko propiorik eta Euskal Kultur Erakundearen (EKE) bitartez bideratzen zen elkarlana Eusko Jaurlaritzarekin; ondoren, Frantziako estatuko herri-administrazio maila guztiak eta herri-mugimenduko erakundeak Euskararen Erakunde Publikoan (EEP-OPLB) bilduta, asko sakondu da

kolaborazioan. Orain, pentsatzekoa da Euskal Hirigune Elkargoarekin aukera berriak irekitzeko aukerak areagotuko direla. Nafarroan, trantsizio politikoaren garaian Eusko Jaurlaritzarekin kolaboratzeko ireki ziren aukerak laster kamustu ziren, bereziki UPNren gobernu ezberdinekin. Eten hori gainditzeko ahaleginak egin dira aurreko gobernuarekin [2015-2019 bitartean Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra alderdi eta koalizioek osatutako gobernuak] eta elkarlanerako aukera berriak abiatu ziren. Orain, aurreko legintzaldian abiatutako dinamikari eutsi zaio orain arte, eta, itxuraz denez, bide beretik jarraituko da”.

6. 2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak hainbat alor eta esparru hartu ditu bere baitan, eta horietako bat hedabideena da. Nahiz eta zenbait autoreren iritziz hedabideek gaitasun txikia izan gizatalde baten hizkuntza-ohituretan eta -jarreretan eragiteko, 1950etik aurrera hedabideek hizkuntza-normalizazioa burutzeko daukaten gaitasuna azpimarratzen dute beste autore askok. Horien arabera, hedabideek hizkuntza-jarreretan eragiten dute eta komunitate sentimendua piztu dezakete, besteak beste (Larrinaga, 2019). Azken ikuspegi horrekin egiten dut bat Eusko Jaurlaritzak, eta horregatik, hizkuntza-politika bat aplikatu du hedabideekiko: jarraian aztertuko dut.

Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politikaren helburu nagusia euskara hedabideetan sustatzea da, haien bidez gizartean sustatzeko. Hedabideekiko hizkuntza-politikak bi ardatzetan oinarritutako jokabidea izan du: batetik, hedabide publikoak sortu ditu (EITB) eta bestetik, euskararen esparru geografiko osoan (Euskal Herrian) ekimen pribatutik sortutako euskara hutsezko hedabideak diruz lagundu ditu (ez bakarrik euskara hutsezkoak, zenbait urtetan gaztelaniazkoek ere dirulaguntzak eskaini dizkielako euskarazko edukiak prestatu eta zabaldu ditzaten). Hasiera batean, euskararen sustapen eta zabalkunderako lagungarri izan zitezkeen hedabideak sortzeko zereginari ekin zion, ikus-entzunezkoen aldeko apustua eginez: Euskal Irrati Telebista (EITB) sortu zuen 1982an. Bestalde, herri ekimeneko edo ekimen pribatuko hedabideei dagokienez diruz laguntzen hasi zen. Lehenbizi, era diskrezional batean, eta 1984tik aurrera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratutako agindu bidez. Deialdien helburuak euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzea dira. Oso kritiko azaldu da B elkarrizketatua bi ardatz horien inguruan:

“Euskalgintzarekin jokatu duen bezala jokatu du Eusko Jaurlaritzak hein handi batean euskarazko hedabideekin: bere gain hartzeko saiakerak eginez eta muturreko kasu batzuetan, gizarte-ekimenak deusestatzen saiatuz, zeharka edo zuzenean (*Euskaldunon Egunkariarekin* gertatu bezala). Herri eta eskualdeetako hedabideek baliabide gutxirekin biziraun dute, dirulaguntzen menpe,

baina azken hauek erreferentzia bilakatu dira. EAE eta Euskal Herri mailako hedabideei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ikusgarritasunaren eta momentuko boterearen alde egin du, beraz, iragarki instituzionalekin Vocento taldea eta Noticias taldea (gaztelaniaz gehiena) diruz lagunduz. Ondorioz, hedabideak gizartearen onarpena lortzeko tresna izan dira. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren politiken eta kudeaketaren onespena lortu ahal izateko erabili dira hedabide nagusiak, eta lehentasun horrekin gatazkan ageri da euskara”.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak teorian hedabideak euskararen normalizaziorako tresnarik eraginkorrenetakotzat jo ditu, Euskararen Legean (1982), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (1998) eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (2012) hedabideei eskaintzen zaien atal berezian jasota dagoenaren arabera. 10/1982 Legean (Euskararen Legea), herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren ardurak eta eginbeharrekoak zehazten dira. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) euskara elikatzeko zeregina esleitzen zaie hedabideei, hizkuntza-normalizazioa lortzeko ezinbestekotzat jotzen ditu, eta euskarazko prentsari helburu hori betetzeko laguntzak eskaintzea proposatzen du. Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) estrategikotzat jotzen ditu hedabideak euskararen normalizazioaren bidean, eta ezinbestekotzat jotzen ditu euskararen erabilera indartzeko eta euskal kultura hedatzeko.

Euskarazko hedabideei dagokienez, neurriak pixkanaka hartuz, gero eta dinamika osatuagoa bultzatu da. Eusko Jaurlaritzak “Euskararen Agenda Estrategikoa 2013–2016”-k (Eusko Jaurlaritzak, 2013) dioenez, euskarazko hedabideei euskararen elikadura dagokie, beste zenbait arloekin batera, hala nola kulturgintza, publizitatea eta abar. Halakoak, euskararen transmisiorako eta erabilerarako egiten diren ahaleginen emaitzak suspertzeko eta areagotzeko garrantzitsuak direla aitortzen da. E elkarrizketatuaren arabera, “beste gauza bat da erdarazko hedabideekin jarraitutako bidea eta lortutako emaitzak zeintzuk diren. Hor egin diren ahalegintxoak ez dute emaitza nabarmenik ekarri. Erdarazko prentsan ez da aldaketarik sumatu”. Hala ere, honela definitzen dute hedabideen garrantzia:

“Euskarazko hedabideen sektore sendo bat izatea giltzarria da euskaren erabilera bultzatzeko eta hizkuntzari berari prestigioa emateko, hau da, euskarazko kontsumoa sustatzeko nahiz sensibilizazio eta motibazioa eragiteko. Gaur egun, ordea, unitate txiki askoz osaturiko multzoa dela esan genezake, nahiz eta egituratzeko lanetan gogoz diharduen. Horregatik, sektorea indartu, egituratu eta sustatzeko politikari jarraipena emango diogu, eta irakurleen eta ikus-entzuleen gogo-apetak asetzeko ahaleginak sustatuko ditugu” (Eusko Jaurlaritzak, 2013: 25).

Eusko Jaurlaritzak hedabideei oro har eman dien garrantzia handia da, baina kontuan hartu behar da eremu pribatuko eragileen erabaki libreetan eragitea zailagoa dela Administrazioaren jabetza duten hedabideetan baino. D elkarrizketatuaren arabera, “euskarazko EITB sortu eta garatu izana konpromiso politiko handia da”. Gainera, urteroko aurrekontuetan hizkuntza-politikaren ardura izan duen sailaren partidarik handiena EITBra bideratu da (bataezbeste 10 eurotik 6). Horren ondoren, HABE izan da onuradun nagusia eta gero ekimen pribatuko euskarazko hedabideak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabilgarri duen aurrekontu osoaren %10a erabili du gutxi gorabehera euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko. Euskara sustatzeko urtero kaleratzen dituen dirulaguntza deialdi guztien artean (LanHitz, euskalgintza, IKT...) hedabideentzako izan da beti diru hornikuntzatik handiena izan duena.

Elkarrizketatutako hainbat adituk deritzote Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko hasiera batean aplikatzea erabaki zuen hizkuntza-politikaren xedea (euskarazko hedabideak bultzatzea, hain zuzen) desitxuratu egin zela, gaztelera-ko telebista (ETB2) eta irratia (Radio Euskadi) sortu zituelako. B elkarrizketatuaren arabera, hedabideei “ez zaie esleitu duten gaitasunaren araberako papera, eta EITBren adibidearekin argi ikusten da: euskaraz bakarrik hasi zen eta gaur egun gaztelania ardatz duen erakundea da”. C elkarrizketatuak, berriz, Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politikaren ondorio soziolinguistikoak azaldu ditu:

“Euskararen erabilera alorrez alor hartzen badugu (etxean, kalean, lantokian, udalean...) eta maila berean jartzen badugu hedabideen kontsumoa (eta zehazki, telebistarena), koska oso handia dago beheraka, hau da, euskaldunok gehiago erabiltzen dugu euskara lagunekin gaudenean, etxean edota lantokian (inkestetako jarduera guztietan) telebista ikusten dugunean baino. Horren arrazoi funtsezkoa da ez dagoela eskaintza egoki bat, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki, gaztelera-ko hedabideekin alderatuz. Agerikoa da ETB1 eta ETB2ren arteko aldea zentzu horretan. Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko egiten duen hizkuntza-politikaren parte garrantzitsu bat da ETB, baina hizkuntza-politika da bai ETB1 bai ETB2: biak dira. ETB2 indartu dute nabarmen, eta eragin nabarmenak ditu horrek: euskaldunak hedabideen kontsumoan erdaldundu egiten gara, beste edozein esparrutan baino gehiago. Hala ere, Eusko Jaurlaritzan gai hauetan agintzen egon direnen borondatea ez da izan gaztelera indartzea, baina praktikan hori ari dira lortzen. Beraientzat, ETB1 euskara indartzeko katea da eta ETB2 gizarte kohesioa lortzekoa, baina praktikan daukan efektua argia da. Ondorioz, hedabideen gaiari pisu handiagoa eman beharko litzaioke, ETB1 indartuz. Izan ere, euskarazko hedabideetara bideratzen den dirua oso apurra da gaztelera-koetara bideratzen denarekin alderatuz. Bestalde, Interneten oso eduki gutxi dago euskaraz; ez dauka eskaintza duinik”.

Bestalde, ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideak diruz laguntzeko helburua kontuan hartzen badugu, baieztatu daiteke helburua %100ean bete duela Jaurlaritzak urtero

urtero, inoiz huts egin gabe kaleratu dituelako laguntza deialdiak. Baina helburua euskara hutsezko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu dela pentsatzen badugu, “%100etik urrun gaudela” deritzo A elkarrizketatuak. Hala ere, E elkarrizketatuaren arabera, dirulaguntza horiek ezinbestekoak dira:

“Euskarazko hedabideak ez dira gauza dirulaguntza publikorik gabe bizirauteko, hau da, euskararen komunitatea ez da gai, bere kasa, euskarazko hedabideak suspertzeko. Beraz, dauden baldintza prekarioak aintzat hartuta, hedabide horiek ari dira bidea egiten herri-administrazioaren laguntza baliotsuaren eskutik”.

Eusko Jaurlaritzak harreman desberdina izan du hedabide publikoekin eta hedabide pribatuekin haiekiko hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa erabakitzerako garaian. Hedabide publikoei (EITB) dagokienean, Eusko Legebiltzarrak izendatzen du zuzendari nagusia eta horrek, behar denean, berak eskatuta ala alderdiek eskatuta edo behartuta azalpenak ematen ditu. Beraz, harreman instituzional bat badago. Herri ekimeneko hedabide pribatuei dagokienean, aldiz, aldaketa izan da denboran zehar. Urte luzetan, jarrera oso kontrajarriak eta gatazkatsuak izan ziren, baina egoera horrek aldaketa nabarmena izan zuen XXI. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran. Berrikuntza, berregituratze eta hausnarketa prozesu sakon batean murgildu ondoren, 2012an Tokikom bateragunea eta Hekimen elkarteak sortu zituzten. Biak erakundeen aurrean solaskidetzak sendoa eraikitzeke tresnak dira. Edozein kasutan, aldaketa esanguratsua XI. legegintzaldian gauzatu zen. Hamarkadetan bat etorri ezinda ibili ondoren, publikoak ez diren euskara hutsezko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana batzuen eta besteen arteko lankidetzan eta elkarrekiko aitortzan oinarrituko da (baita helburuak, laguntzen esleipen irizpideak eta abarrak zehazteko orduan ere). E elkarrizketatuaren arabera, “horri esker finantzazio arloan hitzarmen garrantzitsuak lortu dira”.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren apustu nagusia EITB izan da, eta horren erakusgarri da bertara bideratutako diru baliabideen tamaina. Herrigintzaren edo euskalgintzaren eskutik bultzatu diren beste ekimenek laguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzatik, baina ez dira izan bere ardura nagusia. Hala ere, hedabide horietan inprimatuak lehenetsi dira beti (horiek osatzen dute kuantitatiboki multzorik zabalena). Dena den, azken urteetan, bereziki 2013-2014tik aurrera, haziz joan da beste era bateko euskarrietan (bereziki digitaletan) ari diren euskara hutsezkoen multzoa (zenbait kasutan bakarrik euskarri digitaletan eta beste batzuetan biak konbinatuz) eta bilakaera horrek isla izan du dirulaguntza deialdietan: laguntza jasotzeko eskaera egiten duten Internet bidezko euskara hutsezko hedabideak gero eta gehiago dira. Hala ere, C elkarrizketatuaren arabera, “Interneten oso eduki gutxi

dago euskaraz, eta ez dauka eskaintza duinik”. Ondorengo dio B elkarrizketatuak gaiaren inguruan:

“Hedabide orokorretara bideratu da arreta, publiko gehien zuena eta atzean dagoeneko babes ekonomiko handiena zuten hedabideetara. Jasotako kritiken ondoren, gaztelania hutseko hedabideek euskara sartzeko neurriak ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak, baina irismen urriko neurriak izateaz gain erantzun eskasa izan du hedabideen partetik”.

Atal honekin amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko hizkuntza-politika aurrera eramateko Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko instituzioekin izandako harremana aztertuko dut laburki.

Harremanik egon bada, EITBren seinalea Euskal Herri osora hedatzeko ahaleginarekin loturikoa izan da gehienbat. Izan ere, A elkarrizketatuaren esanetan, ez da harremanik egon Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako gobernuaren eta Ipar Euskal Herriko instituzioen artean gai horretan:

“Arrazoa da bi lurralde horietako [Nafarroa eta Ipar Euskal Herria] gobernuak ez dituztela euskara hutsezko hedabideak aintzat hartu. Eusko Jaurlaritza izan da, Nafarroako eta Iparraldeko euskara hutsezko hedabideak diruz lagundu dituen erakundea. Nafarroaren kasuan, Uxue Barkos presidente izan zen bitartean, Foru Erkidegoan zabaltzen ziren euskarazkoek bertako gobernuak esleitutako laguntza jaso zuten (Jaurlaritzak esleitzen ziena baino txikiagoa)”.

6. 3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

Euskal Irrati Telebista (EITB) EAEko hedabide publikoak biltzen dituen enpresa publikoa da, eta hainbat telebista katek (ETB1, ETB2, ETB3 eta ETB4) eta irrati katek (Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Gaztea, EITB Irratia, eta Radio Vitoria) osatzen dute. Gernikako Estatutuak (1979: 19. artikulua) ezarri zuen EITB sortzeko oinarri juridikoa: “Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak”. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak Gernikako Estatutuan ezarritako eskumen bat gauzatu zuen EITBren sorrerarekin. 1982an sortu zuen EITB, maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen bidez, eta hainbat funtzio esleitu zizkieten: informazioa eskaintzeko, partaidetza politikorako, hezkuntzarako eta euskal kulturaren (bereziki euskararen) sustapen eta zabalkunderako lankidetzatresna izatea. Asmo nagusia komunikazio-talde publiko propioa sortzea izan da, Estatuko eragin mediatiko publiko zein pribatua “neutralizatzeko”. EAEko eremua jomuga nagusitzat hartu da, baina beste euskal lurraldeak ere eskaintza horretara erakartzen saiatuz.

Eusko Jaurlaritzarentzat EITBk bi funtzio betetzen ditu: batetik, zerbitzu-enpresa moduan funtzionatzen du, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan duen erreferentziazko tokia eta sorrerako legean ezarritako funtzioak sendotzea dagokio. Beraz, Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politika egingarria eta eraginkorra gauzatzeko orduan, funtsezko zeregina esleitzen dio EITBri, eta hala berresten du 2017-2020 aldirako EITBren lerro estrategikoak jasotzen dituen dokumentuak. Izan ere, estrategikoa da EITBrentzat euskara sustatzea, hau da, euskararen normalizazioa, prestigioa eta bizitza publikoan duen presentzia bultzatzea, eta EITBk euskararen erabilera errazteko eta hedatzeko zeregina izatea. Horrela, esan liteke hedabideei normalizazio-baliagarritasuna esleitzen diela Eusko Jaurlaritzak, eta zerbitzu aldiaren baitan kokatu dezakegu EITBren sorrera eta garapena: “komunitate gutxituak euren telebistak eta irratiak eratzen hasi zirenean, aurrerapauso bat egin zen hizkuntza gutxituen hedabide-politika eta -praktikan, hizkuntzari tarte bat eskaintzetik hitzunei zerbitzua eskaintzera” (Larrinaga, 2019: 36-37).

Eusko Jaurlaritzak EITBrekiko daukan eragina zeharkakoa da. Izan ere, EITB erakunde autonomoa da eta bere erabaki propioak hartzen ditu; baina, aditu baten arabera, erabaki horiek “oro har, lerrokatuak daude euskal gizarteak Parlamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez adierazitako nahi orokorrekin”. Gainera, EITBri ez zaio Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika era berezi batean aplikatzen: EITB Eusko Jaurlaritzak hizkuntza-politika egikaritzeko duen tresna edo baliabide bat da, beste askorekin batera (adibidez, beste hedabideak) hizkuntzaren sustapenean ekarpena egiten duena. Horregatik, EITBk bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikarekin.

Bestalde, zerbitzu publikoaren hizkuntza-ereduari edo “hizkuntza-politika propioari” dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ez du hizkuntza-eredurik ezartzen. Zeregin hori (corpus-plangintza) beste erakunde batzuei dagokie; Euskaltzaindiari, kasu honetan. Zentzu honetan, EITBk bat egiten du Euskaltzaindiak emandako arau nagusiekin. Adibidez, euskara batua da erabiltzen den hizkuntza-eredua, hori baita euskara estandarra. Hala ere, EITBk bere hizkuntza-eredu propioa du, Euskaltzaindiak onetsitako arau nagusiekin bat egiten duena, eta aldi berean, hainbat urtetako esperientzietatik eta profesionalen ekarpenetatik elikatzen dena. Gainera, EITBk ekarpena egin du euskarak jorratu duen aurrerabidean, eta bestetik, euskal gizarteak euskararen arloan egin duen aurrerabideak aldaketak behartu ditu EITBren hizkuntza-ereduan. Elkar-elikatze horren bi adibide jarri ditu A elkarriketatuek:

“EITBen lehen urteetan kirol-emanaldietan edo eguraldiaren iragarpenetan esatariek erabiltzen zuten euskarak eta egungoetan erabiltzen dutenaren artean sekulako aldea dago, arlo horretako euskara eraikiz eta aberastuz joan da denborarekin, ikus-entzuleek euskarazko terminologia hori bereganatu dute. Eta kontrako norabideko eragina ere gertatu da: euskal gizartearen hainbat

ezagutza-arlotan zein jarduera-eremutan (teknologian, matematikan, medikuntzan, ekonomian, zuzenbidean...) euskarak egin duen aurrerabidea EITBn islatu da (EITBk bere egin du jarduera-eremu horietan euskaraz erabilitako terminologia eta bereganatzeaz gain zabaldu egiten du berriro gizartean)”.

Atal honekin amaitzeko, EITBn euskarak eta gaztelaniak duten presentziari dagokionean, aditu gehienek deritzote elebiduna izaten jarraitu behar duela, EAeko gizartea hala delako. Hala ere, euskarari lehentasuna eman behar zaiola azpimarratzen dute, ez baita beraien pertzepzioa hori gaur egun gertatzen ari denik. B elkarrizketatua harago doa, eta “hedabide mainstream bat” dela deritzo:

“Ikuspegi ezkorrekin egindako analisi batekin esan genezake hizkuntza-komunitatearen irrtati eta telebista izatetik, hau da, Euskal Herri osoa helburu zeukan erakundea izatetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide mainstream bat izatera pasatu dela EITB. Ikuspegi baikorrekarekin egindako irakurketak, ordea, dio XXI. mendeko ezaugarri, egoera, baldintza eta erronketara egokitu den hedabide modernoa dela”.

E elkarrizketatuak, berriz, horrela deskribatzen du EITBn gaur egun euskarak eta gaztelaniak duten presentziaren eta garrantziaren dituen arrazoiak eta ondorioak:

“EITBk, gainerako hedabide edo komunikazio talde guztiek bezala, ezinbesteko morrontza du audientzia txukunak lortze aldera. Hori ulergarria da, bi arrazoi nagusiengatik. Batetik, EITB taldeak audientzia txikiak lortuz gero, oposizioko alderdien kexa berehala eta ozen entzungo zelako. Alegia, audientzia zifrak arriskuan ez jartzeko, hizkuntza-politikaren irizpideei lehentasun osoa ematea zaila ari da suertatzen. Izan ere, euskarazko programazioa lehenesteak audientziaren galera lekarke. Esan daiteke, adibidez, ETB2k kalte egin diola euskararen aldeko hizkuntza-politikari, bi modu nagusitan: gizartean erreferente diren euskaldunak erdaraz agerraraziz, alegia, ez euskaradun bezala; eta programa arrakastatsu batzuek (El Conquis, esaterako) ETB1i audientzia kenduz. Bestetik, [...] Estatuaren eraginaren aurrean bertako komunikazio sendoa lortu nahi da, horretarako erdarazko programazioa bultzatu beharra badago ere. Horrek guztiak baldintzatu du Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika modu sendo eta irmoan ezartzea”.

6. 4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

Euskal Herrian herrigintzak indar handia dauka, eta mugimendu zabal horren baitan euskalgintza eta hedabideak oso loturik egon dira, herri ekimenetik hedabide ugari sortu direlako. Telebistak, irratiak, prentsa eta Interneteko hainbat atari daude euskaraz, maila nazionalen, herrialde mailan eta maila lokalean. Gehienek informazioa euskaraz eskaintzea dute helburu, eta herri ekimenetik sortu direnez eta ez ekimen instituzionaletik

(EITB edota udal komunikabideak bezala, adibidez), enpresa pribatu forma hartzen dute gehienek gaur egun. Eusko Jaurlaritzarekin daukaten harremana dirulaguntzen bidez gauzatzen da, lehenak diruz hornitzen baititu bigarrenak.

1980-1984 urteen artean era diskrezionalean banatu ziren laguntzak, hau da, Eusko Jaurlaritzak diru partida bat ezarri eta garai hartan zeuden euskarazko hedabideen artean banatzen zuen (denak idatzizko inprimatuak ziren). 1984tik 2015era, urte biak barne, agindu bidez egin zen prozesua, hau da, Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratu zituen euskarazko hedabideak (zenbait urtetan ez bakarrik euskara hutsezkoak) laguntzeko deialdiak. Horietan ezarritako dirua, onuradun izateko bete beharreko baldintzak, esleipenak egiteko irizpideak eta abarrak zehaztu ziren. 2016an publikoak ez diren euskara hutsezko hedabideek behin eta berriro egindako aldarrikapena gauzatu zen: deialdia urterokoa izan beharrean, urte anitzekoa izatea. Hala, 2016-2018rako kaleratu zen (deialdia XI. legegintzaldia hasi aurretik argitaratu zen). Azkenik, XI. legegintzaldia beste aldaketa esanguratsu bat ekarri zion prozedurari (gutxienez 2019-2021 epealdian indarrean izango dena). Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek finantzaketa marko berri bat adostu zuten. Erakunde bakoitzak bere deialdia kaleratu beharrean (ordura arte egiten zen bezala), aurrerantzean Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da EAEn zabaltzen diren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari espezializatuak, tokiko irratiak, tokiko telebistak eta hedabide digital hutsak laguntzea. Tokiko aldizkariari bideratutako laguntza foru aldundien ardura izango da (baina hala izan arren, aldundiek zeregin horretarako jarritako partidaz gain, Jaurlaritzak diru kantitate bat bideratuko du aldundietara tokikoen artean banatu dezaten). Bestetik, funtzionamendu-eredu horretatik kanpo geratuko da *Berria* egunkaria. Izan ere, Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen egunkariarekin (horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 6.960.000 euro emango dizkio 2019-2021 epealdirako).

Eusko Jaurlaritzak euskararen sustapenerako tresna eraginkortzat kontsideratu ditu herri ekimeneko euskara hutsezko hedabideak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legeak "aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea" (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea, 1982: 1. titulua, 5. artikulua, c.) aitortzen dielako herritarrei. Eskubide hori egikaritzeko eta bermatzeko funtsezko baliabidetzat jo ditu Jaurlaritzak euskarazko hedabideak.

Teorian, herri ekimenetik sortutako hedabide pribatuek autonomia osoa dute nahi duten hizkuntza-eredua erabiltzeko, eta euren hizkuntza-politika propioa garatzeko. Izan ere, jabeago pribatukoak dira, eta jabeek erabakitzen dute hori. Hala ere, dirulaguntzekiko menpekotasun handia dute, eta babes ekonomikoa lortzeko, ezinbestekoa da deialdietako baldintzak betetzea. Menpekotasun horrek nolabaiteko lotura sortzen du, E

elkarrizketatuaren arabera, “batzuetan, bi aldeen arteko nolabaiteko *enpatia* (pertsonala edo instituzionala) sor daitekeelako, eta bestetan, diru-emaileekin kritiko agertuz gero, *zigortuak* izatearen beldurra ager daitekeelako”

Atal honekin amaitzeko, “sokatiran murgilduta” deskribatzen du A elkarrizketatuak Eusko Jaurlaritzaren eta herri ekimeneko euskarazko hedabide pribatuen arteko harremana:

“Bakoitza sokaren mutur batean kokatuta dago, biak sokari eusten, jakin badakitelako elkarren beharra dutela; baina aldi berean, norabide bakarrean bultza egin beharrean, bakoitza alde banatan bereari tinko eutsiz. Elkar elikatuz gauzatu da harremana 1980ko hamarkadatik aurrera, badakitelako elkarren beharra dutela hizkuntza biziberritzeko zereginean, eta hedabideek Jaurlaritzaren beharra dute urteroko gastu-aurrekontuan izan dezaketen zuloa estaltzeko eta jasotako laguntzarekin, ahal den neurrian, lan-baldintzak eta eskaintza hobetzeko. Ondorioz, hedabideen eta Jaurlaritzaren arteko harremana ez da konfiantza osoko giroan garatu, eta hausturarik gertatu ez den arren, tentsio handiko uneak izan dira (adibidez, *Euskaldunon Egunkaria* sortu aurreko sasoiaren edo sortu ondorengo lehen 4 urteetan *Euskaldunon Egunkariari* ez zioten diru publikoa eskatzeko eta jasotzeko aukerarik eman)”.

Beraz, Eusko Jaurlaritza eta herri ekimeneko euskarazko hedabideen arteko harremana eremu ekonomikora mugatu dela esan daiteke. Eusko Jaurlaritza, dirulaguntzen sustatzaile, kudeatzaile eta emaile rolean aritu da nagusiki; eta hedabideen sektorea, dirulaguntzen eskatzaile eta hartzailearenean: “ez da diru-emaile diru-hartzaile logika gainditu duen lankidetzarik izan, ez da batzuen eta besteen ahalmenaren eta kemenaren uztardurarik izan”, A elkarrizketatuaren esanetan.

Hala ere, egoera horrek, itxura batean behintzat, aldaketa izan du XI. legegintzaldian (2016tik aurrera): “batzuek eta besteek adierazitakoaren arabera, lankidetzan eta elkarrekiko aitortzan oinarritutako bideari ekin diote eta hedabideek eredugarritzat jo dute babes eredu berria”, esan du A elkarrizketatuak.

6. 5. Eragina hizkuntza-ohituretan

Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko burutu duen hizkuntza-politikak EAEko herritarren hizkuntza-ohituretan izan duen eragina ezagutzea zaila da, ez delako politika publiko horren ebaluazio sistematikorik egin, eta testuinguru soziolinguistikoak ez dituztelako politika publikoek bakarrik baldintzatzen, beste hainbat faktore ere tartean daudelako.

Hala ere, esan daiteke euskara hutsezko hedabideak izateak eragin positiboa izan duela EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan. Eta hala gertatzeko, hau da, hedabideek ekarpena egin ahal izateko, lagungarria izan dute Eusko Jaurlaritzak eskainitako laguntza. Izan ere, helburua euskara gizartean istilurik gabe “elikatzea” bazen lortu da, baina

hizkuntza gutxitu bat izanda, “egindako guzti-guztia beti izango da gutxi”, E elkarrizketatuak dioen moduan.

Esan daiteke, beraz, hedabideekiko hizkuntza-politikak eragina izan duela EAEko herritarren hizkuntza-ohituretan, baina oso txikia: ez du lortu euskara biziberritzea. Izan ere, arestian azaldu moduan, testuinguru soziolinguistikoa ez da oso euskararen aldekoa hedabideen arloan, C elkarrizketatuaren arabera:

“Euskararen erabilera alorrez alor hartzen badugu (etxean, kalean, lantokian, udalean...) eta maila berean jartzen badugu hedabideen kontsumoa (eta zehazki, telebistarena), koska oso handia dago beheraka, hau da, euskaldunok gehiago erabiltzen dugu euskara lagunekin gaudenean, etxean edota lantokian (inkestetako jarduera guztietan) telebista ikusten dugunean baino. Horren arrazoi funtsezkoa da ez dagoela eskaintza egoki bat, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki gaztelerazko hedabideekin alderatuz”.

Bestalde, esandakoa osatzeko, garrantzitsua da EAEko hizkuntza-komunitatearen testuinguru soziolinguistikoari era integral batean erreparatzea. Hori egiten du C elkarrizketatuak, eta Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak oro har dituen erronka batzuk azaltzen ditu. Gainera, hedabideetan urrats oso txikiak eman direla adierazten du:

“Saldo orokorra ez da ikaragarri aurreratu eta ez da ikaragarri behera joan, ez gaude hain desberdin duela 30 urtetik. Baina xehetuko bagenu aldaketa handiak egon dira bi alderdi funtsezkotan. Eremu formalean aurrera egin dugu: hezkuntzan ikaragarrizko aurrerapena egin da, idatzizko baliabideetan eta administrazioan ere. Hori oso garrantzitsua da. Baina era berean eremu informalean galdu egin da, ez dugu aurreratu behintzat: bizitasunean, informaltasunean, etxean, lagunartean, umorean... pixka bat ahulago gaude. Horrekin oso lotuta aurreratu dugu erdaldunagoak ziren zonaldeetan, euskara eremu horietan gertuago baitago egun, nahiz eta ez den erabilera gehiegi hazi, baina norabide onean goaz. Betidanik euskaldunak izan diren tokietan galdu dugu, berriz, eguneroko bizitza arruntean. Ondorioz, Fishmani kasu egingo nioke bi gauzetan. Batetik, familia transmisioa indartu behar da, baina ez da erraza. Euskaletan eragile asko ahalegindu dira horri beste buelta bat ematen, baina praktikan lantzeko zaila da. Bestetik, arnaguneak indartu behar dira, eta euskara nahiko sendo dagoen udalerrietan euskara trinkotu behar da, euskara nagusi izatea lortu behar da. Gainera, hezkuntza eta hedabideak funtsezkoak dira, eta hurrengo erronka lan mundua euskalduntzea da. Baina hori baino lehen hezkuntza eta hedabideak indartuko nituzke. Hedabideetan urrats oso txikiak eman ditugu (irratian gaude ondoena), eta hori indartu egin behar da. Ez da posible haurrak euskaraz haztea eta nerabezaroan denak erdarara joatea hedabideak eta zinema erdaraz kontsumitzen dituztelako. Horregatik, hedabideei garrantzia eman behar zaie, eta euskalduntzearen alde egin behar da”.

Aipatzekoa da aditu askok azpimarratu dutela euskararen normalizazioan ekarpen handiena egiten duen hedabidea, eta egoera onenean dagoena zentzu horretan, irratia dela; euskarazko irratia, alegia.

Analisiarekin amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren hedabideekiko hizkuntza-politikak etorkizunera begira dituen erronka nagusiak azalduko ditut.

- Ikuspegi demokratiko eta anitza ardatz izango duen hizkuntza-politika garatzea litzateke gakoa, euskararen biziberritzerako hedabideei dagokien papera aitortu eta esleituz eta euskarazko hedabideak modu egonkorrean lagunduz, korporazio handiei gehiago eskatzearekin batera. Izan ere, kuantitatiboki zein kualitatiboki oparoa den hedabideen eskaintza bermatu eta suspertu beharko lukete, eta gainera, euskarazko hedabideen lehiakortasunari buruz ere hausnartu beharko litzateke.
- Ahalik eta hartzaile gehienengana iristea lortu behar dute euskarazko hedabideek, hau da, toki sendoa egitea audientzian, herritarren artean, alegia. Gainera, euskaldunek euskarazko hedabideak kontsumitu ditzatela lortzea erronka nagusi bat da. Euskaldun euskaltzale askok erdarazko hedabideak kontsumitzen dituzte, eta horri buelta emateko, kontsumitzaile euskaldunen aktibaziorako, politika bat diseinatu eta ezarri beharko litzateke. Hala ere, hori instituzioen eta euskarazko hedabideen zeregina da.
- Bestalde, pentsatu eta ebatzi behar da zein den XXI. mendeko euskal herritarraren behar komunikatiboak asetzeko eta aldi berean hizkuntza-komunitatea trinkotzeko beharko litzatekeen esparru komunikatiboa. Hausnarketa prozesu bat abiatzea dagokie, beraz, euskal instituzioei eta hedabideei.

7. Ondorioak

Analisia burutu eta gero, ondorioztatu daiteke Eusko Jaurlaritzak Gernikako Estatutua indarrean jarri zenetik (1979) gaur egunera arte inplementatu duen hizkuntza-politikaren baitan, hedabideek garrantzia handia dutela euskararen normalizazioa lortzeko helburua erdietsi dadin. Bi modutan aplikatu du hizkuntza-politika hedabideekiko: EITBren bidez, eta herri ekimeneko hedabide pribatuei dirulaguntzak emanez. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza-ohiturak nabarmen aldatzea ez du lortu hedabideekiko hizkuntza-politikak.

Jarraian, ikerketa honetatik ateratzen ditudan ondorio zehatzak adieraziko ditut, sintetikoki:

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren helburua euskararen normalizazioa lortzea da, hala adierazten baitute azken lau hamarkadetako legediak eta plangintzek, eta hala ziurtatzen baitute elkarrizketatutako adituek, lehen hipotesia berretsiz. Gainera, hainbat ezaugarri ditu Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak. Batetik, gatazka ekiditen du, euskara suspertzeko ahaleginak EAEko gizarte osoaren kohesioa zaintzearekin uztartzen saiatu delako. Horri lotuta, borondatezotasuna sustatzen du, eta progresiboa da, hau da, neurriak tentuz eta pixkanaka ezarri dira. Horrek izan dituen ondorio soziolinguistikoak positiboak izan badira ere, hizkuntza-politikaren eraginkortasuna, emaitzei erreparatuz gero, jarraia baina geldoa izan da. Bestetik, izaera posibilista du, gizarte-aldarrikapenen atzetik joan delako hizkuntza-politika. Gainera, ikuspegi ez-integrala dauka, ez diolako hizkuntza-politikari eduki beharko lukeen izaera transbertsala aitortzen.
- Eusko Jaurlaritzarentzat hedabideak garrantzitsuak dira euskararen normalizazioa lortzeko, nahiz eta hedabideen bidez euskara sustatzeari baino garrantzia handiagoa eman dion hezkuntzari, adibidez. Bigarren hipotesia berretsi daiteke horrela, Eusko Jaurlaritzak hedabideak gako kontsideratzen dituelako euskara normalizatzerako orduan, eta hedabideekiko hizkuntza-politika bi modutan gauzatu du. Batetik, EITB sortu eta garatu du: hizkuntza-politikako aurrekontuko diru-hornikuntza handiena bideratzen zaio. Hala ere, hedabide publiko multzo horren funtzioa desitxuratu dela deritzote hainbat adituk, gaztelaniari garrantzia handiagoa ematen zaiolako, euskarari baino. Bestetik, herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuei dirulaguntzak ematen dizkie Eusko Jaurlaritzak: euskara sustatzeko eragile sozialei emandako dirulaguntzen artean euskarazko hedabideak dira diru-hornikuntza handiena daukatenak.
- EITBren helburuetako bat euskararen normalizazioa eskuratzea da teorian, eta hirugarren hipotesia baieztatu daiteke horrela. Izan ere, EITBrentzat estrategikoa da euskara sustatzea, eta hori izan zen EITB sortzearen arrazoietakoa bat, informazioa eskaintzea eta Espainiar Estatuko eragin mediatikoa murriztearekin batera. Hala ere, praktikan, gaztelerazko edukiei eman die lehentasuna, audientzia lortzeko helburuarekin, besteak beste. Izan ere, euskararen normalizazioa erdiesteko bitarteko moduan ulertu ordez, Espainiar Estatuko eragin mediatikoaren aurrean EAEko informazioa eskaintzeko hedabide lehiakor bat izateko apustu nagusia egin du EITBk. Horregatik, gaztelerazko programazioa bultzatzen du.
- Herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuengan Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika dirulaguntzak ematera mugatu da. Hedabide horiek dirulaguntzen

menpekotasun handia dute aurrera jarraitzeko, eta horregatik, laguntzen deialdien baldintzak bete behar izateak harreman estuak edo liskartsuak bultzatu ditu hedabideen eta gobernuaren artean, kasuan kasu. Beraz, laugarren hipotesia baieztatu daiteke ondorio horren bidez.

- Hedabideen arloan Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikak herritarren hizkuntza-ohiturengan izan duen eragina ezagutzea oso zaila da, ez delako horren inguruko ikerketa sistematikorik egin: beste ikerketa baterako bidea zabaltzen du horrek. Hala ere, azken lau hamarkadetako bilakaera soziolinguistikoak adierazten du EAEko herritarren euskararen ezagutzan eta erabileran eragin positiboa izan duela, baina oso txikia eta nahiko geldo burutu dela, azken hipotesia baieztatuz.

Zalantzarik gabe, asko dago egiteko oraindik hedabideen arloan Euskal Herrian. Argi dago gakoa direla euskal gizartean geure hizkuntza hedatzeko eta normalizatzeko, baina ez edozein preziotan: kalitatezko edukia, euskaratik euskarara (edo euskalduntzera) doana izan behar du. Baina hori nire balorazio pertsonala da.

Ikerketari dagokionean, ateratako ondorio nagusiek planteatutako hipotesiak baieztatzen dituzte, eta lanak barne koherentzia daukala esan daiteke. Izan ere, marko teorikoa osatzearen bidez ateratako hipotesiak analisia burutzeko ardatzak izan dira, eta analisia burutzean ateratako ondorioek baieztatu egiten dituzte hipotesiak. Beraz, ikerketa lan honek daukan barne koherentziak zientziari egiten dion ekarpena ziurtatzen du.

Gainera, ikerketa lerro berriak zabaldu dira ikerlan honen bidez. Niri, behintzat, lau ikerketa lerro berri otu zaizkit:

- Eusko Jaurlaritzaren hedabideekiko hizkuntza-politikak EAEko herritarren hizkuntza-ohiturengan izan duen eraginaren azterketa sistematikoa egiteke dago. Horregatik, ikerketa honen bosgarren helburu espezifikoa gehiago garatzeko bidea zabalik geratzen da.
- Ikerketa honetan hedabideez mintzatzean telebistan, irratian eta prentsan zentratu gara. Hala ere, informazio- eta komunikazio-teknologiek bide berriak zabaldu dizkio hedabideen munduari, eta ondorioz, Interneteko atari, web, plataforma, blog eta bestelako hedabide desberdinek euskararen normalizazioan egin dezaketen lanaren analisia oso interesgarria izan daiteke beste ikerketa bat burutzeko.
- Eusko Jaurlaritzak euskalgintzako eragile desberdinekin (herri ekimeneko euskarazko hedabideak barne) izan duen harremanaren bilakaera ere aztertu liteke, eta azken urteetan harreman horretan izan diren aldaketak izan ditzake hizpide ikerketa lerro berri horrek.

- Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Hirigune Elkargoak euskarazko hedabideen sustapenean izan dezaketen lankidetzarako aukerak esploratu ditzake beste ikerketa batek, hiru administrazioen arteko koordinazioa burutzeko dauden bideak aztertuz, eta euskal esparru komunikatiboaren baitan izango lukeen eraginaren analisia burutuz.

8. Bibliografia

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1979). Espainiako Aldizkari Ofiziala.

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arautzeko oinarrizkoa (1982). Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala.

Ariztondo, Josune (1996): "Euskararen normalizazio bidean urrats berriak", *Soziolinguistika aldizkaria*, 20-21. zenbakia, 31-40 orrialdeak.

Bustelo, María (2014): "Evaluación de políticas públicas con perspectiva de género", Marta Lois eta Alba Alonso (konp.) *Ciencia política con perspectiva de género*. Madrid: Akal.

EITB (2007): *Ebaluazio txostena. Plan estrategikoa 2013-2016*.

Espainiako Konstituzioa (1978). Espainiako Aldizkari Ofiziala.

Eusko Jaurlaritza (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999-2009)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza (2009): *Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Fernandez, Antoni (1996): "Políticas públicas", Miquel Caminal eta Xavier Torrens (konp.) *Manual de Ciencia Política*. Madrid: Tecnos. (713-738).

Hernández Sampieri, Roberto; et al. (2006): *Metodología de la investigación*, Mexiko: McGraw-Hill.

Johnson, Davis Cassels (2013): *Language policy*, Houndmills (Erresuma Batua): Palgrave Macmillan.

Juaristi, Patxi (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Larrinaga, Asier (2019): *Euskararen normalizazioa: Ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Larrinaga, Elixabete (2018): *Dirulaguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa*. Doktore-tesia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Linares, María Dolores (2014): "Transversalidad y políticas públicas", *Economía Española y Protección Social*, VI, 273-305.

López, Silvia; Peterson, Elin; eta Platero, Raquel (2014): "Políticas públicas", Marta Lois eta Alba Alonso (konp.) *Ciencia política con perspectiva de género*. Madrid: Akal.

9. Eranskinak

9. 1. Fitxa teknikoak

1979tik gaur egunera arte Euskal Autonomia Erkidegoan hedabideekiko inplementatu duten hizkuntza-politika aztertzeko, bost sakoneko elkarrizketa burutu ditut. Elkarrizketatuak aztertutako gaian adituak dira, hizkuntza-politikarekin eta soziolinguistikarekin lotutako ikerketak burutu baitituzte, besteak beste. Covid-19ak eragindako salbuespenezko egoerak baldintzatu ditu elkarrizketak, eta aurrez aurre egin beharrean, telefonoz eta posta elektroniko bidez gauzatu ditut. Beste sakoneko elkarrizketa batzuetan elkarrizketatuak profil estrukturalen arabera aukeratzen diren arren, ez da kasua: euren jakintza eta ezagutza izan dira aukeraketan baloratu diren irizpideak. Ondorioz, ez da adierazgarria bere sexua, adina eta bizilekua zeintzuk diren adieraztea. Gainera, elkarrizketak ez direnez aurrez aurre egin, ez dago non eta noiz egin diren zehaztu beharrik.

9. 1. 1. Iñaki Iurrebaso

Elkarrizketa egiteko modua: telefonoz.

Iraupena: 40 minutu.

Bere ikerketa eta lan eremua:

Soziologoa eta UPV/EHUko irakaslea da, eta soziolinguistikan aditua da. Ikerlari gonbidatua izan da Kataluniako Soziolinguistikako eta Komunikazioko Ikerketa Zentroan (CSUC).

9. 1. 2. Elixabete Larrinaga

Elkarrizketa egiteko modua: posta elektronikoz.

Bere ikerketa eta lan eremua:

UPV/EHUko irakaslea da Ikusentzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean. 2018an aurkeztu zuen bere doktore tesia: *dirulaguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa*.

9. 1. 3. Iñaki Martínez de Luna

Elkarrizketa egiteko modua: posta elektronikoz.

Bere ikerketa eta lan eremua:

UPV/EHUko irakasle ohia da, hizkuntzaren soziologian aditua, bereziki hizkuntza gutxituen soziolinguistikan. Auñamendi Eusko Entziklopediako zuzendaria izan da, Soziolinguistika Klusterreko presidentea eta HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko zuzendaria. Eusko Ikaskuntzako kidea ere bada.

9. 1. 4. Beñat Garaio

Elkarrizketa egiteko modua: posta elektronikoz.

Bere ikerketa eta lan eremua:

Londreseko SOAS unibertsitatean 'Hizkuntza Gutxituen Sostengua eta Biziberritzea' masterra egin zuen, eta ondoren HIZNET graduondokoa. 2019an urte erdiko egonaldia egin zuen Vic-eko unibertsitatean (Katalunia). Euskalgintzan aritua da (EuskarAbentura eta e5 egitasmoan, adibidez), baita hizkuntza gutxituekin (Hitz Adina Mintzo, HIGA, Garabide,...) ere. Egun, doktoretza tesia egiten ari da.

9. 1. 5. Xabier Erize

Elkarrizketa egiteko modua: posta elektronikoz.

Bere ikerketa eta lan eremua:

Filologoa, soziolinguista, historialaria eta kudeatzailea da. *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza: Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)* doktore-tesia aurkeztu zuen 1997an, eta New Jerseyko Seton Hall Unibertsitatean doktorego ondokoa burutu zuen 1998-1999an. Joshua Fishman soziolinguistaren artikuluen bilduma argitaratu zuen katalanez (2001), eta UPV/EHUK ematen duen Hiznet hizkuntza-plangintzako graduondokoaren irakaslea da. 2004tik 2011ra Nafarroako Kutzaren Hizkuntza Garapen nahiz Gizarte Erantzukizun arloen sortzaile eta zuzendaria izan zen. Kudeaketa eta hizkuntza-plangintza elkartzeko proposamenak lantzen dihardu, eta 2016an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

9. 2. Gidoia

Sarrera

- Aurkezpena
- Gradu Amaierako Lanaren inguruko azalpenak: helburuen azalpena eta sakoneko elkarrizketa egiteko arrazoiak (justifikazio metodologikoa).
- Erantzunen anonimotasunaren bermea.
- Elkarrizketa grabatzeko baimena.

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).
- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza-politika?
- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituen zutabe nagusiak?
- Helburu horiei jarraiki, zein izan da Eusko Jaurlaritzak jarraitu duen estrategia hizkuntza-politikaren inplementazioari dagokionez?
- Nolako eboluzioa izan du hizkuntza-politikak 1979tik gaur egunera arte helburuei eta inplementazioari dagokionean? Aldaketak izan dira ala berdin mantendu da?
- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazterako garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

- Zer nolako harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin hizkuntza-politika aurrera eramaterako garaian? Koordinaziorik izan da?

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein izan da Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politika? Zeintzuk dira helburuak?
- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?
- Hizkuntza-politika osoaren baitan hedabideek garrantzia dute Eusko Jaurlaritzarentzat? Bai juridikoki, bai politikoki, bai ekonomikoki (aurrekontuak).
- Zein oinarri juridiko du hedabideekiko hizkuntza-politikak?
- Inplementazioak zer nolako bilakaera izan du aplikatzen hasi zirenetik gaur arte?
- Markatutako helburuak zein neurritan inplementatu dira?
- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabideekin helburuak eta inplementazioa erabakitzerako garaian? Koordinazioa egon da?
- Zein hedabide lehenetsi dituzte? Zeinetan jarri dute fokoa gehien: telebistan, irratan, prentsan ala interneten? Publikoak edo pribatuak?
- Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin koordinatu dira hedabideekiko hizkuntza-politika erabakitzerako orduan?

3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

- Zergatik eta zein helbururekin sortu zuen Eusko Jaurlaritzak EITB?
- Hizkuntza-politikaren baitan, zein rol esleitu dio Eusko Jaurlaritzak EITBri?
- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatzen zaio EITBri? Era berezi batean edo gainerako hedabideei bezala? Denboran zehar aplikazio hori aldatu da?
- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak zer nolako eragina dauka EITBren hizkuntza-ereduan eta hizkuntza-politika propioan?
- EITBren hizkuntza-eredua nolakoa da, eta zein garapen izan du bere ibilbide osoan?
- EITB euskaraz bakarrik, ala gazteleraz ere bai?

4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu da herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuekiko?
- Nola funtzionatzen du hedabideei dirulaguntzak emateko prozedurak?
- Zein rol esleitu die Eusko Jaurlaritzak hedabide horiei? Denboran aldatu da?

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko?
- Nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabide horiekin? Koordinazioa eta lankidetzak egon dira, ala aurkakoa?

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko inplementatu duen hizkuntza-politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?
- Planteatutako helburuak bete ditu?
- Ados zaude hedabideekiko Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikarekin?
- Zein neurri edo zein politika publiko inplementatu beharko lirateke aurrerantzean?
- Zeintzuk dira hedabideekiko hizkuntza-politikaren erronka nagusiak EAEn?

9. 3. Elkarrizketak

Atal metodologikoan azaldu moduan, adituek ez dute arazorik izan elkarrizketatuak izan direla publikoki adierazteko (horregatik daude fitxa teknikoak), baina anonimotasuna beste modu batean mantendu nahi izan dute gehienek: euren ekarpenak anonimoak izatea eskatu dute. Hortaz, jarraian elkarrizketak idatziz adieraziko dira, baina ez da esango zein aditurena den bakoitza. A elkarrizketa, B elkarrizketa, C elkarrizketa, D elkarrizketa eta E elkarrizketa moduan adieraziko dira, eta ordena ez dator bat fitxa teknikoenarekin.

9. 3. 1. A elkarrizketa

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).

Hizkuntza-testuinguru batean eragiteko martxan jartzen diren erabaki eta baliabideen multzoa da hizkuntza-politika. Gurean, euskara biziberritzeko helburua duten erabaki eta baliabideen multzoa litzateke.

- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza-politika?

Lehen Eusko Jaurlaritzak osatu zenetik 11 legegintzaldi joan dira eta zaila, oso zaila da denbora horretan guztian egikaritu den hizkuntza-politika (ala hizkuntza-politikak esan beharko nuke?) definitzea. Edozein kasutan, eta oso modu orokorrean bada ere, beti bi faktoreri lotutako eta egokitutako politika izan da: batetik, hizkuntzaren (euskararen) unean

uneko egoerari/errealitateari, eta bestetik, hizkuntza-politikaren kudeaketaz arduratu den Sailak (gehienetan Kultura Saila) eskuragarri izan dituen baliabideen (bereziki baliabide ekonomikoen) tamainari lotua/egokitutakoa izan da.

- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituzten zutabe nagusiak?

Helburuak, logikoa denez, aldatuz joan dira denborarekin. Hasierakoa, lehenbizikoa, euskarari lege babesa eskaintzea izan zen; hala, 1979ko Estatutuak euskararen ofizialtasuna ezarri ondoren ekin zioten Euskararen Erabilera Arautzeko Legea garatzeari. Lehen Jaurlaritza hartako Hezkuntza sailburu izan zen Pedro Miguel Etxenik, honela laburtu zuen xedea: "(...) Eusko Jaurlaritza 1980an berrantolatu genuenok gure hizkuntzari legena oinarritutako aterpe egokia eman nahi izan genion, eta horixe hartu zuen helburutzat, besteak beste gure gobernu sortu berriak: urteetan baztertuta izan zen hizkuntzari ofizialtasuna eman nahi izan genion, eta berdintasunezko aukera" (Baztarrika, 2009:13).

Euskararen Legeak hizkuntza-politika sustatzaileak garatzeko bidea zabaldu zuen; hau da, funtsezko oinarria ezarri zuen euskal gizartean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko erabakiak taxutzeko. Horixe izan baita beti helburu nagusia: euskararen sustapena eta biziberritzea eremu guztietan. Helburua elikatzeko hiru zutabe nagusi baliatu dira denboran zehar: lege babesa, hizkuntza-plangintzak (ez baita gauza bera hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza) eta herritarren atxikimendua.

- Helburu horiei jarraiki, zein izan da Eusko Jaurlaritzak jarraitu duen estrategia hizkuntza-politikaren inplementazioari dagokionez?

Lehenbizi kontu bat argitu: galderan "Helburu horiei" diozu eta nik aurrekoan bakarra aipatu dizut (sustapena eta biziberritzea).

Ez dakit zure galdera ondo ulertu dudan baina banoa. Estrategia bikoitza izan da: progresibotasuna* + ahalik eta adostasun politiko-sozial zabalena. Izan ere, 1979tik izan diren legegintzaldietan hamaika koloretako koalizio-gobernu izan dira Euskadin eta sarritan gehiengo eta gutxiengoaren arteko harremanek baldintzatu dituzte edozein eremutan (baita hizkuntzarenean ere) garatu diren politikak.

Progresibotasuna*: atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia (norentzat?) lotzen dituen printzipio gisa ulertuta

- Nolako eboluzioa izan du hizkuntza-politikak 1979tik gau egun arte helburuei eta inplementazioari dagokionean? Aldaketak izan dira ala berdinditu mantendu da?

Eboluzioa izan da noski, 1979ko euskal gizarteak ez duela zerikusirik egungoarekin. Beste horrenbeste gertatzen da euskararen egoerarekin. Hortaz, aurreko erantzunari erreparatuta adierazi daiteke helburu nagusia (euskararen sustapena eta biziberritzea) mamiz betetzeko zehaztu diren helburu zehatzagoak eta horiek inplementatzeko erabili

diren bideak eta baliabideak, euskal gizarteak denboran zehar izan duen bilakaerari lotu zaizkiola (euskal gizartea bere dimentsio guztietan ulertuta: ekonomikoa, politikoa, kulturala, teknologikoa...)

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazteko garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

Sarritan esan izan da Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren nondik norakoak erabakitzeke arduraz zutenak bulegoan zeudela eta euskalgintzako kideak berriz, pankartaren atzean. Eta bien artean ez zegoela zubirik. Neurri batean hala izan da baina ez bere osotasunean. Izan ere, Jaurlaritzak aspaldi sortu zituen euskalgintzaren iritzia eta aldarrikapenak jasotzeko tresnak; horien artean dago esaterako, Euskararen Aholku Batzordea (1982an eratua). Beste kontu bat litzateke tresna horiek zein neurritan izan diren eraginkorrak.

Eragile bien arteko harremanak gorabehera ugari izan ditu denboran zehar, baina esan daiteke funtzionamendua honakoa izan dela: Jaurlaritzak rol bikoitza hartu du: erabakihartzaile rola eta euskararen sustapenerako dirulaguntzen emaile eta euskalgintzari ere rol bikoitza esleitu Jaurlaritzak hartutako erabakiak edukiz betetzeko rola (gustukoak izan ala ez, adostutakoak izan ala ez) ea dirulaguntzen eskatzaile eta jasotzaile. EAJ/PNV Ajuria Eneatik kanporatu zuten legegintzaldian ere (2009-2012) beste horrenbeste gertatu zen, eta kontrakoa zirudien arren, hizkuntza-politikak aldaketa gutxi izan zituen aurreko epearekin alderatuta.

Dena den, hemerrotekari erreparatuta gutxienez, ematen du aldaketaren bat gertatu dela XI. legegintzaldian (2016tik aurrera). Eusko Jaurlaritzak eta euskalgintzak modu koordinatuan ekiteko eta zubiak eraikiz elkarlanean oinarrituta aritzeko ahalegina egin dutela dirudi. Denborak erakutsiko du ahaleginak irauten duen eta euskararen bilakaerari begiratuta zein tamainako ondorioak dakartzan.

- Zer nolako harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin hizkuntza-politika aurrera eramateko garaian? Koordinaziorik izan da?

Koordinazioa eskatzea ia miraria eskatzea da. Izan ere, administratiboki ezberdinak diren lurraldeei buruz ari gara; hots, marko juridiko-politiko-administratibo ezberdinetan ezarritako lege, dekretu eta arauen arabera funtzionatzen duten lurraldeak dira. Hori guzti ez eta gainera bi Estatutan daude kokatuta. Hori gutxi ez, eta gainera, euskarari dagokionez, hizkuntza-errealitate ezberdinak dituztenak. Hortaz, koordinazioa hasieran esan bezala, zeregin zaila da, ezinezkoa ez esatearren. Nafarroan esaterako koordinazioa ezinezkoa izan

da bertako gobernua, eta horren barne, hizkuntza-politika, UPN alderdiaren esku egon den bitartean.

Edozein kasutan, azpimarratzekoa da XI. legegintzaldiaren hasieran EAeko hizkuntza-politikaren nondik norakoak gidatzekoa ardura hartu zuen Bingen Zupiria sailburuak hiru lurraldeen arteko koordinazioa areagotzea ezarri zuela erronka gisa. Eta aipatu erronka gauzatzea posible izan zen Nafarroan euskararekin beste jarrera eta sentiberatasun bat zuen gobernua gailendu zenean (2015-2019 bitartean: Geroa Bai + EH Bildu + Podemos + Izquierda-Ezkerra). Hala, lankidetzaituna sinatu zuten urtero 2017tik Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Ikusteko dago Nafarroan gobernu-aldaketa izan ondoren ituna berretsiko duten.

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein izan da Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politika. Zeintzuk dira helburuak?

Bi ardatzetan oinarritutako jokabidea izan du: batetik, hedabide publikoak sortu ditu (EITB) eta bestetik, euskararen esparru geografiko osoan (EAE+Nafarroa+Iparraldea) ekimen pribatutik sortutako euskara hutsezko hedabideak diruz lagundu ditu (ez bakarrik euskara hutsezkoak, zenbait urtetan gaztelaniazko ere dirulaguntzak eskaini dizkielako euskarazko edukiak prestatu eta zabaldu ditzaten).

Helburuak denboran zehar aldatuz joan dira: hasieran, dena egiteko zegoenean, euskararen sustapen eta zabalkunderako lagungarri izan zitezkeen hedabideak sortzeko zereginari ekin zion; eta argi eta garbi ikus-entzunezkoen aldeko apustua egin zuen Jaurlaritzak (EITB). Bestalde, herri ekimeneko edo ekimen pribatuko hedabideei dagokienez diruz laguntzen hasi zen. Lehenbizi, era diskrezional batean, eta 1984tik aurrera, EHAA argitaratutako agindu bidez. Deialdien helburuak, aurretik adierazi bezala, formulazio ezberdinak izan ditu denboran zehar, baina esaldi bakar batean laburtu beharko balitz honakoa litzateke: euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu.

- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?

Teorian behintzat, euskararen sustapen eta biziberritze prozesurako tresnarik eraginkorrenetakotzat jo ditu. Hala ondorioztatu beharko genuke Euskararen Legean (1982), Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (1998) eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (2012) hedabideei eskaintzen zaien atal berezian jasota dagoenaren arabera:

- Hedabideak 10/1982 Legean (Euskararen Legea): hirugarren kapituluko lau artikulutan dago araututa hedabideen arloa. Bertan, herritarrei informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzeaz gain, Jaurlaritzaren ardurak eta eginbeharrekoak zehazten dira. -

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN): euskara elikatzeko zeregin esleitzen zaie hedabideei, eta honakoa dio: “Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini”(Eusko Jaurlaritza, 1999: 58-59). - Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP): estrategikotzat jotzen ditu hedabideak euskararen normalizazioaren bidean, “(...) haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko, eta, aldi berean, hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak proiektatzeko” (Eusko Jaurlaritza, 2012: 38).

- Hizkuntza-politika osoaren baitan hedabideek garrantzia dute Eusko Jaurlaritzarentzat? Bai juridikoki, bai politikoki, bai ekonomikoki (aurrekontuak).

Galdera honen erantzuna, neurri handi batean, aurrekoari emandakoan dago. Jaurlaritzak hizkuntza-politika egikaritzeko landu eta onartu dituen hainbat Lege eta testu normatibotan jaso du hedabideei esleitzen zaien rola eta horren garrantzia. Politikoki beste horrenbeste esango nuke. Eta ikuspegi ekonomiko batetik aztertuta ere, datuak adierazgarriak dira.

Urteroko aurrekontuetan hizkuntza-politikaren ardura izan duen sailaren partidarik handiena EiTbra bideratu da (bataezbeste 10 eurotik 6). Horren ondoren, HABE izan da onuradun nagusia eta gero ekimen pribatuko euskarazko hedabideak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabilgarri duen aurrekontu osoaren %10 erabili du gutxi gora behera euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko. Euskara sustatzeko urtero kaleratzen dituen dirulaguntza deialdi guztien artean (LanHitz, euskalgintza, IKT...) hedabideentzako izan da beti diru hornikuntzatik handiena izan duena. Beste kontu bat da Eusko Jaurlaritzak urtero kudeatzen duen aurrekontutik euskarara bideratutakoa nahiko den ala ez; eta horren barne, herri ekimeneko edo ekimen pribatuko hedabideei esleitutakoa beharko litzatekeena den ala ez. Baina hori ez didazu galdetu eta datu objektiboak aurretik zehaztutakoak dira.

- Zein oinarri juridiko du hedabideekiko hizkuntza-politikak?

Esango nuke 2.2. galderan duzula honen erantzuna. Hor aurkeztzen diren hiru oinarri juridikoei (Euskararen Legea, EBPN eta ESEP, hirurak Eusko Legebiltzarrak onartuak) beste batzuk batzen zaizkie: legegintzaldi bakoitzaren hasieran osatutako Gobernu bakoitzak aurkeztu behar dituen programak + Jaurlaritzako sail bakoitzarenak (kasu honetan hizkuntza-politikaren ardura duen sailarenak) eta urteroko dirulaguntza deialdiak.

Dena den, galdera gaizki ulertu badut esatea baino ez duzu.

- Inplementazioak zer nolako bilakaera izan du aplikatzen hasi zirenetik gaur arte?

Ulertzen dut aurreko galderan aipatutako oinarri juridikoen inplementazioz ari zarela.

Zaila da horiek izan duen bilakaera laburbiltzea; esan nahi dut bertan jasotako helburuak eta edukiak zein neurritan asebate diren, eta zein neurritan ez. Botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusi daiteke. Argi dago bilakaera argilunak izan direla, baina horiek aintzat hartuta, euskarak 1979an zuen egoera eta egun duenaren artean aldea dagoela, onerako aldea. Jauzia kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da, eta bi eratako eragileen ekimenari eta lanari esker gauzatu da: gizarte-eragileak, batetik, eta eragile publikoak, bestetik. Eta eragile publikoen esku egon da hizkuntza-politikari oinarri juridikoak ematea. Zeregina egin egin dute. Zein neurritan eta zein eraginkortasunarekin? berriro itzuliko ginateke erdi beteta/erdi hutsik dagoen botilaren irudi eta eztabaidara.

- Markatutako helburuak zein neurritan inplementatu dira?

Aurreko galdera erantzuteko zaila iruditzen bazait, hau are zailagoa da. Esango nuke “segun eta”. Hau da ekimen pribatuko euskara hutsezko hedabideak diruz laguntzeko helburua kontuan hartzen badugu, baieztatu daiteke helburua %100ean bete dela Jaurlaritzak urtero urtero, inoiz huts egin gabe kaleratu dituelako laguntza deialdiak. Baina helburua euskara hutsezko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu dela pentsatzen badugu, %100etik urrun gaudela gehituko nuke. Beste adibide bat: Euskararen Legearen 24. artikuluan honakoa dago jasota:” Jaurlaritzak hizkuntza-normalizazioa bultzatuko du Espainiako Irrati Telebistaren emanaldi- zentroetan, euskarak, Euskal Herriko hizkuntza propioa denez, behar duen presentzia izan dezan”. Kasu honetan zein neurritan inplementatu da Jaurlaritzak lege maila duen testu horretan jasota dagoen helburua/eginbeharra?

Hortaz, halako egoera aniztasunetik datorrit galderari erantzuteko zailtasuna (ezintasuna?)

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabideekin helburuak eta inplementazioa erabakitzerako garaian? Koordinazioa egon da?

Hedabide publikoak (EITB): hainbat dokumentutan daude jasota helburuak, horiek inplementatzeko organoak, araubideak.... (<https://www.eitb.eus/eu/eitb-taldea/gardentasuna/>) Kasu honetan Eusko Legebiltzarrak izendatzen du zuzendari nagusia eta horrek, behar denean, berak eskatuta ala alderdiek eskatuta/behartuta azalpenak ematen ditu.

Herri-ekimeneko edo ekimen pribatuko hedabideen kasuan aldaketa izan da denboran zehar. Hainbat urtetan hedabide bakoitzak bere harreman bideak bilatu eta garatzen zituen Jaurlaritzarekin. Egoera horrek aldaketa nabarmena izan zuen XXI. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran. Berrikuntza, berregituratze eta hausnarketa prozesu sakon batean murgildu ondoren, 2012an Tokikom bateragunea eta Hekimen elkarteak sortu zituzten. Biak erakundeen aurrean solaskidetza sendoa eraikitzeke tresnak dira. Edozein kasutan,

aldaketa esanguratsua XI. legegintzaldian gauzatu zen. Hamarkadetan bat etorri ezinda ibili ondoren, publikoak ez diren euskara hutsezko hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana batzuen eta besteen arreko lankidetzan eta elkarrekiko aitortzan oinarrituko da (baita helburuak, laguntzen esleipen irizpideak eta abarrak zehazteko orduan ere).

- Zein hedabide lehenetsi dituzte? Zeinetan jarri dute fokoa gehien: telebistan, irratan, prentsan ala Interneten? Publikoak edo pribatuak?

Zalantzarik gabe publikoa (EITB) lehenetsi da. Baieztapenaren erakusgarri da EITBren bideratutako diru baliabideen tamaina.

Pribatuen kasuan, argi eta garbi, inprimatuak lehenetsi dira beti. Egoera logikoa da kontuan hartzen bada kuantitatiboki multzorik zabalena osatu dutela beti. Dena den, azken urteetan, bereziki 2013-2014tik aurrera, hasiz joan da beste era bateko euskarrietan (bereziki digitaletan) ari diren euskara hutsezkoen multzoa (zenbait kasutan bakarrik euskarri digitaletan eta beste batzuetan biak konbinatuz) eta bilakaera horrek isla izan du dirulaguntza deialdietan: laguntza jasotzeko eskaera egiten duten Internet bidezko euskara hutsezko hedabideak gero eta gehiago dira.

- Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin koordinatu dira hedabideekiko hizkuntza-politika erabakitzerako orduan?

Ez. Eta arrazoia da bi lurralde horietako gobernuek ez dituztela euskara hutsezko hedabideak aintzat hartu. Eusko Jaurlaritzak izan da, Nafarroako eta Iparraldeko euskara hutsezko hedabideak diruz lagundu dituen erakundea. Nafarroaren kasuan, Uxue Barkos presidente izan zen bitartean, Foru Erkidegoan zabaltzen ziren euskarazkoek bertako gobernuak esleitutako laguntza jaso zuten (Jaurlaritzak esleitzen ziena baino txikiagoa).

3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

- Zergatik eta zein helbururekin sortu zuen Eusko Jaurlaritzak EITB?

Galdera bikoitzaren erantzuna 5/1982 Legean jasota dago; zehatzago esateko, EITB sortzeko Legearen atarikoan.

Autonomia Estatutua onartu bezain laster, Eusko Jaurlaritzak bertan jasotakoa gauzatzeari egin zion. Estatutuaren 19. artikulua honakoa dio: "Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak". Hortaz, Jaurlaritzak Estatutuan ezarritako kompetentzia bat gauzatu zuen EITBren sorrerarekin.

Zertarako? Hau ere Legean dago.

Gizarte-adierazpideak: hedabideak. Testuaren arabera, EITBri ondoko zereginak ezartzen zaizkio: argipide eta politikan parte hartzeko tresna izan (gaztelaniako itzulpenean:

instrumento para la información y participación política) eta hezkuntzarako eta euskal kulturaren (bereziki euskararen) sustapen eta zabalkunderako lankidetzatresna izan.

- Hizkuntza-politikaren baitan, zein rol esleitu dio Eusko Jaurlaritzak EITBri?

Eusko Jaurlaritzak urtero kudeatu dituen aurrekontu orokorren memorian agertzen da EITBri esleitutako rola. Aurpegi anitzekoa dela esan dezakegu: batetik, zerbitzu-enpresa moduan funtzionatzen du eta bestetik, horrekin batera gaineratzen da helburutzat duela Euskal Autonomia Erkidegoan duen erreferentziazko tokia sendotzea eta euskal herritarren esku jartzea informazio eta zuzeneko partaidetza zerbitzua, hezkuntza- sistemari laguntzeko eta euskal kulturaren eta euskararen zabalkundeak sendotzeko.

Laburrago adierazteko, hizkuntza-politika egingarria eta eraginkorra gauzatzeko orduan, funtsezko zeregina esleitzen dio EITBri.

2017-2020 aldirako EITBren lerro estrategikoak jasotzen dituen dokumentuak berriz 10 eginkizun ezartzen dizkio eta horien artean bigarrenak hauxe dio: "Euskara sustatzea gero eta elebidunagoa den gizarte batean; hala, euskararen normalizazioa, prestigioa eta bizitza publikoan duen presentzia bultzatuko dira, eta EITB euskararen erabilera errazteko eta hedatzeko ezinbesteko tresna bihurtuko da". (hamarrak ikusi nahi izan ezker, hementxe dituzu Mikel (merezi du horiek gainbegiratzea):

https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/Lerro_Estrategikoak_EITB_2017_2020_EUSK_.pdf

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatzen zaio EITBri? Era berezi batean edo gainerako hedabideei bezala? Denboran zehar aplikazio hori aldatu da?

EITBri ez zaio Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika era Berezi batean aplikatzen. EITB Jaurlaritzak hizkuntza-politika egikaritzeko tresna/baliabidea da, beste askorekin batera (adibidez, beste hedabideekin batera) hizkuntzaren sustapenean ekarpena egiten duena. Baina guztion poltsikoetako diruarekin ordainduta dagoen zerbitzu publikoa izanik, nahiz eta inon idatzita ez dagoen, suposatzen da kudeaketa eredugarria behar duela izan eta era zorrotzago batean neurtu/jarraitu/ebalatu beharko litzatekeela esleitura duen zeregina betetzen ote duen eta zein neurritan egiten duen. Denboran zehar ez da aldaketarik izan kontu honi dagokionez.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak zer nolako eragina dauka EITBren hizkuntza-ereduan eta hizkuntza-politika propioan?

Teorian eta praktikan, EITBk bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikarekin; izan ere, aurreko galderan esan bezala, EITB politika hori egikaritzeko tresna da. Hortaz, eragina zuzena da.

Zerbitzu publikoaren hizkuntza-ereduari edo “hizkuntza-politika propioari” dagokionez, Jaurlaritzak ez du hizkuntza-eredurik ezartzen. Zeregin hori beste erakunde batzuei dagokie (Euskaltzaindia). Zentzu honetan, EiTbK bat egiten du Euskaltzaindiak emandako arau nagusiekin. Hori oso agerikoa da EiTbren estilo-liburuan irakurri daitekeen ondoko parrafoan: “Euskarazko kanaletan erabili beharreko eredua euskara estandarra da (euskara batua), Euskaltzaindiak araututakoarekin bat etorrita. EiTbko kazetariak, aurkezleak, gidariak, esatariak eta musika-animatzaileak euskara batuan jardungo dute, oro har”. (euskalkien lekua zein den ere zehazten da)

Horrez gain, aipatu estilo-liburuak biltzen du nolako tratamendua emango zaion/en hizkuntzari/ei. Adibidez, bertan jasotzen da EiTbko zuzendaritzak eta profesionalak hizkuntzaren kalitatea bermatuko dutela zerbitzu eta saio guztietan edota “Gaztelaniazko kanaletako kazetari, aurkezle, gidari eta esatariak ikusgai egingo dute euskara, modu naturalean. Ohikoa izango da agurrak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea. Egoki izango dira kolaboratzaileen euskarazko jardun puntual eta laburrak, baldin eta jardunaren testuinguruan zentzua badute eta ikus-entzuleak erraz uler baditzakete”.

Aurreko aipamen guztiekin adierazi nahi izan dut EiTbK bere hizkuntza-eredu propioa duela, Euskaltzaindiak onetsitako arau nagusiekin bat egiten duena, eta aldi berean, hainbat urtetako esperientziatik eta profesionalen ekarpenetatik elikatzen dena.

- EiTbren hizkuntza-eredua nolakoa da eta zein garapen izan du bere ibilbide osoan? Esango nuke galderaren lehen zatia aurreko galderan erantzun dudala. Garapenari dagokionez berriz, EiTbren hizkuntza-ereduaren ibilbidea eta euskal gizarteak hizkuntzaren arloan egin duena paraleloak izan dira. Neurri batean, elkar elikatuz joan diren ibilbideak izan dira. Portzentaje zehatzetan neurtzerik ez dagoen arren ukazina da EiTbK ekarpena egin duela euskarak jorratu duen aurrerabidean, eta bestetik, euskal gizarteak euskararen arloan egin duen aurrerabideak aldaketak behartu ditu EiTbren hizkuntza-ereduan. Adibide bat jartzearren: EiTben lehen urteetan kirol-emanaldietan edo eguraldiaren iragarpenetan esatariak erabiltzen zuten euskarak eta egungoetan erabiltzen dutenaren artean sekulako aldea dago, arlo horretako euskara eraikiz eta aberastuz joan da denborarekin, ikus-entzuleak euskarazko terminologia hori bereganatu dute. Eta kontrako norabideko eragina ere gertatu da: euskal gizartearen hainbat ezagutza-arlotan zein jarduera-eremutan (teknologian, matematika, medikuntzan, ekonomian, zuzenbidean...) euskarak egin duen aurrerabidea EiTbn islatu da (EiTbK bere egin du jarduera-eremu horietan euskaraz erabilitako terminologia eta bereganatzeaz gain zabaldu egiten du berriro gizartean).

- EITB euskaraz bakarrik, ala gaztelaniaz ere bai?

EiTBren hedadura-eremua elebiduna den bitartean bietara, zalantzarik gabe. Baina baieztapen hori egiteak ez du esan nahi %50 euskaraz izan behar denik eta %50 gaztelaniaz, edo egun kate bakoitzak dituen programazioa, baliabideak eta funtzionamendu-eredua izan behar dituenik. Arlo horietan EiTBk aldaketa sakona behar du du nire iritziz.

4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu da herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuekin?

Dirulaguntzen bidez. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu ditu denboran zehar.

- Nola funtzionatzen du hedabideei dirulaguntzak emateko prozedurak?

Uf. Luze joko luke prozedura azaltzeak. Oso era laburtuan bada ere: 1980-1984 urteen artean era diskrezionalean banatu ziren laguntzak: hau da, Eusko Jaurlaritzak diru partida bat ezarri eta garai hartan zeuden euskarazko hedabideen artean banatzen zuen (denak idatzizko inprimatuak). 1984tik 2015era, urte biak barne, agindu bidez egin zen prozesua, hau da, Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratu zuen euskarazko hedabideak (zenbait urtetan ez bakarrik euskara hutsezkoak) laguntzeko deialdiak. Horietan ezarritako dirua, onuradun izateko bete beharreko baldintzak, esleipenak egiteko irizpideak eta abarrak zehaztu ziren. 2016an publikoak ez diren euskara hutsezko hedabideek behin eta berriro egindako aldarrikapena gauzatu zen: deialdia urterokoa izan beharrean, urte anitzekoa izatea. Hala, 2026-2018rako kaleratu zen (deialdia XI. legegintzaldia hasi aurretik argitaratu zen). Azkenik, XI. legegintzaldiak beste aldaketa esanguratsu bat ekarri zion prozedurari (gutxienez 2019-2021 epealdian indarrean izango dena):

- Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek finantzaketa marko berri adostu zuten. Erakunde bakoitzak bere deialdia kaleratu beharrean (ordura arte egiten zen bezala), aurrerantzean Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da EAEn zabaltzen diren euskara hutsezko informazio orokorreko aldizkariak, aldizkari espezializatuak, tokiko irratiak, tokiko telebistak eta hedabide digital hutsak laguntzea. Tokiko aldizkariari bideratutako laguntza foru aldundien ardura izango da (baina hala izan arren, aldundiek zeregin horretarako jarritako partidaz gain, Jaurlaritzak diru kantitate bat bideratuko du aldundietara tokikoen artean banatu dezaten).

- Funtzionamendu-eredu horretatik kanpo geratuko da Berria. Izan ere, Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen egunkariarekin (horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 6.960.000 euro emango dizkio 2019-2021 epealdirako).

- Zein rol esleitu die Eusko Jaurlaritzak hedabide horiei? Denboran aldatu da?

Eusko Jaurlaritzak euskararen sustapenerako tresna eraginkortzat kontsideratu ditu herri ekimeneko euskara hutsezko hedabideak. Are gehiago, euskararen egoera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak bere 5. artikuluan herritarrei aitortzen dizkien funtsezko hizkuntza eskubideen artean dago informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea eta eskubide hori egikaritzeko eta bermatzeko funtsezko baliabidetzat jo ditu Jaurlaritzak euskarazko hedabideak. Rol hori ez da apenas aldatu denboran zehar.

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko? Osoa esango nuke. Agian ez naiz pertsonarik egokiena galdera honi erantzuteko, baina eskura dudan informazioan oinarrituta esan dezaket Eusko Jaurlaritzak ez duela hedabideen hizkuntza-politikan eragiten. Ala diru publikoaren onuradun izateko aginduetan baldintza eta betebeharrak ezartzea hedabideen hizkuntza-politikan eragitea da? Por ztierto: zer da hedabide baten hizkuntza-politika? Ba ote dago hizkuntza-politika ezberdinak bereizterik euskara hutsezko hedabideen artean?

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko? Bai, galdera hau eragiteko pertsona egokia naiz; zalantza barik. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta euskarazko hedabideen arteko harremana (1980-2016 bitartekoa) errepasatu eta aztertu nuen tesiaren zati handi batean.

Bat etorri ezinda nioen tesian. Sokatiran-ariketan murgilduta irudikatu nituen; bakoitza sokaren mutur batean kokatuta, biak sokari eusten, jakin badakitelako elkarren beharra dutela; baina aldi berean, norabide bakarrean bultzatuta egon beharrean, bakoitza alde banatan bereari tinko eutsiz. Hori gauzatu da laurogeiko hamarkadatik aurrera. Elkar elikatuz badakitelako elkarren beharra dutela; hizkuntza biziberritzeko zereginen; eta hedabideek Jaurlaritzaren beharra dute urteroko gastu-aurrekontuan izan dezaketenez zuloa estaltzeko eta jasotako laguntzarekin, ahal den neurrian, lan-baldintzak eta eskaintza hobetzeko.

Hedabideen eta Jaurlaritzaren arteko harremana, ez da konfiantza osoko giroan garatu eta hausturarik gertatu ez den arren, tentsio handiko uneak izan dira (adibidez, Euskaldunon Egunkaria sortu aurreko sasoiaren edo sortu ondorengo lehen 4 urteetan Euskaldunon Egunkariari ez zioten diru publikoa eskatzeko eta jasotzeko aukerarik eman).

Eusko Jaurlaritza eta herri ekimeneko euskarazko hedabideen arteko harremana eremu ekonomikora mugatu dela esan daiteke. Eusko Jaurlaritza, dirulaguntzen sustatzaile, kudeatzaile eta emaile rolean aritu da nagusiki; eta hedabideen sektorea, dirulaguntzen eskatzaile eta hartzailearen. Ez da diru-emaile diru-hartzaile logika gainditu duen lankidetzarik izan, ez da batzuen eta besteen ahalmenaren ahalmenaren eta kemenaren uztardurarik izan.

Egoera horrek, itxura batean behintzat, aldaketa izan du XI. legegintzaldian (2016tik aurrera). Batzuek eta besteek adierazitakoaren arabera, lankidetzan eta elkarrekiko aitortzan oinarritutako bideari ekin diote eta hedabideek eredugarritzat jo dute babes eredu berria.

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko inplementatu duen hizkuntza politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?

Zaila da galdera honi erantzutea, bereziki ez dagoelako eragin horri neurria (zenbakia) jarri dion ikerketarik. Ez da halakorik burutu gurean, ezta hizkuntza gutxituak eta horietan jarduten dute hedabideak dituzten mundu zabaleko beste komunitateetan ere. Hortaz, alde kualitatiboa landuta egin diren lanetan edota inpresio subjektiboan oinarritutako erantzuna eskaintzera behartuta nago.

Denboran zehar gaiaren inguruan ekoiztu diren lan akademiko gehientsuenek agerian utzi dute hizkuntza gutxituetan jarduten duten hedabideak izateak berebiziko garrantzia duela hizkuntza horrek jorratu dezakeen bidean. Iruditzen zait Jon Sarasuak ederti laburbildu zuela ideia Hiztunpolisa izenburuko gogoetan. Honelaxe zioen: “ Hedabideek duten pisu soziala nabarmena da. Ez dago argudiatu beharrik hizkuntza bat hedabideetan sendotzea gizartean sendotzea dela” (Sarasua, 2013: 311).

Gutziz bat nator Sarasuaren hitz horiekin. Hortaz, ziur nago euskara hutsezko hedabideak izateak eragin positiboa izan duela EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan. Eta hala gertatzeko, hau da, hedabideek ekarpena egin ahal izateko, lagungarria izan dute Eusko Jaurlaritzak eskainitako laguntza. Eztabaidatu daiteke laguntza nahikoa izan den ala ez, baina izan izan da, eta tesian erakutsi nuen moduan, euskara hutsezkoek onartu eta aitortzen dute laguntza hori gabe ezinezkoa izango litzaiekeela iritsi diren lekura eta egin duten ekarpena egitea.

- Planteatutako helburuak bete ditu?

Ai amigo. Hori da gaztelaniaz esaten den bezala “la pregunta del millón”. Ez dago jakiterik helburuak bete dituen ala ez. Eta ez dago jakiterik arrazoi nagusi bategatik: ez da egin euskara hutsezko hedabideak laguntzeko (diru publikoa erabiliz) martxan jarri diren ekimenen ebaluazio jarraitu eta sistematikorik.

Eusko Jaurlaritzak euskara hutsezko hedabideei (publikoa zein pribatuak) begiratuta hartu dituen erabakiak eta egikaritu dituen ekimenak politika publikoaren esparruan kokatu daitezke eta edozein politika publikok ezinbestekoa du ebaluazioa, Zergatik eta zertarako? ba administrazioak (kasu honetan Jaurlaritzak) inplementatzen dituen egitasmoei buruzko

informazioa bildu eta eskaintzeaz gain, gardentasuna bermatzeko, jarduera publikoa legitimatzeko eta beharrezkoa balitz, aurrera begira erabakiak hartzeko balio duelako.

Eusko Jaurlaritzak diru publikoz lagundu/laguntzen ditu euskara hutsezko hedabideak, eta hala egin du helburu batekin: hedabidek sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu. Zertarako? Hizkuntzaren biziberritzean lagundu dezaten. Baina ez da eskainitako diru publikoarekin ustez lortu beharreko helburua lortu den ala ez modu jarraitu eta sistematikoan ebaluatu. Ondorioz, ezinezkoa da galderari datuetan oinarritutako erantzuna eman. Tesian ahalegindu nintzen laguntzen onuradun izan diren hedabideen iritzia jasotzen eta argi geratu zen ez dagoela adostasunik. Erdien baietz esaten zuten, besteek ezetz. Izan ere, bada iritzia ematea zailtzen duen beste arrazoi bat: ez dago inon zehaztuta nola ulertu behar den laguntzen helburutzat ezarri diren lau kontzeptuak; sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatu. Beraz, hedabide bakoitzak bere erara interpretatzen ditu eta horren arabera iritzia plazaratzen du.

- Ados zaude hedabideekiko Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza- politikarekin? Bai eta ez. Eusko Jaurlaritzari egindako ahalegina aitortu behar zaio, zalantza barik. Eztabaidagai da eskainitako diru-partidak nahikoak izan diren ala ez (ez ahaztu hizkuntza-politikara bideratutako aurrekontua mugatua, finitua dela eta horrekin babestu behar direla hainbat egitasmo), esleipenak egiteko erabili diren irizpideak egokiak izan diren ala ez, prozedurak kontsentsuan oinarritu diren ala ez... baina ezin da ukatu lagundu duela. Bestalde, iruditzen zait Jaurlaritzak bere esku duela egin duena baino gehiago egitea hiru esparrutan: batetik, aurreko galderan aipatu dudana ebaluazio-zeregina. Ez du burutu eta horrela ez dago jakiterik ondo ari den (emandako laguntza eraginkorra ote den) ala beste bide bat hartu behar duen. Bigarrenik EiTb. Zerbitzu publikoa izanik eta Eusko Jaurlaritzak lehenetsitako hedabideak izanik, badu zuzenean eragiterik, nola? egungo euskal gizartearen errealitateari eta beharrei ezkondu dagoen eredu bat eraikiz eta sustatuz. Eta hirugarrenik, nagusiko gaztelaniaz jarduten duten eta euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren hedabideekiko erabakiak/neurriak hartuz. Zaila da, enpresa pribatuez ari garelako baina horiek ere jaso izan dute Jaurlaritzaren dirua eta ezer gutxi ekarri dute horren truke. Gainera saltokien arloan zerbait egin bada dekretu bidez, agian esparru honetan ere egin daiteke (beti ere, arlo juridikotik izan ditzakeen mugak kontuan hartuta).

- Zein neurri edo zein politika inplementatu beharko lirateke aurrerantzean?

Aurreko galderan esandakoak errepikatuko nituzke hemen.

- Zeintzuk dira hedabideekiko hizkuntza-politikaren erronka nagusiak EAEn?

Euskara hutsezko hedabideek euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea egikaritzeko ekarpena egin dezaketela onartzen bada, gobernu ardura duten erakundeek (Eusko

Jaurlaritzak kasu honetan) kuantitatiboki zein kualitatiboki oparoa den hedabideen eskaintza bermatu eta suspertu beharko lukete.

Agerikoa da oinarri ekonomikorik gabe ez dagoela hedabiderik (ez milioika hiztun dituen hizkuntzan ari denik ezta gurea bezalako hizkuntza txikian ari denik ere); eta irmotasun berarekin baieztatu daiteke ez dagoela hedabiderik hartzailerik gabe. Hortaz, erakundeek eta hedabideek zeregin konpartitua dute. Batzuen eta besteen ahalegina batuz lortu behar dute ahalik eta hartzaile gehienengana iristea. Hala eginez, hots, euskarazko hedabideek eskaintako produktuak kontsumitzeko eta ekonomikoki babesteko (agur doakotasunari) prest dauden hartzaile berriengana iritsiz bakarrik ziurtatu daitekeelako hizkuntzaren biziberritzean lagundu dezakeen euskara hutsezko hedabide-esparru sendoa eta beregaina izatea. Eta zeregin hori ezinbestekoa da “nahi dugunean, nahi duguna, nahi dugun hizkuntzan eta nahi dugun euskarrian” kontsumitzeko aukerari ateak parez pare zabalik dituen sasoian.

Baina arestian aipatutako helburua lortzeko aurretiazko urratsa egin beharra dago: pentsatu eta ebatzi behar da zein den XXI. mendeko euskal herritarraren behar komunikatiboak asetzeko eta aldi berean hizkuntza-komunitatea trinkotzeko beharko litzatekeen esparru komunikatiboa. Egunduguna ote da? Egungoarekin zerikusirik ez duena? Egungoa goitik behera irauli eta berria diseinatu eta gauzatu behar ote da? Hausnarketa sakon horri ekin beharko lioke Eusko Jaurlaritzak hedabideekin batera. Premiazkoa da.

9. 3. 2. B elkarrizketa

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).

Definizio ugari pilatzen joan dira azken hamarkada hauetan, bakoitza bere ñabardurarekin, baina sinplifikatzearen horrela deskribatu genezake: hizkuntza, hiztunak edo hizkuntza erabilerari eragiteko pentsatutako jarduna da hizkuntza politika, erakunde edo gizartearen aldaketarako gaitasuna duen giza-taldeek burutzen dutena.

- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza-politika?

Esango nuke bi ezaugarri konstante izan dituen hizkuntza politika dela. Alde batetik, gatazka ekiditen saiatu den politika izan da, oinarrizko-akordioei lehentasuna eman diona, hizkuntza-politikek ahalik eta babes gehien izan zezaten. Hori dela eta, politika hauen eraginkortasuna, emaitzei begiratuz gero, jarraia baina geldoa izan da. Bigarren ezaugarria, berriz, Eusko Jaurlaritzak azken urteetara arte euskararen aldeko mugimendu eta ekimenen

gainean izan duen botere-harremana izan da, horietako asko instituzionalizatzeraino. Azken baieztapen hau ez da alderdi politiko bati egindako kritika bezala ulertu behar, baizik eta agintera iristen den taldearen eta gizarte-aldarrikapenen artean sortzen den mesfidantza eta dinamiken ondorio gisa.

- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituen zutabe nagusiak?

Aurreko galderan erantzuna aurreratu dugun arren, esan genezake hizkuntza-ezagutza haztera bideratutako politikak izan direla urte gehienetan zehar. Bestalde, eta aurreko galderako lehen puntuaren harira, politika posibilstaren adibide garbia izan dela argudiatu liteke, hartutako erabakiak eta abian jarritako ekimenak gizarte-aldarrikapenen atzetik joan direlako gehienetan. Gizarte-adarrikapenei buruz ari garenez gero, eta eredu soziodemokrata edota neoliberal askotan gertatzen den bezala, gizarte-mugimenduak erakundeak ematen dituzten dirulaguntzen menpe bizi dira, eta sistema honek sortzen dituen dinamikak epe laburrekoak eta erosle-bezero motakoak dira.

- Helburu horiei jarraiki, zein izan da Eusko Jaurlaritzak jarraitu duen estrategia hizkuntza-politikaren inplementazioari dagokionez?

Esan bezala, eta azken legegintzaldia ezberdina izan den arren, ikusten da politika posibilista baten barruan jarrera otzana izan duela Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, lege askotan ezarritakoak alorrek ez dira bete urte hauetan guztietan eta lege-hutsuneak betetzeko saiakerarik ere ez da egin, Eusko Legebiltzarrean horretarako aukera egon den arren. Horren adibide gisa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea dugu, zein ez den bereziki lege 'apurtzailea'. Espainiako Konstituzio Epaitegiak puntu garrantzitsu batzuei helegitea jarri zien eta geroztik ez da pausurik eman lege horretan onartu ez ziren puntu horiek utzitako hutsuneak betetzeko.

- Nolako eboluzioa izan du hizkuntza-politikak 1979tik gaur egunera arte helburuei eta inplementazioari dagokionean? Aldaketak izan dira ala berdin mantendu da?

Gaur egun erabilerari garrantzia gehiago ematen zaio prestigio eta ezagutzari baino, baina esango nuke hori izan dela alde nabarmen bakarra urteotan.

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazterako garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

Aipatu bezala, azken legegintzaldiak berezitasun batzuk izan ditu hizkuntza politikaren arloan, bi arrazoirengatik. Aurreko galderetan ikusi da 2016ra arte garatutako hizkuntza politikak izan dituen ezaugarriak (PSE-PP koalizioaren urteetan gehiegi sartu gabe, non urteetako dinamikekin apurtzeko saiakera egin zen zentzu guztietan, politika uzkurragoak abian jartzen saiatu ziren bitartean). Galdera honetan, ordea, baliatuko dut azken

legegintzaldian behatu den aldaketa deskribatzeko: erakunde eta gizarte-mugimenduekin botere-harremanek bere horretan jarraitzen duten arren, gauza logikoa eta aldebikoa, bestalde, bi aldeen arteko elkarlana askoz emankorragoa izan da. Ikusi dugu, eta Euskaraldia eta EuskarAbentura dira horren islada, zentzu handi batean, ahalik eta eragile gehien badaude elkarlanean ekimen horren arrakastarako aukerak oso handiak direla. Hori da azken urteetan gertatu dena, baina badu eragina honetan euskararen biziberritzeak “ezagutzatik erabiltzera” jotzeko konpromisoa hartu izana, ondorio ezberdinak dituztelako biek hala biek. Bukatzeko, komunikazio aldetik lau urte hauetan Eusko Jaurlaritzaren partetik harremanetarako estilo gertukoago, asertiboago eta horizontalago bat ikusi da, eta nabaritu da.

- Zer nolako harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin hizkuntza-politika aurrera eramaterako garaian? Koordinaziorik izan da?

Urte hauetan guztietan Eusko Jaurlaritzak solaskide ezberdinak izan ditu bai Nafarroan eta baita Ipar Euskal Herrian ere. Zorionez, Ipar Euskal Herrian lurralde osoko erakunde bat dago orain eta Nafarroan mahaiaren bestaldean euskararen aldeko agintariak jarri dira, aspaldiko partez. Bi aldaketa hauekin behintzat emaitzak argiak izan dira, eta batzuk esaten dute inoizko lankidetzat maila handiena dagoela.

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein izan da Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politika? Zeintzuk dira helburuak?

Euskalgintzarekin jokatu duen bezala jokatu du Eusko Jaurlaritzak hein handi batean euskarazko hedabideekin: bere gain hartzeko saiakerak eginez eta muturreko kasu batzuetan, gizarte-ekimenak deusestatzen saiatuz, zeharka edo zuzenean (Euskaldunon Egunkariarekin gertatu bezala). Herri eta eskualdeetako hedabideak baliabide gutxirekin biziraun dute, dirulaguntzen menpe, baina azken hauek erreferentzia bilakatu dira.

EAE eta Euskal Herri mailako hedabideei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ikusgarritasunaren eta momentuko boterearen alde egin du, beraz, iragarki instituzionalekin Vocento taldea eta Noticias taldea (gaztelaniaz gehiena) diruz lagunduz.

- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?

Nire ustez, eta labur esanda, ez zaie esleitu duten gaitasunaren araberako papera. EITBren adibidearekin argi ikusten da, zein euskaraz bakarrik hasi zen eta gaur egun gaztelania ardatz duen erakundea den.

- Hizkuntza-politika osoaren baitan hedabideek garrantzia dute Eusko Jaurlaritzarentzat? Bai juridikoki, bai politikoki, bai ekonomikoki (aurrekontuak).

2.1. galderan ikusi den bezala, hedabideak gizartearen onarpena lortzeko tresna izan dira. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren politiken eta kudeaketaren onespena lortu ahal izateko erabili dira hedabide nagusiak, eta lehentasun horrekin gatazkan ageri da euskara.

- Zein oinarri juridiko du hedabideekiko hizkuntza-politikak?

Euskara EAEko berezko hizkuntza den heinean berme juridikoa leukake Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko harremana eratzeko euskal hedabideekin, baina orokorrean hizkuntzarekin gertatu den bezala, euskarazko hedabideekin ere ez da horrela gertatu.

- Inplementazioak zer nolako bilakaera izan du aplikatzen hasi zirenetik gaur arte?

Azken legegintzaldian ikusi da orain arte euskarazko hedabideek pairatutako “bidegabekeriak” konpontzeko neurriak hartu dituela Eusko Jaurlaritzak, hauen jarrera-aldaketarekin bat datorrena, bestalde.

- Markatutako helburuak zein neurritan inplementatu dira?

[Ez du erantzun]

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabideekin helburuak eta inplementazioa erabakitzerako garaian? Koordinazioa egon da?

[Ez du erantzun]

- Zein hedabide lehenetsi dituzte? Zeinetan jarri dute fokoa gehien: telebistan, irratan, prentsan ala interneten? Publikoak edo pribatuak?

Gorago erantzun dira galdera hauek, baina hedabide orokorretara bideratu da arreta, publiko gehien zuena eta atzean dagoeneko babes ekonomiko handiena zuten hedabideetara. Jasotako kritiken ondoren, gaztelania hutseko hedabideek euskara sartzeko neurriak ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak, baina irismen urriko neurriak izateaz gain erantzun eskasa izan du hedabideen partetik.

- Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin koordinatu dira hedabideekiko hizkuntza-politika erabakitzerako orduan?

[Ez du erantzun]

3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

- Zergatik eta zein helbururekin sortu zuen Eusko Jaurlaritzak EITB?

Paperaren gainean Euskal Herriko ikuspegia eta euskara lehenetsiko zituen hedabide publiko bat sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, denbora gutxiren buruan egoera aldatu den arren.

- Hizkuntza-politikaren baitan, zein rol esleitu dio Eusko Jaurlaritzak EITBri?

Kosta egiten zait galdera honi erantzutea, politika eta erabaki kontrajarriak hartu direlako eta ez dudalako ikusten euskara biziberritzeko motorretako bat martxan jartzeko asmorik.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatzen zaio EITBri? Era berezi batean edo gainerako hedabideei bezala? Denboran zehar aplikazio hori aldatu da?

Posibilista, gatazka-ekiditzailea eta instituzional gisa definitu dugu Eusko Jaurlaritzaren politika, eta uste dut ezaugarri berdinak atxikitu ahal zaizkiola EITBri ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde bat denez, zurruntasun handiagoarekin jokatu da eta egindako protesta eta aldarrikapenek oihartzun eta aldaketa gutxi ekarri dituzte hedabide honetara, kasuan kasuko salbuespenak salbu.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak zer nolako eragina dauka EITBren hizkuntza-ereduan eta hizkuntza-politika propioan?

Esan bezala, hizkuntza-politika ez da lehentasuna Eusko Jaurlaritzarentzako eta ez da lehentasuna, beraz, EITBrentzako ezta ere. Eragin mugagabeko tresna bat dauka euskal gizarteak esku artean eta ez da baliatzen ari, tamalez.

- EITBren hizkuntza-eredua nolakoa da, eta zein garapen izan du bere ibilbide osoan? Ikuspegi ezkorrekin egindako analisi batekin esan genezake hizkuntza-komunitatearen irrati eta telebista izatetik, hau da, Euskal Herri osoa helburu zeukan erakundea izatetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hedabide mainstream bat izatera pasatu dela EITB. Ikuspegi baikorrekin egindako irakurketak, ordea, dio XXI. Mendeko ezaugarri, egoera, baldintza eta erronketara egokitu den hedabide modernoa dela.

- EITB euskaraz bakarrik, ala gazteleraz ere bai?

Nire ustez euskaraz beharko luke lehentasun osoa, gaztelaniak baduelako bermatua bere eduki eta eskaintza iturri ezberdinetatik. Dena dela, ETB2ren hasierako helburua ez nuke begi txarrez ikusiko, hots, euskara erdaldunei hurbiltzeko bidea izatea. Errealitateak, ordea, erakusten du ETB2k daramala baliabide eta arreta gehien, euskararen kalterako.

4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu da herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuekiko?

[Ez du erantzun]

- Nola funtzionatzen du hedabideei dirulaguntzak emateko prozedurak?

Gorago aipatu den bezala, epe laburreko plangintza eta funtzionamendua eskatzen ditu, hedabideen lana erakundeen eskakizunetara moldatzera behartuz.

- Zein rol esleitu die Eusko Jaurlaritzak hedabide horiei? Denboran aldatu da?

[Ez du erantzun]

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko?

[Ez du erantzun]

- Nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabide horiekin? Koordinazioa eta lankidetzak egon dira, ala aurkakoa?

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko inplementatu duen hizkuntza politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?

Gaur egun, adibidez, Euskal Herriko umeek ez dute marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukera handirik, euskarazko kalitatezko fikzioa ikusteko aukerarik ez duten bezala heldu euskaldunek. Bi hutsune hauekin bakarrik euskarak prestigio eta eredu-izaera asko galtzen du, hizkuntza nagusiek irabazten dutena.

- Planteatutako helburuak bete ditu?

Euskara biziberritzea bada helburuetako bat, ez.

- Ados zaude hedabideekiko Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikarekin? Inolaz ere, kiroleko metafora bat erabiliz beharrik ez zuten hedabideak dopatu dituelako, hizkuntza-ikuspegia, gainera, baztertuz. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak beste esparru batzuetan izan duen jarrera da, adibidez, hezkuntza publikoarekin eta itunpekoarekin gertatu den bezala.

- Zein neurri edo zein politika publiko inplementatu beharko lirateke aurrerantzean?

Euskararen biziberritzea eta gizartea-erakundeak lankidetzak horizontalak ardatz dituen politikak inplementatu beharko lirateke, epe luzean euskarazko hedabideak segurtatuko dituen, hiztun eta balizko kontsumitzaileen mesedetan.

- Zeintzuk dira hedabideekiko hizkuntza-politikaren erronka nagusiak EAEn?

Aurreko galderan aipatu direnez gain, ikuspegi demokratiko eta anitza ardatz izango dituen politika ausartak garatzea litzateke gakoa, euskararen biziberritzerako hedabideei dagokien papera aitortu eta esleituz eta euskarazko hedabideak modu egonkorrean lagunduz, korporazio handiei gehiago eskatzearekin batera.

9. 3. 3. C elkarrizketa

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).

Hizkuntzen egoera sozialean (ezagutza maila, erabilera maila, erabiltzeko aukerak, hizkuntzek duten prestigioa, motibazio eta baloreak hizkuntzekiko) eragiten duen edozein

jarduera edo jarduera ildo. Azpimarratzekoa da intenzionalitatez egin edo ez, eta kontuan hartuta bai egiten dena eta bai egiten ez dena; hau da, administrazioak ez badu ezer egiten gai baten aurrean, hori ere hizkuntza-politika da. Hizkuntza politika da bai berariazkoa eta bai bere baitakoa, hau da, propio euskaltegiak jartzea hizkuntza politikaren parte da, baina horren parte ere bada natalidadea (bultzatzeak edo ez ondorio soziolinguistiko batzuk ditu), migrazio mugimenduak, edo politika industrialak, horrek hizkuntza arloan ondorioak ditu. Adibidez, AHTak ondorio linguistiko argiak izango ditu: Madril gertuago badaukagu, horrek ondorio linguistiko batzuk ditu, ez onak euskararako. Hori dena ere da hizkuntza politika.

- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza politika?

Politika publiko bat aztertzerako orduan markoari erreparatu behar zaio lehenik, beraz, hizkuntza politikarekin berdin. Marko juridiko-politikoari dagokionean, Espainiar Estatuaren barruan Konstituzioaren baitan euskara bigarren mailan dago: gaztelera jakitera derrigortuta gaude eta euskara jakiteko eskubidea dugu. Sistema guztiz asimetrikoa da. Kanadan, Belgikan edo Suitzan adibidez, simetrikoa da, hizkuntza guztiek maila bera dute. Marko soziolinguistikoari dagokionean, euskara oso egoera ahuletik abiatu zen duela 40 urte: galiziera eta katalana askoz egoera hobean zeuden, eta horrek baldintzatu egiten du hizkuntza politika. Marko ideologikoari dagokionean, euskararen aldeko joera zabal bat zegoen herritarren artean EAEn, baita erdaldunen artean ere. Nire ustez, egin den hizkuntza-politika ez da euskara indartzeko egin beharko litzatekeena. Euskara oso ahul dago: kale erabilera %12-13koa da, eta hori da adierazle garrantzitsua. Egoera hori iraultzeko kristoren hizkuntza politika behar da, oso indartsua, eta EJK egin duena ez da askia inondik inora. Euskara bigarren maila duinago bat izatera iritsi zen. Hala ere, ingurukoekin konparatzen baldin badugu, dezentea da. Europan estaturik gabeko herriak duela 30 urte independizatzen hasi zirenean (Baltikokoak adibidez) hizkuntza politikak emaitza handiak ematen hasi ziren sendo. Horiek alde batera utzita, Europako onenak gu gara katalanekin batera.

- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituen zutabe nagusiak?

Badaude puntu batzuk Eusko Jaurlaritzarekin batera euskalgintza osoak izandako zenbait ikuspegitan oinarritzen direnak. Ikuspegi ez-integrala: hizkuntza politika da euskalduntzea, euskaltegiak, eskola euskalduntzea, ETB 1 eta Berria... Turismoa, etxebizitza politika eta abar ahaztuz: horrek ekarri dituen ondorio soziolinguistikoak oso pisutsuak dira. Hori euskalgintza guztiaren ezaugarria da, orain hasi gara konturatzen horri zentralitatea eman behar zaiola. Bestetik, optimistagia zen. Duela 40 urte esango ziguten erronka jende gehien biltzen diren lekuak euskalduntzea zela helburua, suposatzen zelako inguruko euskaldunek

eutsi egingo ziotela, baina hori ez zen errealia; eta azken urteotako errealitate bat da gune euskaldunenak ahultzen ari direla eta horrek hizkuntza baten bizigarritzerako izugarritzko garrantzia dauka. Nahiz eta inguru erdaldunenetan pixka bat aurreratu eta saldo orokorra ez izan hain negatiboa, galtzen ari gara seguraski komunitatearen muinean, eta hori larria da.

- Egoera horren atzean Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika dago edo beste hainbat faktoreren ondorioa ere bada?

Beste hainbat faktore. Lehenengoa munduko testuinguruan hizkuntza gutxiak hiltzera doaz gauzek horrela jarraitzen badute, oso panorama zaila daukate, eta are gehiago abiapuntu zaila daukateneak. Gainera, Espainiar Estatuaren barruan mugak oso argiak dira: marko juridiko-politiko asimetrikoa guztiz asumituta daukagu. Orokorrean, 40 urte hauetan lortu da euskara bizitzen ari zen jaitsiera gelditzea, eta horren meritua ere badagokio Eusko Jaurlaritzari. Hori ez du edozein hizkuntza komunitatek lortzen. Hala ere, ez egoera irauli eta ez da hazkunde bat gertatu, baina frenatzea lortu da: hainbat egitura garrantzitsu sortu dira hizkuntza mailan, komunikabide mailan, politika mailan... Etorkizunean urratsak emateko bidea eginda dago.

- Egindako lorpen horien atzean zenbateraino daude instituzioak (Eusko Jaurlaritza) eta zenbateraino euskalgintza (herri mugimenduak)?

Historikoki argi dago euskalgintza EJ baino lehenago zegoela. Euskalgintzaren eklosioa 1960ko hamarkadan gertatu zen, frankismoaren baitan: ikastolak, helduen alfabetatzea, kulturgintza. Orduan mugimendu oso garrantzitsu bat zegoen martxan, nazioartean bereizi egiten gaituena, estaturik gabeko nazio gutxik baitzuten horrelako mugimendua. Eusko Jaurlaritzaren sorreran euskalgintzak ezarritako ildo askotan sakondu egin zen, hezkuntzan gehienbat. EJren ildo nagusiak hezkuntza, helduen alfabetatzea-euskalduntzea, administrazioa eta hedabideak izan dira azken 40 urteetan. Hezkuntzan asko aurreratu da, baina eraginkortasun arazo handiak ditu oraindik. Eta beste esparruetan ahulago gaude, bereziki administrazioan eta hedabideetan.

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazterako garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

Eboluzio handia egon da eta onera. Eusko Jaurlaritzaren lehen urteetan harremana oso gatazkatsua zen, AEKrekin edo Argiarekin, adibidez. Ez ziren bat etortzen ia ezertarako. Hori denborarekin bideratzen edo zuzentzen joan zen, eta azken legegintzaldi honetan bereziki. Oso aldaketa positiboa izan da. Giro politikoa aldatzeak eragin zezakeen euskalgintzako hainbat aktorek zeukaten diskurtsoa eta funtzionatzeko modua moderatu izana, eta horrek oraingo egoera erraztu du.

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?

Fishmanen jarraitzeek diote gurea bezalako egoera batean hedabideak ez direla garrantzitsuak, eta ahalegina jarri behar dugula familia giroan, lagun giroan eta harreman informaletan. Ikuspegi konfliktibistagoek garrantzi handiagoa ematen diote, eta nik horrekin egiten dut bat. Euskararen erabilera alorrez alor hartzen badugu (etxean, kalean, lantokian, udalean...) eta maila berean jartzen badugu hedabideen kontsumoa (eta zehazki, telebistarena), koska oso handia dago beheraka, hau da, euskaldunok gehiago erabiltzen dugu euskara lagunekin gaudenean, etxean edota lantokian (inkestetako jarduera guztietan) telebista ikusten dugunean baino. Horren arrazoi funtsezkoa da ez dagoela eskaintza egoki bat, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki gaztelerazko hedabideekin alderatuz. Agerikoa da ETB 1 eta 2ren arteko aldea zentzu horretan. EJK hedabideekiko egiten duen hizkuntza-politikaren parte garrantzitsu bat da ETB, baina hizkuntza politika da bai ETB 1 bai ETB 2, biak dira. ETB 2 indartu dute nabarmen, eta eragin nabarmenak ditu horrek, hau da, euskaldunak hedabideen kontsumoan erdaldundu egiten gara, beste edozein esparrutan baino gehiago.

- Zein helburu ditu?

EJn gai hauetan agintzen egon direnen borondatea ez da izan gaztelera indartzea, baina praktikan hori ari dira lortzen. Beraientzat, ETB1 euskara indartzeko katea da eta ETB 2 gizarte kohesioa lortzeko, baina praktikan efektua ebidentea da.

Hedabideen gaiari pisu handiagoa eman beharko litzaioke, ETB 1 indartzuz, baina beste mila gauzarekin ere. Interneten oso eduki gutxi dago euskaraz, ez dauka eskaintza duinik. Bestalde, euskarazko hedabideetara bideratzen den dirua oso apurra da gaztelerazkoetara bideratzen denarekin alderatuz.

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?

Euskararen erabilera soziolinguistikoaren bilakaera azken 30 urteetan azaltzera ausartzen naiz, ez Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak izandako ondorioez mintzatzera.

EJren hizkuntza politikak beste hainbat faktoreekin batera eragina izan dute izan diren aldaketetan.

Saldo orokorra ez da ikaragarri aurreratu eta ez da ikaragarri behera joan, ez gaude hain desberdin duela 30 urtetik. Baina xehetuko bagenu aldaketa handiak egon dira bi alderdi

funtsezkotan: eremu formaletan aurrera egin dugu (hezkuntzan ikaragarrizko aurrerapena egin da, idatzizko baliabideetan eta administrazioan ere), eta hori oso garrantzitsua da. Baina era berean eremu informalean galdu egin da, ez dugu aurreratu behintzat: bizitasunean, informaltasunean, etxean, lagunartean, umorean... pixka bat ahulago gaude. Horrekin oso lotuta aurreratu dugu erdaldunagoak ziren zonaldeetan, euskara eremu horietan gertuago dago, nahiz eta ez den erabilera gehiegi hazi, baina norabide onean goaz. Betidanik euskaldunak izan diren tokietan galdu dugu, eguneroko bizitza arruntean. Hedabideei garrantzi handiagoa eman behar zaio, eta euskalduntzeari erdalduntzeari baino askoz gehiago.

- Zeintzuk dira Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikak oro har dituen erronka nagusiak?

Fishmani kasu egingo nioke bi gauzetan: familia transmisioa indartu behar da baina ez da erraza. Euskalgintzan eragile asko ahalegindu dira horri beste buelta bat ematen, baina praktikan lantzeko zaila da. Bestetik, arnasmuneak indartu behar dira, euskara nahiko sendo dagoen udalerrietan euskara trinkotu behar dira, euskara nagusi izatea, oso euskaldunak ez diren eremuei baino. Sestaok itxaron dezake; ezin dugu Hernani edo Ondarroa galdu. Horiek guztiz euskaldun izateko inbertitu behar da. Bestetik, hezkuntza eta hedabideak funtsezkoak dira, eta hurrengo erronka lan mundua euskalduntzea da. Hori baino lehen hezkuntza eta hedabideak indartuko nituzke. Hedabideetan urrats oso txikiak eman ditugu (irratian gaude ondoena), eta hori indartu egin behar da. Ez da posible haurrak euskaraz haztea eta nerabezaroan denak erdarara joatea hedabideak eta zinema erderaz kontsumitzen dituztelako.

- Euskal Estatua behar du euskarak?

Zalantzarik gabe. Berez ez da estatu bat behar zintzoki (Kanada edo Suitzan ikusten da), egoera simetriko bat badago, baina hori Espainian eta Frantzia ez da posible, euren kultura politikoak oso urrun daude posizio horretara gerturatzeko. Euskararen posizio hain da ahula edozein lurrikaratxo sozial ekonomiko politikok desagarrarazi dezakela. Astindu horiei estatutik gabe ezingo die aurre egin euskarak.

9. 3. 4. D elkarrizketa

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).

Gutxi gorabehera: Hizkuntzen eta hiztunen arteko egoera soziala aldatzea bilatzen duen politika, edozein dela politika hori egiten duen aktorea: administrazio publikoak (Gobernuak, aldundiak, udalak... bakoitza bere ildo politikoeekin); erakunde sozialak; pertsonak; etab.

- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza-politika?

Euskararen sustapena.

- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituen zutabe nagusiak?

Legeak, administrazioen ekintza planek eta gainerako dokumentuek esan dituztenak.

- Helburu horiei jarraiki, zein izan da Eusko Jaurlaritzak jarraitu duen estrategia hizkuntza-politikaren inplementazioari dagokionez?

Plan estrategikoetan dagoena, gutxi gorabehera. Nire ustez, bi hanka nagusi izan ditu: euskararen sustapena, eta borondatezkotasuna, ez inposizioa.

- Nolako eboluzioa izan du hizkuntza-politikak 1979tik gaur egunera arte helburuei eta inplementazioari dagokionean? Aldaketak izan dira ala berdin mantendu da?

Ikus plan estrategikoen eta ekintza planen balantzeak eta hurrengoetarako jartzen joan diren helburu berriak. Noski, aldaketak izan dira plan batetik bestera. Oro har, euskararen sustapena areagotzea bilatu da.

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazterako garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

Euskalgintza (euskararen sustapena bilatzen duten agenteen multzoa) denak dira: bai Eusko Jaurlaritzak, aldundiak edo udalak, eta bai erakunde sozialak. Ezin da pentsatu "euskalgintza" erakunde sozialak bakarrik direnik. Hainbeste agenteren artean, batzuetan tirabirak nabarmendu dira eta beste batzuetan elkarlana.

- Zer nolako harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin hizkuntza-politika aurrera eramaterako garaian? Koordinaziorik izan da?

Harremana Nafarroako Foru Erkidegoak (Nafarroako herritarren ordezkaria den aldetik) eta Ipar Euskal Herriko erkundeeek nahi izan dutena izan da harremana, batzuetan txikia eta beste batzuetan handia, Eusko Jaurlaritzak beti egon baita prest haiekin koordinatuta ibiltzeko euskararen sustapenari dagokionez.

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein izan da Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politika? Zeintzuk dira helburuak?

Euskara sustatzea hedabideetan eta haien bitartez gizartean. Helburuak: legedian eta araudian daudenak.

- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?

Rol handia, baina kontuan hartuta eremu pribatuko agenteen erabaki libreetan eragitea zailagoa dela Administrazioaren jabetza duten hedabideetan baino.

- Hizkuntza-politika osoaren baitan hedabideek garrantzia dute Eusko Jaurlaritzarentzat? Bai juridikoki, bai politikoki, bai ekonomikoki (aurrekontuak).

Teorian bai, garrantzia handia dute. Euskarazko EITB sortu eta garatu izana konpromiso politiko handia da. Diru asko ere sartu dute: EITBren aurrekontuak; euskarazko hedabideak bultzatzeko diruak oro har; eremu pribatuko eta sozialeko hedabideetarako dirulaguntzak, eta dirulaguntza horiek jasotzeko baldintzak...

- Zein oinarri juridiko du hedabideekiko hizkuntza-politikak?

Ulertzen dut berme juridiko handia duela. Oinarria Estatutuan eta lege nagusietan du.

- Inplementazioak zer nolako bilakaera izan du aplikatzen hasi zirenetik gaur arte?

Bultzada handia gertatu zen EITB sortu zenean (Euskal Telebista, Euskadi Irratia, gainerako euskarazko irrati publikoak...), eta hedabide idatziak sortu edota garatu zirenean; baina, agian, gero meseta egonkor batean gelditu da, ez nabarmen gora eta ez behera.

3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

- Zergatik eta zein helbururekin sortu zuen Eusko Jaurlaritzak EITB?

Araudiak dioena.

- Hizkuntza-politikaren baitan, zein rol esleitu dio Eusko Jaurlaritzak EITBri?

Araudiak dioena.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatzen zaio EITBri? Era berezi batean edo gainerako hedabideei bezala? Denboran zehar aplikazio hori aldatu da?

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Telebistari eta Euskadi Irratiari buruzko hizkuntza-politika guztiz berezia izan da, dena euskaraz baita. ETB2, Radio Euskadi, etab., horietan saiatzen dira gizarte honetan euskara existitzen dela erakusten. Aldaketa txikiak ikusi ditut nik. Horiek funtsean Eusko Jaurlaritzarenak diren hedabideetan. Gero, Eusko Jaurlaritzarenak ez diren hedabideak daude: bestelako administrazio publikoenak, eta eragile pribatu edota sozialenak direnak. Horietan, zeharka baizik ezin du eragin gobernu batek.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak zer nolako eragina dauka EITBren hizkuntza-ereduan eta hizkuntza-politika propioan?

Nire ustez, EITB erakunde autonomoa da eta bere erabaki propioak hartzen ditu; baina, oro har, lerrotatuak euskal gizarteak Parlamentuaren eta Eusko Jaurlaritzaren bidez adierazitako nahi orokorrekin. Beraz, eragina dago, baina zeharkakoa.

- EITBren hizkuntza-eredua nolakoa da, eta zein garapen izan du bere ibilbide osoan? Kate batzuk euskaraz, eta beste batzuk erdaraz, hauetan euskarari tokitxo erreal edo sinbolikoa eginez. Gauzak ez dira gehiegi aldatu.

- EITB euskaraz bakarrik, ala gazteleraz ere bai?

Euskarazko kate indartsu eta on batzuk, kalitatea eta irismena (audientzia) bateratzeko gai direnak; eta beste batzuk euskal herritarren multzo handi bat ez dela euskalduna, edo nekez moldatzen dela, kontuan hartzen dutenak.

4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu da herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuekiko?

Gehienetan babes ekonomikoa ematen eta deialdietan agertzen diren betekizunak eskatzen trukean. Batzuetan hurbiltasuna egon da eta beste batzuetan urruntasuna.

- Nola funtzionatzen du hedabideei dirulaguntzak emateko prozedurak?

Ulertzen dut gainerako dirulaguntzak emateko prozeduren antzekoa dela.

- Zein rol esleitu die Eusko Jaurlaritzak hedabide horiei? Denboran aldatu da?

Rola: araudian dagoena. Edozein kasutan, hedabide horiek independenteak direnez beraiek nahi duten rola jokatzeko dute, inork ezin die rolik inposatu. Harremanen aldetik, aldaketak gertatu dira nire ustez, elkarlanaren edo osagarritasunaren bidetik.

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko? Erabateko autonomia, jabeek nahi dutena, jabetza pribatukoak direlako. Baina dirulaguntzak jaso nahi baldin badituzte deialdietako baldintzak bete beharko dituzte.

- Nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabide horiekin? Koordinazioa eta lankidetzak egon dira, ala aurkakoa?

Batzuetan koordinazioa eta lankidetzak, eta beste batzuetan ez hainbeste.

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko inplementatu duen hizkuntza politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?

Oso handia, hedapen orokorreko euskarazko telebista eta irratik jarri ditu eta herritar guztiek dute aukera horien erreferentzia izateko. Eta bestelako hedabideei ere bultzada edo legitimotasun handia eman die. Alderantziz begiratuta: nolako ohitura linguistikoak izango

lituzke euskal gizarteak Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak eta ekimen sozial edo pribatuak azkeneko hamarkadetan bultzatutako euskarazko hedabiderik gabe?

- Planteatutako helburuak bete ditu?

Helburu orokorrak betetzeko zailak dira. Helburu zehatzak, plan bakoitzean ezartzen zirenak, lorgarriagoak dira. Edozein kasutan, hutsuneak daude ETBn kalitatearen programazioaren koherentziaren eta audizentziaren aldetik. Euskadi Irratia, berriz, sendoagoa iruditzen zait.

- Ados zaude hedabideekiko Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikarekin?

Oro har bai, kontuan hartuta gainera politika orokorra euskal herritarrek zehazten dutela Eusko Legibiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez, ez dela inoren asmakizun isolatua. Kudeaketa praktikoan hutsune nabarmenak ikusten ditut.

- Zein neurri edo zein politika publiko inplementatu beharko lirateke aurrerantzean?

Kalitatea eta koherentzia areagotzea euskarazko hedabideetan. Euskara ikusgarriago egitea erdarazko hedabide publikoetan. Eremu sozial edo pribatuko dirulaguntzak eta haiei lotutako betebeharrak areagotzea.

- Zeintzuk dira hedabideekiko hizkuntza-politikaren erronka nagusiak EAEn?

Toki sendoa egitea audientzian, herritarren artean, alegia.

9. 3. 5. E elkarrizketa

1. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika

- Hizkuntza-politika nola definituko zenuke? (Definizio orokorra).

Hizkuntza Politika (HP) sortzen da hizkuntza baten (batzuen) egoeran edo ibilbidean eragiteko asmoz. Planteamendu horrek egoera eraldatzea (hizkuntza biziberritzeko ala desagerrarazteko) bilatuko du, edo kontserbatzailea (uneko egoerari eustea).

Bestalde, planteamendua esplizitua (aldeko ala aurkako esku-hartzearen bitartez) izan daiteke edo inplizitua (esku-hartzerik gabe, abian dagoen dinamika bere kasa joan dadin uztea).

- Nola definituko zenuke Eusko Jaurlaritzak 1979tik gaur arte aplikatu duen hizkuntza-politika?

Edozein HP baloratzekoan, beti norberaren balioak eta ideologia daude tartean; balorazio oro subjektiboa da.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean gauzatu zen 1982an, eta bertan herri-aginteen funtzioak eta betebeharrak ezarri ziren euskararen normalizaziorako lehentasunezko zat jotzen ziren hainbat esparrutan, besteak beste, hedabideetan.

Hori da Eusko Jaurlaritzak daukan HPren abiapuntu formala; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta, ondoren, 2015ean, hurrengo 10 urtean indarrean egon behar duen plan berri bat kaleratu zen: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Plan horrek 16 interbentzio-esparru zehazten ditu, hedabideen esparrua barne.

HP horretan oreka gorde nahi izan da, batetik euskaltzaleen gogoia bete nahirik, baina, aldi berean, HP horren neurriek beste sektoreetan kontrako erantzunik sortu gabe.

- Zeintzuk dira jarraitu dituzten helburuak eta izan dituen zutabe nagusiak?

Euskararen normalizazio soziala lortzea eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzea. Horretarako, hainbat neurri duen hizkuntza-politika aplikatzen da.

- Helburu horiei jarraiki, zein izan da Eusko Jaurlaritzak jarraitu duen estrategia hizkuntza-politikaren inplementazioari dagokionez?

HPren inplementaziorako jarraitu den estrategia zuhurtziarena da. Izan ere, EJ beti saiatu da uztartzen euskara suspertzeko ahaleginak EAeko gizarte osoaren kohesioa zaintzearekin. Horretarako, adostasunean oinarritu da, neurriak pixkanaka eta tentuz ezarriz.

- Nolako eboluzioa izan du hizkuntza-politikak 1979tik gaur egunera arte helburuei eta inplementazioari dagokionean? Aldaketak izan dira ala berdin mantendu da?

Batetik, 1979an ez zegoen HPa diseinatu eta garatzeko marko juridikorik. Arestian esandako legea 1982an indarrean sartu zenean, abiatu zen HPa.

Bestetik, garai horietan, soziolinguistika teorikoa (akademikoa) zein aplikatua ere ez ziren ia ezagutzen gure artean. Oinarri-oinarrizko kontzeptuak, mekanismoak eta aukera errealak ezezagunak zitzaizkigun. Adibide bat: uste orokortua zen umeek eskolan euskara ikastearekin, barra-barra erabiliko luketela, erdararen aurretik. Beste adibide bat: Deustun (Bilbo) mintzapraktika talde bateko kide baten iritziz, bost urteko epea eman behar zitzaien erdaldunei euskara ikasteko eta, epe horretan ikasten ez zutenek Euskal Herritik alde egin beharko zuten. Errealitatek lekutan!

Baldintza horietan, hasiera batean HP bat garatzeko gaitasun teknikoa oso mugatua zen. Denbora igaro ahala, ordea, HPk ildo eta ipar orokor bertsuak mantenduz, berau garatzeko sortu diren planak gero eta zehatzagoak eta egokiagoak izan dira.

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak euskalgintzarekin hizkuntza-politikaren helburuak eta inplementazioa zehazterako garaian? Koordinazioa egon da? Denboran harremanak zein eboluzio izan du?

Hogeita batgarren mendearen lehenengo hamarkada bete arte, gutxi gorabehera, harremanak nagusiki giro istilutsuan geratu dira; alderdikeria tarteko, kolore politiko kontrajarriek HPa baliatu nahi izan dute beren interesen arabera politikak egiteko. Giro gatazkatsu hori euskalgintzan ere islatuz, oztopo handia zen HP arrakastatsua izan zedin.

- Zer nolako harremana izan du Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin hizkuntza-politika aurrera eramaterako garaian? Koordinaziorik izan da?

EJK koordinazioa bilatu ohi izan du Iparraldearekin eta Nafarroarekin, baina, garai batzuetan, lekuan lekuko egitura ofizial faltak edota herri-administrazioaren agintari politiko batzuek asko baldintzatu dute ahaleginaren arrakasta.

Iparraldean, lehenengo garaietan ez zegoen ordezkari politiko propiorik eta Euskal Kultur Erakundearen (EKE) bitartez bideratzen zen elkarlana EJrekin; ondoren, Frantziako estatuko herri-administrazio maila guztiak eta herri-mugimenduko erakundeak Euskararen Erakunde Publikoan (EEP-OPLB) bilduta, asko sakondu da kolaborazioan. Orain, pentsatzekoa da Elkargoarekin aukera berriak irekitzeko aukerak areagotuko direla.

Nafarroan, trantsizio politikoaren garaian EJrekin kolaboratzeko ireki ziren aukerak laster kamustu ziren, bereziki UPNren gobernu ezberdinekin. Eten hori gainditzeko ahaleginak egin dira aurreko gobernuarekin eta elkarlanerako aukera berriak abiatu ziren. Orain, aurreko legintzaldian abiatutako dinamikari eutsi zaio orain arte, eta, itxuraz denez, bide beretik jarraituko da.

2. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika hedabideekiko

- Zein izan da Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko aplikatu duen hizkuntza-politika? Zeintzuk dira helburuak?

EJren lehenengo gobernutik, euskarazko hedabideak bultzatzeaz agertu zen ardura, eta horren erakusle argiena ETBren sorrera izan zen; horrela, sortu zen bere lehenengo katea euskarazkoa izan zen. Xede hori ondoren desitxuratu zen, nolabait, ETB2 gaztelaniaz sortzearekin batera.

- Zein rol esleitu die hedabideei hizkuntza-politikaren baitan?

[Ez du erantzun]

- Hizkuntza-politika osoaren baitan hedabideek garrantzia dute Eusko Jaurlaritzarentzat? Bai juridikoki, bai politikoki, bai ekonomikoki (aurrekontuak).

Euskarazko hedabideei dagokienez, neurriak pixkanaka hartuz, gero eta dinamika osatuagoa bultzatu da. “Euskararen Agenda Estrategikoa 2013 – 2016”-k dioenez, euskarazko hedabideen multzoa euskararen “elikadura” bezala irudikatu du EJK, beste zenbait arloekin batera, hala nola kulturgintza, publizitatea etab. Halakoak, euskararen transmisiorako eta erabilerarako egiten diren ahaleginen emaitzak suspertzeko eta areagotzeko, garrantzitsuak direla aitortzen da. (24. or.)

Beste gauza da erdarazko hedabideekin jarraitutako bidea eta lortutako emaitzak. Hor egin diren ahalegintxoak ez dute emaitza nabarmenik ekarri. Erdarazko prentsan ez da aldaketarik sumatu.

“Euskararen Agenda Estrategikoa 2013 – 2016”-k argi jasotzen du hedabideei ematen zaion garrantzia:

Euskarazko hedabideen sektore sendo bat izatea giltzarria da euskaren erabilera bultzatzeko eta hizkuntzari berari prestigioa emateko, hau da, euskarazko kontsumoa sustatzeko nahiz sentsibilizazio eta motibazioa eragiteko. Gaur egun, ordea, unitate txiki askoz osaturiko multzoa dela esan genezake, nahiz eta egituratzeko lanetan gogoz diharduen. Horregatik, sektorea indartu, egituratu eta sustatzeko politikari jarraipena emango diogu, eta irakurleen eta ikus-entzuleen gogo-apetak asetzeko ahaleginak sustatuko ditugu. (25. or.)

- Zein oinarri juridiko du hedabideekiko hizkuntza-politikak?

[Ez du erantzun]

- Inplementazioak zer nolako bilakaera izan du aplikatzen hasi zirenetik gaur arte?

[Ez du erantzun]

- Markatutako helburuak zein neurritan inplementatu dira?

Euskarazko hedabideak ez dira gauza dirulaguntza publikorik gabe bizirauteko. Edo, bestela esanda, euskararen komunitateak ez da gai, bere kasa, euskarazko hedabideak suspertzeko.

Prekarietate horrezaz jabetu behar gara hedabide horiek egiten ari diren bidea modu egokian baloratu ahal izateko. Beraz, dauden baldintza prekarioak aintzat hartuta, hedabide horiek ari dira bidea egiten herri-administrazioaren laguntza baliotsuaren eskutik.

- Zer nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabideekin helburuak eta inplementazioa erabakitzerako garaian? Koordinazioa egon da?

Euskarazko hedabideekin harremanek asko aldatu dute. Urte luzetan, jarrera oso kontrajarriak eta gatazkatsuak izan ziren, baina azken urteotan hobera egin dute nabarmen; finantzazio arloan hitzarmen garrantzitsuak lortu dira, jarraian datorren albisteak azaltzen duen bezala: “Dirulaguntza eredu berria, norabide egokian emandako lehen pausoa”

- Zein hedabide lehenetsi dituzte? Zeinetan jarri dute fokoa gehien: telebistan, irrastian, prentsan ala interneten? Publikoak edo pribatuak?

EJren apustu nagusia bere mende dagoen EITBrena izan da, Euskadi Irratia, Gaztea eta ETB1 bereziki.

Herrigintzaren edo euskalgintzaren eskutik bultzatu diren beste ekimenek laguntza jaso dute EJtik (aurreko puntuan esan bezala), baina ez dira izan bere ardura nagusia.

Erdarazko prentsa pribatuarekin egin diren ahaleginak, emaitzei erreparatuz gero, ez dira ikusgarriak izan.

- Nafarroako Foru Erkidegoko eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin koordinatu dira hedabideekiko hizkuntza-politika erabakitzerako orduan?

Ez dut gaia ezagutzen. Baina, lankidetzaren ahaleginik handiena, seguru asko, EITBren seinalea lurralde horietara hedatzea izan liteke.

3. Euskal Irrati Telebistaren (EITB) inguruan

- Zergatik eta zein helbururekin sortu zuen Eusko Jaurlaritzak EITB?

[Ez du erantzun]

- Hizkuntza-politikaren baitan, zein rol esleitu dio Eusko Jaurlaritzak EITBri?

Asmo nagusia komunikazio-talde publiko propioa sortzea izan da, Estatuko eragin mediatiko publiko zein pribatua "neutralizatzeko". EAEko eremua jomuga nagusitzat hartu da, baina beste euskal lurraldeak ere eskaintza horretara erakartzen saiatuz.

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatzen zaio EITBri? Era berezi batean edo gainerako hedabideei bezala? Denboran zehar aplikazio hori aldatu da?

[Ez du erantzun]

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak zer nolako eragina dauka EITBren hizkuntza-ereduan eta hizkuntza-politika propioan?

[Ez du erantzun]

- EITBren hizkuntza-eredua nolakoa da, eta zein garapen izan du bere ibilbide osoan?

[Ez du erantzun]

- EITB euskaraz bakarrik, ala gazteleraz ere bai?

EITBk, gainerako hedabide edo komunikazio talde guztiek bezala, ezinbesteko morrontza du audientzia txukunak lortze aldera. Hori ulergarria da, bi arrazoi nagusiengatik.

Batetik, EITB taldeak audientzia txikiak lortuz gero, oposizioko alderdien kexa berehala eta ozen entzungo zelako. Alegia, audientzia zifrak arriskuan ez jartzeko, HPren irizpideei lehenetasun osoa ematea zaila ari da suertatzen. Izan ere, euskarazko programazioa lehenesteak audientziaren galera lekarke. Esan daiteke, adibidez, ETB2k kalte egin diola euskararen aldeko HPri, bi modu nagusitan.

- Gizartean erreferente diren euskaldunak erdaraz agerraraziz, alegia, ez euskaradun bezala.

- Programa arrakastatsu batzuk (El Conquis, esaterako) ETB1i audientzia kenduz.

Bestetik, arestian esan bezala, Estatuaren eraginaren aurrean bertako komunikazio sendoa lortu nahi da, horretarako erdarazko programazioa bultzatu beharra badago ere.

Horrek guztiak baldintzatu du EJren HPa modu sendo eta irmoan ezartzea.

4. Herri ekimeneko hedabideen inguruan

- Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika nola aplikatu da herri ekimenetik sortutako euskarazko hedabide pribatuekiko?

[Ez du erantzun]

- Nola funtzionatzen du hedabideei dirulaguntzak emateko prozedurak?

[Ez du erantzun]

- Zein rol esleitu die Eusko Jaurlaritzak hedabide horiei? Denboran aldatu da?

Arestian esandakoaz gain ezin dut besterik gehitu.

- Nolako autonomia dute hedabide horiek euren hizkuntza-politika propioa garatzeko? dirulaguntzaren mende izateak nolabaiteko lotura sortzen du. Teorian ez da horrela izan behar, baina praktikan joera eta arrisku horiek beti daude hor. Batzuetan, bi aldeen arteko nolabaiteko “enpatia” (pertsoneko edo instituzionala) sor daitekeelako. Bestetan, diru emaleekin kritiko agertuz gero, “zigortuak” izatearen beldurra ager daitekeelako.

- Nolako harremana izan du Eusko Jaurlaritzak hedabide horiekin? Koordinazioa eta lankidetzaren egon dira, ala aurkakoa?

Arestian esandakoaz gain ezin dut besterik gehitu.

5. Eragina hizkuntza-ohituretan

- Eusko Jaurlaritzak hedabideekiko inplementatu duen hizkuntza politikak zein eragin izan du EAEko biztanleriaren hizkuntza-ohituretan?
- Planteatutako helburuak bete ditu?

EJren HPk eragina izan duela ez dago zalantzarik. Zenbatekoa edo norainokoa den esatea ezinezkoa da, hizkuntzan aldi berean eragiten duten faktore asko eta mota oso ezberdinekoak direlako.

Planteatutako helburuak bete direla ez dago zalantzarik, helburua euskara gizartean istilurik sortu gabe “elikatzea” izan den neurrian. Nahikoa lortu den ezin da modu objektiboan baloratu, baina egindakoa beti izango gutxi, euskarak dituen baldintza orokorrak erabat aurkakoak zaizkiolako; alegia, hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen duen bitartean, egindako guzti-guztia beti izango da gutxi.

- Ados zaude hedabideekiko Eusko Jaurlaritzak aplikatu duen hizkuntza-politikarekin?

Gizarte kohesioa arriskuan ez jartzea izan da estrategia nagusia, eta horretan ongi asmatu da. Baina, horrek galgatu du hainbat neurri eta helburu zehatzen aplikazioa. Epe motzean, euskarak behar duen hauspoa ahuldu egin da, dudarik gabe.

Bestalde, komunikazio-talde boteretsu gehienak Estatu mailakoak dira, eta, hortaz, EJren eskumenetatik kanpo gelditzen dira.

Hemengoak direnak, ez dira bereziki euskaltzaleak, baina, hala ere, audientzia handienak edo handienetakoak dituzte. Hortaz, gizarteak bere horretan estimatzen eta “erosten” ditu.

Estatukoak edo bertakoak izan, erdarazko hedabideetan eragiteko palanka nagusia merkatu legearen pean datza: eskaeran, hain zuzen. Alegia, euskaldun gehien-gehienek erdarazko hedabideetara jotzen dute, besteak beste inertziaz eta inkontzienteki; baita ere, askotan, euskarazko aukerak ezagutzen ez direlako. Audientzien jokaera horretan eragiteko ez da HPTik ahalegin seriorik egin.

- Zein neurri edo zein politika publiko inplementatu beharko lirateke aurrerantzean?

[Ez du erantzun]

- Zeintzuk dira hedabideekiko hizkuntza-politikaren erronka nagusiak EAEn?

Euskaldunek euskarazko hedabideak kontsumitu ditzatela lortzea. Euskaldun euskaltzale askok erdarazko hedabideak kontsumitzen dituzte, eta horri buelta emateko, kontsumitzaile euskaldunen aktibaziorako, politika bat diseinatu eta ezarri beharko litzateke.

Hala ere, EJK zuhurtziaz jokatzeko ezinbestekoa izan da, batez ere eremu oso euskaldunetatik kanpo. Hala ere, tentuz ezarri arren, euskararen aldeko neurri batzuk gaizki hartuak izan dira sektore batzuen aldetik, “inposatuak” zirelakoan; ez gizarteak eskatutakoak edo egunerokotasunean beharrezkoak. Alderdi politiko batzuek sentimendu eta uste horiek baliatu izan dute, eta horrek gizartean arrakala gaindiezina sortzeko arriskua ekar zezakeen. Azken hamarkadan, aurkako jarrera horiei buelta eman zaie pixkanaka, eta gaur egun euskara gure gizartearen “ohiko” elementutzat hartzen ari da... betiere norberaren (edo seme-alaben etab.) interesentzat oso kaltegarria ez den neurrian.